

**Gizartea eraldatzeko hezkuntza eta ikerketa.  
Euskadiko eta Kolonbiako  
unibertsitate-komunitate kritikoaren arteko  
artikulazio-esperientzia sistematizatzea**

Amaia del Río (koor.)  
Gema Celorio  
Juanjo Celorio  
Iris Murillo  
Diana Granados  
Axel Rojas  
Julio R. Jaime  
Robinzon Piñeros





Lan hau Lankidetzarako eta Garapenerako Euskal Agentziaren laguntzarekin argitaratu da, 2021eko proiektu honen barruan: “Euskal-kolonbiar artikulazioa, aldizkako pandemiaren garaian, beste hezkuntza posible bat esperimendatzeko, ikasteko eta komunikatzeko”. Testuen edukiaren erantzukizuna honako erakunde hauena da: Hegoa institutua, Caucaoko Unibertsitateko Etnografia Lantegia ikerketa-haztegia eta Surcolombiana Unibertsitateko In-SUR-Gentes eta Hezkuntza Praktiken ikerketa-taldeak.

Argitaratzaileak:



Finantzailea:



Gizartea eraldatzeko hezkuntza eta ikerketa.  
Euskadiko eta Kolonbiako unibertsitate-komunitate kritikoen  
arteko artikulazio-espereintzia sistematizatzea  
2023 Abendua

Egileak: Amaia del Río, Gema Celorio, Juanjo Celorio, Iris Murillo,  
Diana Granados, Axel Rojas, Julio R. Jaime eta Robinzon Piñeros

Koordinazioa: Amaia del Río

Sistematizazioaren bitartekoak: Corporación Ensayos  
para la Promoción de la Cultura Política

Argazkiak: Equipo Articuladxs

Azalaren diseinua: Aquelarre, laboratorio de diseño feminista

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Bakun

Lege-gordailua: BI 00887-2024

ISBN: 978-84-19425-18-8



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopia, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# Aurkibidea

Sarrera .....	7
<b>1. Ekimen hau eta Articuladxs proiektuko taldearen eraketa sustatu dutenen enuntziazio-lekua .....</b>	<b>11</b>
1.1. Hegoa EHUKo Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko Hezkuntza Taldea. Emantzipazio-helburuetarako subjektuak eta begirada <i>bestelakoak</i>	13
1.2. Caucako Unibertsitateko Etnografia Lantegia ikerketa-haztegia. Akademiaren konpromisoa gizarte-eraldaketako prozesuetan elkarlanean aritzeko elkarlanean aritzeko	15
1.3. Surcolombiana Unibertsitateko In-SUR-Gentes ikerketa-taldea eta Hezkuntza eta Gizarte Praktiken ikerketa-taldea. Gorputzak, lurraldeak eta borroka Gorputzak, lurraldeak eta borrokek	18
1.4. Articuladxs taldea. Desberdintasunak kontuan hartuta eraikitzea	19
<b>2. Ikerketa kritikorako prestakuntza-esperientziaren deskribapena .....</b>	<b>25</b>
2.1. Lan akademikoak hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik egiteko laguntza- eta orientazio-mintegiak	27
2.2. Ikerketa akademiko kritikoari buruzko hausnarketa- eta eztabaida-topaketak	43
2.3. Elkarrizketak lurraldeetako herri-ekimenekin eta prozesu komunitarioekin	50
<b>3. Esperientzia pedagogikoa sistematizatzeko prozesua .....</b>	<b>55</b>
<b>4. Sistematizazioaren emaitzak .....</b>	<b>61</b>
4.1. Testuinguruak esperientzia pedagogikorako duen garrantzia. Egungo zibilizazio-krisiak unibertsitatearen aldaketa eskatzen du, emantzipaziorako bidean	63
4.2. Subjektuen, lurraldeen eta gizarte-prozesuen arteko artikulaziotik sortutako ikaspenak, unibertsitateko hezkuntza- eta ikerketa-esperientziei dagokienez	67
4.2.1. Ikerketa harreman, akonpainamendu eta eraikuntza kolektiborako espazioa da, eta subjektuen ahduntzea dakar	68
4.2.2. Hegoalde globaletik datozen eta gizarte-eraldaketara jotzen duten esparru kontzeptualetara eta tresna metodologikoetara hurbiltzea	70
4.2.3. Errealitatearekiko lotura eta lurraldeen emantzipazio-borrokak	72
4.2.4. Tentsioak, hutsegiteak, hobetzeko proposamenak eta artikulazioaren erronkak	75

4.3. Ezagutza emantzipatzailea sortzeko ikaspenak	77
4.3.1. Ikerketaren egokitasun politikoa ezagutza emantzipatzaileerako	78
4.3.2. Hegemonia zientifikoa borrokatzea. Ezagutza-aniztasuna aintzat hartzea eta ikuspegi kritikoa emanstea	79
4.3.3. Hierarkiak iraultzea ezagutzaren ekoizpenean	85
4.3.4. Komunitateen errealitate, arazo eta borroka historikoei erantzutea	87
4.3.5. Komunitateak ikerketan parte hartzea eta ikertzaile kritikoei laguntzea prozesu sozialetan	91
4.4. Ekintza kolektiboetatik sortzen diren ikaspenak	94
4.4.1. Elkarrizketa kolektiboa eta artikulazioa	95
4.4.2. Komunitatean eraikitako subjektu politikoen parte-hartzea	97
4.4.3. Lurraldea pentsamenduaren eta ekintzaren katalizatzaile gisa	99
4.4.4. Proiektu politiko komuna	101
4.4.5. Unibertsitate saretua, eraldaketa emantzipatzaileak ikusarazteko	102
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	<b>105</b>
<b>Eranskinak</b> .....	<b>109</b>
1. eranskina. Ikerketak-lanaren aurkezpena (1. fitxa)	111
2. eranskina. Hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekiko loturak (2. fitxa)	111
3. eranskina. Gizarte-arloarekin konprometitutako ikerketa lanak pentsatzeko jarraibideak (3. fitxa)	112
4. eranskina. Irakasleen eta gizarte-kolektiboen (4. fitxa)	118
5. eranskina. Sistematizazioan erabilitako erregistroak	119
6. eranskina. Hezkuntza kritiko eta eraldatzaileerako oinarritzko bibliografia	120
<b>Grafikoen aurkibidea</b>	
1. grafikoa. Parte-hartzaileen bizilekua	28
2. grafikoa. Parte-hartzaileen borroka-eremua	29
<b>Irudien aurkibidea</b>	
1. irudia. USCoko parte hartzaileen geolokalizazioa	36
2. irudia. Hitz-hodeia. Gorputza	37
3. irudia. Hitz-hodeia. Lurraldea	38
4. irudia. Hitz-hodeia. Borroka	39

5. irudia. UPV/EHUn egindako topaketaren kartela	44
6. irudia. UNICAUCAn egindako topaketaren kartela	47
7. irudia. USCOOn egindako topaketaren kartela	49
<b>Taulen aurkibidea</b>	
1. taula. Kodetze-adibidea	59





Sarrera





## Sarrera

Sistematizazio hau proiektu honen barruan sartzen da: “Euskal-kolonbiar artikulazioa, aldizkako pandemien garaian beste hezkuntza posible bat esperimenteratzeko, ikasteko eta komunikatzeko” (aurrerantzean, Articuladxs), honako erakunde eta talde hauek gauzatua: Caucaoko Unibertsitateko (UNICAUCA) Etnografia Lantegia ikerketa-haztegia; Surcolombiana Unibertsitateko (USCO) In-SUR-Gentes ikerketa-taldea eta Hezkuntza eta Gizarte Praktiken ikerketa-taldea (HGPI), eta Hegoa, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nazioarteko Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatzen du ekimena. Hauek dira talde eragileko kideak: Axel Rojas Martínez eta Diana Granados Soler (UNICAUCA); Julio Roberto Jaime Salas eta Robinzon Piñeros Lizarazo (USCO); Juanjo Celorio Díaz, Gema Celorio Díaz, Iris Murillo Hidalgo eta Amaia del Río Martínez (Hegoa).

Articuladxs<sup>1</sup> (2022-2023) ekimenaren helburua da kultura akademikoaren eta gizarte-ekoizpenaren arteko artikulazio-logikak esperimenteratzea, alde batetik, ezagutza emantzipatzaile baten elementu kritikoei buruz gogoeta egin ahal izateko, egungo erronka sozial, ekologiko, ekonomiko eta kulturei aurre egitearren, eta, bestetik, ekintza kolektibo eraldatzaileetatik ikasteko. Norbanakoak, lurraldeak, eztabaidak eta perspektibak zabaltzeko ahalegina da Articuladxs, eta, horretarako, UNICAUCA, USCO eta UPV/EHuko komunitateen arteko *juntanza*<sup>2</sup> proposatzen du.

Artikulazioaren barruko esperientzia pedagogiko honetatik ikasteko interesa izan da sistematizazio-ariketa hau egiteko arrazoia, eta ikasitakoa argitalpen honetan aurkezten dugu.

Dokumentu hau hiru erakundeen enuntziatio-lekua eta Articuladxs taldearen eraikitze-prozesua azalduz hasten da. Bigarren atalean, gogoetarako jarduerak biltzen dira. Hirugarren puntuan, sistematizazio-prozesua eta erabilitako metodologia deskribatzen dira. Azkenik, laugarren puntuan, artikulaziotik, ezagutza emantzipatzailetik eta ekintza kolektibo eraldatzailetik eratorritako ikaspenei buruzko azterketaren emaitzak aurkezten dira.

- 
- 1 Informazio gehiago Articuladxs proiektuari buruz: [www.hegoa.ehu.es/eu/projects/27](http://www.hegoa.ehu.es/eu/projects/27) Esperientzia pedagogiko honen esanahia erakusten duen bideoa: <https://multimedia.hegoa.ehu.es/es/videos/174-articuladxs-hacia-conocimiento-accion-emancipadora>
  - 2 Kolonbian bilera edo topaketa izendatzeko erabiltzen den hitza.

Testu honen izaera polifonikoa nabarmendu nahi dugu. Esperientzia pedagogiko honetan parte hartu dutenen ekarpenak eta sentipenak biltzeaz gain, zenbait eskutara idatzitako dokumentua da. Orain aurkezten dugun argitalpen honen oinarria zenbait irakurketa-, azterketa- eta idazketa-ariketa dira, denak joan-etorrikoak.

Sarrera hau amaitzeko, bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten Euskadiko eta Kolonbiako pertsoneri, taldeei eta gizarte-mugimenduei. Azken batean, orri hauek horien guztien ahaleginaren eta lanaren emaitza dira. Entzute-, hizketa- eta truke-prozesu bat izan da, eta, horri esker, *beste mundu posible batzuk* eraikitzeke dugun konpromisoa indartu dugu.



# 1. Ekimen hau eta Articuladxs proiektuko taldearen eraketa sustatu dutenen enuntziazio-lekua



# 1. Ekimen hau eta Articuladxs proiektuko taldearen eraketa sustatu dutenen enuntziazio-lekua

## 1.1. Hegoa Hezkuntza Taldea, EHUko<sup>3</sup> Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua. Emantzipazio-helburuetarako subjektuak eta begirada *bestelakoak*

Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua (aurrerantzean Hegoa) Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) institutu misto bat da, 1987an sortua, eta esparru teorikoak, giza garapenerako prozesu eta estrategia alternatiboak eta gizarte-aldaketan eragiteko lankidetzeta eraldatzailea sortzen ditu.

Hasieratik, Hegoak hezkuntzan bereziki aritzen den talde bat izan du. Talde hori hasieran Garapenerako Hezkuntzaren (GH) ikuspegian oinarritzen zen, eta, bilakaeraren ondorioz, orain Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) ikuspegian oinarritzen da. Bilakaera hori ikuspegi kritikoak (feminista, ekosoziala, dekoloniala...) txertatzearekin batera gertatu da; izan ere, gaur egun lantzen dugun hezkuntzaren ikuskera zehaztu eta aberastu egiten dute.

Hezkuntza-taldeak hezkuntza-ekintza baten zentzua eta estrategia ulertu eta oinarritu nahi du, hain zuzen, eredu menderatzaileak sortzen duen krisiaren aurrean gizarte-mobilizazioa eragiten duten ikaspenak sustatzeko gai den hezkuntza-ekintzarena. Ildo horretan, gogoeta eta eztabaida ikertzen eta bultzatzen ditu, bai erakundearen beraren barruan, bai hezkuntzaren eta elkartasun- eta lankidetzeta-mugimenduaren esparruan.

Sorreran, joan den mendeko 90eko hamarkadan, Garapenerako Hezkuntza zer zen eta hezkuntza-sisteman benetan zer egoera zuen argitzen saiatu zen. *Garapenerako Hezkuntza* esamoldeak elkartasunera eta lankidetzara bideratutako gobernu kanpoko erakunde sortu berriek Espainian ezartzen zituzten sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekintzak biltzen zituen, itxuraz. Hala, interes horrek emaitza gisa derrigorrezko hezkuntzan Gizarte Zientzietako testuliburuetan garapenerako hezkuntzak zuen tratamenduari buruzko ikerketa –lehen– ekarri zuen. Eta ikerketaren emaitzak, “curriculum ezkutua” deritzonak, 1990eko Garapenerako Hezkuntzaren I. Biltzarrean eztabaidari ekitea ahalbidetu zigin.

Kongresu hori bat etorri zen denboran Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoaren (LOGSE) hezkuntza-erreformaren prozesuarekin,

---

3 Euskal Herriko Unibertsitatea.

eta, beraz, hurrengo urteetan “zeharkako gaitasun” deiturikoak asko landu ziren. Talde horrek antolatutako Barriako Zeharkakotasunari buruzko Jardunaldiak (1995) aurrekaria izan ziren zeharkakotasunari buruzko ikuspegi kritikoa finkatzeko eta GHak esparru formalean duen estrategian bidea markatzeko. Hala, 1996an II. Kongresua egin genuen, eta hor aurrera egin zen GHari buruzko eztabaida eta haren ekintza esparru formalean zabaltzeari zegokionez (zeharkakotasuna, hezkuntza kritikoa eta herrikoia, giza garapena, hezkuntza-erreformen mugak eta ahalmenak, ikastetxeek curriculum bereganatzea...). Erreforma eta berrikuntza pedagogikoko eragileekin eta elkartasunaren eta lankidetzaren mugimenduarekin batera egin ziren goioetak.

Ibilbide horretan materialak sortu genituen; besteak beste, ikastaroetan, mintegietan eta jardunaldietan parte hartu genuen, eta herri-hezkuntzan oinarritutako ahalduentze-dinamikak eta estrategiak sustatzen zituzten ekimenekin batera lan egin genuen. Garapena hazkunde ekonomikoarekin lotzen duen ideiarekin kritika hurbildu ginen, eta mugimendu feminista eta ekologistaren proposamenak gehitu genituen. Handik hamar urtera, 2006an, III. Kongresua egin genuen, Hezkuntzaren Lege Organikoaren (LOE) erreformarekin eta haren Herritartasunarako Hezkuntzaren proposamenarekin bat etorri. Kongresuan globalizazioaren berrikuspen kritikoa sakondu genuen, “Herritartasun Globalerako Hezkuntza” deritzonaren kontzeptua zabaldu zen eta argi geratu zen garrantzitsua dela Goi Mailako Hezkuntzako erakundeekin eta Ikerketa-ekintza Parte-hartzailearen ikuspegiarekin lankidetzan aritzea eta horietan eragitea.

I. eta II. kongresuetan, aurrera egin genuen irakasleen eta GGKEen arteko eztabaida erraztu zuten parte-hartze handiagoko mekanismoetan, eta III. Kongresuak, logika berari jarraituz, lotura handiagoa izan zuen mundu akademikoarekin eta gizarte-mugimenduen ekimenekin. IV. Kongresuan (2014) aurreko joerak areagotu ziren, eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzatik eta hori giza garapenaren paradigmaren txertatzeak haragoko interesa agertu zen. Baziren urte batzuk paradigma hori zalantzan jartzen ari zela, bereziki Latinoamerikako pentsamendu kritikoren eskutik.

Kongresu horretan hezkuntza kritiko eta eraldatzailerako jotzeko beharra adierazi zen, Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarte-mugimendu globalizatuekin elkarlanean arituz eta komunitateak mobilizatuz, garapen kapitalistaren, (hetero)patriarkalaren eta kolonialaren ereduaren ondoriozko zibilizazio-krisiari aurre egiteko. Azken bi kongresu horiek aliantza, eztabaida eta erreferentzien aurrerapenak ekarri zituzten hezkuntza formaletik eta ez-formaletik harago, eta 2021eko V. Kongresuak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza deritzon ikuspegi irmoa berresteko balio izan zuen. Ekintza sozializatzaile eta mobilizatzaile baterako proposamena da, mugimendu kritikoekin eta hegemoniaren kontrako erresistentzia soziokulturalekin artikulatuta eraikitako beste eredu batzuetara igarotzeko.

lribilbide horrek, non Hegoako Hezkuntza Taldea hezitzaileekin eta gizarte-mugimendu kritikoekin batera ari den, hezkuntzaren eta gizarte-aldaketaren eragin teorikoaren eremuetan kokatzea ahalbidetzen digu, eta, aldi berean, artikulazio-ekimenekin konpromisoa hartzera bultzatzen gaitu.

Beraz, sustatzen dugun hezkuntza-ekintza ez da hezkuntza-esparru jakin batera mugatzen, baizik eta batez ere gizarte-ekintza da, kolektibo, lurralde eta gizarte-borroken arteko elkarriketaren, trukearen eta esperimentazioaren emaitza. Hezkuntza hedatua; kontzeptu horren bidez, hegemonia borrokatzen eta bizitzarekin bateragarriak diren alternatibak sortzen ikasteko aukera ematen duten prozesuei egiten diegu erreferentzia.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) proposamena ez dago itxita; etengabe ari da aldatzen, emantzipazio-bideetan doazen ikuspegi eta subjektu kritiko guztiei irekita dago. Gaur egun taldea osatzen dugunok (diziplina anitzeko taldea, batez ere bizi-ibilbide eta prestakuntza eta lan-esperientzia desberdinak dituzten emakumez osatua) pentsamendua eta ekintza ekartzen saiatzen gara ikuspegi kritiko horretatik, esperientziak trukatzuz eta gogoeta eginez munduko hainbat lurraldetako erakunde, elkarte eta gizarte-mugimenduekin.

Unibertsitatea/gizartea artikulazioa funtsezkoa iruditzen zaigu hezkuntza emantzipatzaileerako eta ikerketa kritikorako. Hegoaren funtsa bera unibertsitate-komunitatea indartzea da, akademiaren eta gizarte zibil antolatuaeren artean zubiak eraikitzeo, eta, hartara, kultura-aldaketarako garrantzitsua den ezagutza sortzen laguntzeko.

Articuladxs proiektuaren barruan, hiru talde garrantzi handikotzat jotzen ditugu. Alde batetik, ikasleak, zeinek errealitateari begiratzeko, munduan kokatzeko eta haren eraldaketa ahalbidetzeko gaitasun etikoak eta trebetasunak behar dituzten. Bestetik, beren zereginaren testuinguruari dagokionez beren rolari buruz hausnartu nahi duten irakasleak. Eta, azkenik, gizarte-aldaketarako ezagutza garrantzitsua sortzeaz arduratzen diren gizarte-eragileak. Tradizioz kolektibo horiekin jardun, hitz egin eta hausnartu dugu, eta horiekin dugun elkargunean kokatzen gara.

## 1.2. Caucaoko Unibertsitateko Etnografia Lantegia ikerketa-haztegia. Akademiaren konpromisoa gizarte-eraldaketako prozesuetan elkarlanean aritzeko

Etnografia Lantegia ikerketa-haztegia elkarlanean aritzen den prestakuntza- eta ikerketa-talde bat da, Kolonbiako hego-mendebaldean demokrazia eta autonomia handiagoa izateko borrokatzen diren erakundeek eta mugimenduek eragindako gizarte-eraldaketako prozesuetan ezagutza garrantzitsua sortzera bideratua.

Haztegia Caucaoko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatearen barruan sortu zen, akademiaren zeregin sozialarekin eta konpromiso politikoarekin lotutako kezkek eraginda. Antropologiako eta unibertsitate horretako beste programa akademiko batzuetako ikasle, irakasle, egresatu eta graduatuek osatzen dute. Hala ere, prestakuntza-, laguntza- eta ikerketa-prozesu gehienak landa-eremuetan egiten ditugu, nekazariekin eta nekazari-erakundeekin, indigenekin, afro-ondorengoeekin eta sexu- eta genero-dibertsitateekin.

Ikerketa-haztegi gisa eskuratu dugun esperientzian eta ikuspegian oinarrituta, Kolonbiako hego-mendebaldeko gizarte-eraldaketako prozesuetan elkarlanean aritzeko aukera gisa hartzen dugu lan akademikoa. Kokapen hori hautabidea da eta, aldi berean, gauza asko zalantzan jartzeko bidea. Beren burua apolitikotzat eta deslokalizatutzat jotzen duten erakunde, subjektu eta proiektu akademiko konbentzionalekin gogoeta nolabait tirabiratsua izatea da kontua. Hau da, mundua Hegoaldean oinarrituta eta Hegoaldetik abiatuta pentsatzea posible eta beharrezkoa dela onartzea. Gainera, uste dugu, kolonialismoaren ondorengo zenbait ikuspegi intelektual postkolonialekin elkarriketan, beharrezkoa dela botereguneak probintzializatzea, ez bakarrik erretoriketan, baita eguneroko jardunean ere.

Hala, bada, Unibertsitatearen barne-immobilismoak haztegi bihurtzera behartu gintuen. Gatazka sozialak eta armatuak oso larriak diren eskualde batean kokatuta egon arren, non feminismoak eta nekazarien eta etnien borroka ere grinatsu eta sormenez mobilizatzen diren, Unibertsitateak –eta, bereziki, ikerketa antropologikoa– urrutitik begiratu ohi die konplexutasun horiei. Horregatik erabaki genuen zerbait eraikitzea modu kritikoan akademiatik bertatik, eraldaketarako leku ahaltsutzat jotzen baitugu. Honela dio haztegiako kide eta antropologo batek:

*Haztegia aukera anitzeko gune gisa kokatzen da akademiaren aurrean, lankidetzan ikertzeko, ingurune kritiko eta arduratsu batean, eta lagungarria izango dena gizarte-prozesuetarako (P11K.Mintegia.UNICAUCA.Kolonia).*

Haztegiak akademia mobilizatu nahi du, eta hura kokatu eskualdean eta nazioan hainbat arazoren inguruan (lurralde-gatazkak, gerra, meatzaritza, estraktibismoa, sexualitatea, bakearen aldeko apustuak...) sortzen diren borroka, gatazka eta gogoetetan.

Posizionamendu horren emaitza modura, graduako, graduurreko eta graduondoko lanak egiten ditugu, akonpainamendu-prozesutik sortutako gaiak jasotzen dituztenak. Kasu horietan, ikerketako galderak gizarte-erakundeetako intelektual eta ekintzaileekin egindako lanaren atzeraelikadura oinarrituta prestatzen dira. Alde horretatik, akonpainamendua funtsezko hiru puntutan oinarritzen da. Lehenik eta behin, ezagutza modu desberdinak eztabaidatzea



eta jakintza akademikoen itxurazko neutraltasuna zalantzan jartzea. Bigarrenik, pentsamendu akademikoa botere-harremanen erdian sortzen eta eraikitzen den ezagutza modu gisa kokatzeko aukera izatea, harreman horiek zalantzan jarri eta alda daitezten. Hirugarrenik, prestakuntza politikoko eskolekin lankidetzan aritzea garrantzi politikoa duten gaietan (esaterako, errekrutatze behartua) erantzuteko mekanismoak eskaini eta sortzeko<sup>4</sup>.

Gizarte zibileko erakundeekin artikulazio politikoaren alde egitean, ez dugu ahazten Unibertsitatea ere eztabaidatzeko, eraldatzeko eta aukera berriak sortzeko eremua dela. Konpromiso politikoa hartzeak ez du esan nahi teoria edo lan akademikoari uko egitea. Aitzitik, zenbat eta handiagoa izan konpromiso politikoa, orduan eta handiagoa izan behar du ere bai auzia osatzen duten arazoei eta eragileei buruzko teorizazio-lanak.

Ibilbide horretan, ikusi dugu oztopo nagusietako bat unibertsitateek oro har duten esperientziarekin lotuta dagoela: zenbait tokitara unibertsitateak ikerketa-proiektuetarako aldez aurretik ezarritako agendetan oinarrituta joaten dira erakundeekin lan egitera. Gure kasuan, ez gara ibilbide jakin batekin iristen eta ez gara iristen gure gradu lanak egitera, baizik eta erakundeek aurreratzen dituzten politika- eta ikerketa-prozesuekin artikulatu, eta hortik abiatzen gara. Jakina, kasu batzuetan lankidetzak horrek gradu lanak egitera eraman dezake. Praktika partekatu horretatik abiatuta, haztegiko kide batzuek antolakunde eta komunitateen prozesu politikoei lotuta jarraitzen dute unibertsitatean ikasketak amaitu ondoren.

Ikuspegi hori bat dator ezagutza merkantilizatzeko logikarekin lotuta ez dauden helburuak dituen ikerketarekin, baizik eta komunitateek ikerketa bereganatuko dutena, haiek parte hartzen baitute zer, nola eta zertarako ikertu erabakitzen. Horri dagokionez, ikerketaren egokitasun- eta jabetza-ezaugarri hori berresten da Kolonbiako hego-mendebaldeko Pasto herri indigenaren aginte-makilaren ikerketari buruzko gogoeta batean:

*(Ikerketak) ez gaitu memoriaren bilaketan bakarrik indartsuago egiten, baizik eta lurraldea berresteko prozesu ere bihurtzen da, eta prozesu hori komunitate bakoitzean desberdina da (P2IR.Mintegia.UNICAUCA. Kolonbia).*

---

4 Aipagarria da Cauca Eskualdeko Bake Espazioari egiten zaion akonpainamendua, non parte hartzen duten nekazariak, indigenak, afro-ondorengoek, emakumeek eta gatazka armatuaren biktimek. Bakea eraikitzeke gunea izatea pentsatu da, gerraren eta gerrako parte-hartzaileen inguruan aldaketak izan ondoren; batez ere, FARC desmobilizatzeko prozesuaren eta Cauca departamenduan zenbait eskualde militarizatzeko prozesuaren ondoren.

Gizarte-erakundeekin ditugun harremanek gure ikerketan eta praktika akademikoan eta politikoan duten eragina da gure esperientziaren funtsa, bai eta ezagutza emantzipatzaile eta eraldatzaileari buruz dugun definizioaren funtsa ere. Seguru asko, harreman horiek eraikitzen ditugunekin ere irakurketa bat egingo dugu, eta lankidetzan oinarritutako ikaskuntza hori guztia gureganatuko dugu.

Ikerketa-haztegi gisa dugun lan-ikuspegian kontuan hartzen dugu ezagutza nork eraikitzen duen zalantzan jartzearen garrantzia, eta hierarkien aurka egitearen garrantzia, non ezagutza batzuk garrantzitsuagoak diren “akademikotzat” jotzen direlako, eta beste batzuk, eguneroko bizitzakoak izateagatik, hain baliotsutzat jotzen ez diren. Ikerketa kritiko eta emantzipatzailearen funtsezko printzipio hori zabal landu zen ezagutza eraldatzaileari buruzko eztabaida historikoetan. Hona hemen Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioko kide baten hitzak Kolonbiako hego-mendebaldeko “Solidarioak” esperientziari buruz:

*Zer esan nahi du lan intelektualaren eta lan materialaren arteko zatiketak? Horrek esan nahi du mundua pentsatzeko erabiltzen diren kontzeptu handiak jarduera intelektualean gertatzen direla, eta hori erabat bereizten dela jarduera materialetik, hori baita jendeak egiten duena. Orduan, analisiaren eta koteorizazioaren une horrek beste norabide bat hartzea lortu zuten Luis Guillermo Vasco, Misael Aranda eta Abelino Dagua irakasleek. Hori lortu zuten “pentsatu” eta “egin” kontzeptuak erabili zituztenean, eta hortik dator “gauza kontzeptuei” eta jendeak bere bizitzako gauza materialak pentsatzeko eta egiteko moduari buruzko postulatu teoriko hori (P3KS.Topaketa.UNICAUCA.Kolonia).*

### 1.3. Surcolombiana Unibertsitateko In-SUR-Gentes ikerketa-taldea eta Hezkuntza eta Gizarte Praktiken ikerketa-taldea. Gorputzak, lurraldeak eta borrokak

Kolonbiako hegoaldeko mendi-hegal andetar-amazoniarra askotariko mugak dituen ekoeskalde bat da: muga politikoak, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak. Mikroklima asko daude: hasi eremu mortutik eta Amazoniako lautadara, tartean baso tropikal lehorra dagoela. Lurralde horretan mugimenduan dauden komunitateek (Torres, 2020) bizitzaren aldeko borrokak izan dituzte garai kolonialetatik gaur arte. Erdialdeko, ekialdeko eta mendebaldeko mendikateak lotzen dituen korridore estrategiko horretan, biodibertsitate oparoa eta planetako izar hidriko garrantzitsuenak daude, bai eta horien kontrola eskuratzeko hainbat gatazka ere. Hainbat eragile saiatzen dira hemen bizi garen komunitateen artean bakea ezartzen –bake militarra, politikoa, soziala eta kulturala–; hala ere, erresistentziak eta “erre-existentziak” modu askotan irauten dute, eta bizitza ahalbidetzen.

Surcolombiana Unibertsitatea 1970eko martxoaren 30ean eratu zen, gizarte-mobilizazio asko egin ondoren. Mobilizazio haiek eskualdeko hainbat sektore artikulatu zituzten, eta, hala, nazio mailako lehen eskualde-unibertsitate publikoa bihurtu zen. Sortu zenetik gaur egun arte, historikoki baztertutako komunitateekiko konpromisoa du ezaugarri. Ikerketa eta proiektio soziala horren inguruan egiten da, hasieran Hezkuntza Fakultatearekin, eta 1996tik aurrera Gizarte eta Giza Zientzietako Fakultatearekin.

Unibertsitatearen, komunitatearen eta gizarte-mugimenduaren arteko artikulazioa Hezkuntza eta Gizarte Zientzietako fakultateen ezaugarri bereizgarria da. Hona hemen zenbait prozesu eta ekintza unibertsitate-eremu kritikoaren aldetik gizarte-eraldaketarako ekintza-konpromisoa sendotzen dutenak: Pato Caquetá inguruko alfabetatze-prozesua; herri-hezkuntzako prozesuak Neiva hiriko (Huila) komunitetan; mugimendu pedagogikoaren kudeaketan eta dinamikan parte hartzea; duela gutxi, konpainia hidroeletrikoren proiektu transnasionalek eragiten dietenei lurraldearen defentsan lagun egitea, eta bakea eraikitzekeo prozesuak bake-sinatzaileekin eta gatazka armatuaren biktimekin.

Fakultate horietan oinarrituta, urteekin, In-SUR-Gentes ikerketa-taldea eta Hezkuntza eta Gizarte Praktiken ikerketa-taldea (IPES) jakintzen artikulazio- eta kosorkuntza-prozesu bat finkatzen ari dira Kolonbiako hegoaldeko komunitate eta lurraldeekin. Ezagutzaren monopolioa deslokalizatzen dute, elkarriketak eta eginbeharrak pluralizatzekeo, ondo bizitzeko eta gozo bizitzeko helburu komunarekin.

Hegoalde pluritopiko honetan, mintegi eta topaketetan hainbat gorputz eta hainbat borroka izaten ditugu. Erresistentzia gorpuztuak, agerikoak edo anonimoak, emantzipazioaren zentzumenak indartzeko toki horietan elkartuak, dela jakin-minagatik, dela konpromisoagatik. Ikasleek, irakasleek, gizarte- eta ingurumen-arloko liderrek, profesionalek eta gazte-erakundeek esperientzia pedagogiko honetan hitza bideratzeko eta sentimendua-pentsamendua-ekintza era kolektiboan artikulatzeko aukera.

#### 1.4. Articuladxs taldea. Desberdintasunak kontuan hartuta eraikitzea

Unibertsitateen arteko aliantza bat finkatzea ekintza logikoa izan liteke, baldin eta gizartean eragitekeo gaitasuna handitzeko ikaskuntzak trukatu/alderatu nahi badira. Esperientzia eta baliabide instituzionalen batura pozgarria litzateke zentzu askotan; hala ere, ez da nahi bezain ohikoa.

Arazoa ez dago erakundeen edo haien ardurapeko pertsonen izaeran. Ezagutzaren eta bereziki ezagutza akademikoaren ideia nola sortu den da gakoa. Izan ere,

idea horren oinarrian uste hau dago: zientziaren eta teknologiaren arauen mende eta eguneroko bizitzako espazioetatik urrun dauden izaki distiratsuek bakarka egindako lanaren emaitza dela ezagutzaren ekoizpena. Horrela, gaitasun indibidualako irizpideak lehenesten dira, lankidetzakoen edo jakintzaren edozein arlotako metaketa historikoa aitortzeko irizpideen aurretik. Noski, badira salbuespenak eta elkarlaneko esperientziak ikerketa-taldeen barruan edo talde horietako batzuen artean, baina joera orokorra da ikertzailearen nortasuna gurtzea, ezagutzaren eta berrikuntzaren ekoizle den aldetik.

Maila nazionaletan, erakunde akademikoaren mugetatik harago, ezagutzaren geopolitika elkarren artean lehiatzen diren unibertsitate, talde eta ikertzaileen arteko hierarkietan adierazten da, zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemek babestuta. Argitalpenak, ikertzaileak eta prestakuntza-programak alde aurretik baloratzen dira, ezagutzen geografia politiko horretan duten kokapenaren arabera. Hala, herrialde bereko bi unibertsitateen (USCO eta UNICAUCA) arteko eta unibertsitate horien eta Ipar globaleko unibertsitate-erakunde baten (UPV/EHUko Hegoa institutua) arteko aliantza sendotzeak esan nahi du erreferentzia-esparru haiei eta haietatik ondorioztatzen diren praktikei aurre egitea.

Zehaztu beharra dago erakunde horietako bakoitza heterogeneoa dela bere historian, hezkuntza-proiektuan eta estamentuen osaeran; beraz, akademiak oro har hitz egiteak beti izango du berarekin nolabaiteko zehaztasun falta, baita injustizia puntu bat ere. Hori dela eta, komeni da berriro esatea hiru prestakuntza- eta ikerketa-talde txikik osatzen duten leku partikular batetik hitz egiten dugula. Hori izango da, seguruenik, proiektuaren bertuteetako bat, eta zatien arteko artikulazioa ahalbidetu duen baldintzetako bat. Horretarako, hautsi egin behar izan dira askotan bai barruan, bai kanpoan borrokatu behar diren eta alde aurretik ezarrita dauden eskemak. Proiektuan parte hartzen duen lantalde bakoitza hezkuntza kritikoarekin eta ikerketa emantzipatzailearekin konprometitutako ekimen batetik sortua da, eta, beraz, esperientzia eta jarrera antzekoak ditugu artikulazio hori hasi aurretik ere.

Horrek ez du esan nahi harremanaren abiapuntua lehendik zegoen akordio batean oinarrituta dagoela, alderantziz baizik. Proiektuaren lorpen baliotsuenetako bat prozesuan ikastea izan da, besteekiko eta gure esperientziarekiko gure ikuspuntuak aldatuz, akordioak eraikiz eta desadostasunak negoziatuz. Hasiera-hasieratik, mintegiak egiteko metodologia egokienei, edukien definizioari, orientatzaileak aukeratzeari edo partaideei deitzeari buruz erabakiak hartzeko edota hori guztia ulertzeko modu desberdinak izan ziren. Nahiz eta proiektuaren muinari buruz denok nahiko ados egon, ñabardura txikiek leku bakoitzeko esperientzia desberdina izatea eragiten dute, eta lantalde bakoitzaren dinamikak eta testuinguruak errespetatzen ziren. Horrela, desberdintasunak atea ireki zion aniztasunari eta ikaspenak aberastu zituen.



UNICAUCAren Etnografia Lantegiaren ikerketa-haztegiko taldearen ikuspegitik, harrigarria eta atsegina izan zen gurearen antzeko galderak eta esperientziak zituzten kolektiboak aurkitzea. Are gehiago, USCoko kideen ibilbidea ezagutzeko, hurbiltasun geografiko eta afektiboaren sentipen bitxia izan genuen, eta, horrekin batera, ohartu ginen ezertxo ere ez genekielako haien hezkuntza- eta politika-jardunari buruz. Proiektuak gure esperientzia berraztertzerako garrantzitsuen komunitateak, ekimenak eta lan egiteko moduak ezagutzeko aukera eman zigun. Interesgarria iruditu zitzaigun, adibidez, haiek hiriko sektore herrikoiekin –guk lotura txikiagoa dugu horiekin– eta haur eta gazteekin egiten duten lana. Haiek hiriko eta nekazaritzako sektoreen arteko aliantzan oinarritutako ingurumen-ekimen komunitarioetan lagunduz jasotako esperientziak guretzat baliagarriak izan ziren lan egiten dugun gizarte-erakundeek dituzten arazoetako batzuei beste ertz batzuk ikusteko eta horien gainean pentsatzeko.

Era berean, Hegoako taldearekin gertutasun afektibo eta politikoa sentitzen dugu, distantzia geografikoa eta kulturala gorabehera. Bi proiektuak unibertsitate-eremuan bagaude ere, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren esperientziak ematen duen ikuspegiak aukera ematen digu ezagutzen ditugun eta eragiten ditugun arazoei buruz lehenago aztertu gabeko alderdiak ezagutzeko. Harritu egin

gintuen, halaber, Latinoamerikako testuinguruan eta Atlantikoaren iparraldean soilik ezagutzen zirela uste genuen autore batzuk haientzat ere ezagunak izatea, eta kideek Ipar/Hego aliantzetan pentsatzeko balio izatea. Bereziki atsegina izan zen Orlando Fals Borda eta Paulo Freireren pentsamenduari buruzko erreferentziak aurkitzea, baita intelektual berriagoen pentsamenduari buruzkoak ere, hala nola Rita Segatorenak edo Hegoaldeko tradizio intelektualari lotutako pentsamendu-korronteak, hala nola pentsamendu dekoloniala. Hegoaldean sortutako proiektu politikoak eta ikuspegi akademikoak Ipar solidario eta konprometituan nola dabil-tzan berriz pentsatzeko aukera ematen digu horrek guztiak.

Sarean eraikitzeke eta ehuntzeko aukerari esker azaldu daiteke USCO taldearen ibilbide indibidual eta instituzionalak zeharkatzen dituen ikuspegiaren artikulazioa. Sare horretan enuntziatzeak esan nahi du elkarrizketarako guneak aurkitzea hezkuntza emantzipatzailearen bidez. Hezkuntza horrek elkarrizketa ahalbidetu zuen lurraldean bertan eta lurraldeen artean, non subjektu akademiko eta instituzionalizatu gisa jarduten dugun, ekintza-konpromisoan erabat sinetsita. Halaber, ekintza-konpromisoa indartu egin zen, ikerketa egiteko moduei eta gizartearen eta unibertsitatearen arteko elkarreraginari buruzko esperientzia-trukearen ondorioz.

Esperientzia pedagogiko honi esker, USCOn jarduera-eremuan lankidetzan jardun eta sortu ahal izan genuen, sareko lanaren bidez. Sareko lana, bestalde, indartu egin zen gizarte-aldaketaren inguruan interesa edo konpromisoa zuten graduoko eta graduondoko ikasleen parte-hartzearekin, bai eta gizarte-mugimenduekin ere. Izan ere, azken horiek beren esperientziak azaldu zituzten eta Unibertsitatean ezagutzarako beste modu batzuk ezartzeko ere eskatu zuten. Hiru unibertsitateen lurraldeen artean, elkarrizketa eta esperientzia-trukea nabarmentzen dira. Esperientzia horiek erakusten dute borroka eta jarrera emantzipatzaileak askotarikoak direla, eta truke- eta artikulazio-ekintzak elikatzen dituztela.

Ondorioz, Iparraren eta Hegoaren arteko elkarrizketari esker, aurrekontzeptuak alderatu ahal izan genituen; adibidez, European emantzipazioaren auzia garrantzitsua ez delako ustea. Latinoamerikako hezkuntza emantzipatzailearen esperientziei eta horiek UPV/EHUko hezkuntza-proposamenetan duten eraginari buruzko esperientzia-trukeak entzuteak ezagutzen ez genituen elkarrizketa teoriko-politikoak aurkeztu zizkigun. Era berean, garrantzitsua izan zen Euskal Herriko gizarte-desberdintasunetara, migratzaileen arazoetara eta gizarte-mugimenduetara hurbiltzea. Bestalde, UNICAUCaren eraginpeko lurraldeekin hitz egiteak artikulazio mota gehiagotan pentsatzera eraman gintuen. Artikulazio horiek irakasleen, ikasleen eta Huila-Cauca-Caucaren harana bidaiari parte hartu dugun komunitateen esperientzietatik elikatzen dira. Azkenik, esan dezakegu esperientzia pedagogikoan eta taldeek lurraldeetara egindako bisitetan oinarritutako artikulazioa indar eragilea izan zela elkarrizketarekin jarraitzeko eta hezkuntza emantzipatzaile posible batean pentsatzeko.

Hegoaren aburuz, Articuladxs proiektuan izandako elkarreragina eta esperientzia partekatuak –batez ere Kolonbiako egonaldian izandakoak– kidetasunean oinarrituta ikastea izan dira, eta UNICAUCA eta USCOn talde aliatuek biezugarri komun dituztela ikusi dugu, gure ustez oso garrantzitsuak direnak eta gu ere horietan inspiratzeko balio dutenak. Lehenik eta behin, epe luzeko lankidetzak ikerketako prozesuak nola sor daitezkeen erakusten digute, komunitateekin eta oinarritzko gizarte-proiektuekin, landa-eremuak zein hirikoak, elkarrizketan eta elkar-ahalduntzean oinarrituta, eta lidergoak eta autoantolaketa emantzipatzailea sortuz. Zorroztasun zientifikoa demokratikoa, parte-hartzailea eta eraldatzailea dela, eta hala izan behar duela, ikasi dugu, bai hura sustatzen duten erakunde eragileen barruan, bai gizartean duen eraginean ere.

Bigarrenik, eta honek ere badu garrantzia, erakutsi digute ikasleek ikerketa eta ekintza komunitarioko proiektuetan parte hartzeak akademiako eta gizarte-ekintzakohaztegiak sortzen dituela, eta haztegi horiekin bestekoak dira eraldaketa ikasteko aukera emango duen ezagutza sortzeko. Prozesu horrek aberastasun eta ahalduntze kritiko zientifikoa esan nahi du ikaslearentzat berarentzat, eta baita ikerkuntzak etengabeko prestakuntzaren eta gizarte-konpromisoaren barruan duen garrantzirako ere. Feminismoak, kulturartekotasuna, ekotasun garrantzitsua, jakintzen arteko elkarrizketa, komunitate-mugimenduak, zientzia kritikoa eta irekia, unibertsitate batean edo bestean intentsitate desberdinez erlazionatzen dira elkarrekin, baina bi unibertsitateetan daude.







## 2. Ikerketa kritikorako prestakuntza- esperientziaren deskribapena



## 2. Ikerketa kritikorako prestakuntza-esperientziaren deskribapena

Esperientzia pedagogikoa osatzen duten hiru ekimen zehatzetan oinarritzen da sistematizazio hau: 1. Lan akademikoak hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik egiteko orientazio-mintegiak; 2. Ikerketa akademiko kritikoari buruzko gogoeta-eta eztabaida-topaketak, eta 3. Bisitatutako lurraldeetako herri-ekimenekin eta komunitate-prozesuekin egindako elkarrizketak.

Lehenengo bi jarduerak –mintegiak eta topaketak– Articuladxs taldeak bere lana egiten duen erreferentziako hiru unibertsitateetan egin ziren: Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), Surcolombiana Unibertsitatean eta Caucako Unibertsitatean. Mintegiak aurrez aurre egin ziren Hegoaren (2022ko martxoa) eta USCOn (2022ko martxoa eta ekaina) kasuetan, eta birtualki UNICAUCArenean (2022ko martxoa). Topaketak geroago egin ziren, urte horretan bertan, aurrez aurre: maiatzaren 12an Leioan (UPV/EHU), irailaren 5ean Neivan (USCO) eta irailaren 9an Popayánen (UNICAUCA). Topaketa horiek aprobetxatuz, talde anfitrioi bakoitzak Euskadiko eta Kolonbiako ekimen sozial eta komunitarioetara bisitak egiteko agenda bat prestatu zuen bere lurraldean.

### 2.1. Lan akademikoak hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik egiteko laguntza- eta orientazio-mintegiak

Lau saio izan ziren mintegietan, batez ere graduako eta graduondoko ikasleei zuzenduak, beren ikerlanak hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik bideratzeko. Ikasleei laguntzeko proposamena izan zen, ikasleen, irakasleen eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketan, lankidetzan eta trukean oinarritua. Oro har, helburua zen ikerkuntzarako prestakuntza-esperientzia eskaintzea, arreta berezia jarrita ikuspegi kritiko batzuei –feminista, ekosoziala, dekoloniala–, eta beste subjektu eta lurralde batzuk kontuan hartuta heltzea ezagutzari.

Helburu espezifiko hauek zehaztu genituen:


1. Kolonbiako eta Euskadiko zenbait subjekturen (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak) arteko topagune, elkarrizketa eta gogoetarako gune bat sustatzea, errealitatea ikuspegi kritikotik ulertzeko, arazoak konpontzen parte hartzeko eta ikerketa-jarduera *beste mundu posible batzuen* ekarpenarekin lotzeko.
2. Jarraibide pedagogikoak eta metodologikoak eratzea modu kolektiboan, ikasleek egiten dituzten ikerketa-lanetan hezkuntza kritikoaren ikuspegia ziurtatzeko.

3. Irakaskuntza-lanari buruzko gogoeta egitea, kontuan hartuta zer testuingurutan lan egiten den eta sortzen den ezagutza. Gizarte-aldaketarako baliagarria izango den hezkuntza- eta ikerketa-lanak zer garrantzi duen aztertzea.
4. Beste lurralde batzuetako ikasleen eta irakasleen esperientziak eta interesak ezagutzeko, eta beste ikuspegi eta erreferentzia epistemologiko batzuetara irekitzea.

Hiru unibertsitateetako parte-hartzaileen arteko trukerako, gune birtual bat sortu zen UPV/EHUko eGelaPI plataformaren bidez. Foro kolektiboaren bidez hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukera ematen zuen gune horrek, eta talde eragileak emandako materialen edo ekimen honetan parte hartu zutenek ekarritako beste material batzuen biltegi gisa ere balio izan zuen.

Teknologia digitalean oinarrituta, batera –UNICAUCA, USCO eta Hegoa-antolatu genuen lau saioetatik lehena<sup>5</sup>. Hurrengo saioak modu independentean egin ziren, eta unibertsitate bakoitzari zegokion taldeak kudeatu zituen. Lehen saioari “Cartografía de seres y saberes” (Izakien eta jakintzen kartografia) izeneko aurkezpen-dinamikarekin ekin genion, geure burua aurkezteko eta elkar ezagutzeko. Tresna horren bidez, modu grafiko eta azkarrean, bakoitzaren jatorria eta pentsamendua aztertu ahal izan genituen, eta zer borrokarekin konprometituta gauden jakin ahal izan genuen. Sarreraren ondoren, mahai-ingurua egin genuen ikerketa kritikoari buruz, eta, horren ondoren, Kolonbiaren eta Euskadiren arteko berdintasunak eta desberdintasunak aztertu genituen.

1. grafikoa. Parte-hartzaileen bizilekua (105 erantzun)




Iturria: geuk egina.

5 Articuladxs proiektuaren YouTube kanalean dago saioa: <https://www.youtube.com/watch?v=KYmO28RuCEI>

---

## 2. grafikoa. Parte-hartzaileen borroka-eremua

---



---

Iturria: geuk egina.

- Hezkuntza emantzipatzailea gogoan hartuta ikertzea (Gema Celorio).
- Teoria kritikoen paradigma (Juanjo Celorio).
- Hegoaldeko epistemologiak eta pentsamendu dekoloniala (Robinson Piñeros).
- Epistemologia feministak eta feminismo dekoloniala (Diana Granados).
- Epistemologia ekosozialak eta komunitarioak (Julio R. Jaime).
- Ikerketa-ekintza Parte-hartzailea (Axel Rojas).

Hurrengo saioak, esan dugun bezala, modu independentean egin ziren, eta unibertsitate eta lurralde bakoitzaren errealitatera egokitu ziren, ikuspegia bera bazen ere. Hona hemen saioen ezaugarriak taldeak kontuan hartuta.

## UPV/EHUko mintegiko saioak

Hegoaren kasuan, ondorengo saioetan ikasleen Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak (GRAL/MAL) aztertu ziren hezkuntza emantzipatzailearen ikuspegitik. Gai hori Unibertsitateari lotutako irakasleekin eta gizarte-eragileekin batera landu genuen. Saio horien metodologia gehienbat praktikoa izan zen, eta edukiak ulertzera eta gogoeta kolektibora bideratu zen, GRAL/MALen diseinua eta garapena hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekin bat etor zitezten. Ikaskuntza kolektiboak izan zuen leku nagusia metodologian, eta arreta berezia jarri genuen esperientzia honetan parte hartu genuen guztien (26 guztira) jakintzak eta esperientziak ezagutzen.

Bigarren saioan, ikasleen ikerketa-lanak aztertzen hasi ginen, horretarako diseinatu genituen tresnen bidez (ikus 1. eranskina). 1. fitxak aukera ematen digu ikasle bakoitzaren ikerketa-lanaren proposamena laburki ezagutzeko. Saio horretan bertan, hainbat gizarte-talde eta unibertsitate-gunereren esperientzia esanguratsuak azaldu ziren, ikerketa kritikoarekin eta bizitzarekin konprometitutako unibertsitate baten eraikuntzarekin lotutakoak. Parte-hartzaileak: Soraya Ronquillo eta Katia Reimberg (Bidez bide - Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkartea), Pepe Ruiz (Mugarik Gabeko Ingeniaritza/Ingeriería Sin Fronteras), Julián Márquez (Emaús Gizarte Fundaziokoa) eta Juana Goizueta (UPV/EHUko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa).

Hirugarren saioan, ikerketa-lan bakoitzaren azterketan sakondu genuen, hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekin zituzten loturak aztertuz (2. fitxa, ikus 2. eranskina). Azken saioa amaitzeko, GRAL/MAL baten oinarritzko egitura aurkeztu genuen, ikerketa-lanek egitura horri nola erantzuten dioten baloratzeko (3. fitxa, ikus 3. eranskina). Mintegiei amaiera emateko, ixte-dinamika bat egin zen, eta ondo egindakoak eta hobetzeko alderdiak jaso ziren.



Hona hemen mintegietan landutako UPV/EHUko ikasleen GRAL/MALen proposamenak:

- Emakumeak eta garapenerako lankidetzak.
- Tolimako Unibertsitateko ingurumen-arloko prestakuntza programak Kolonbian duen eragina.
- Sexu-indarkeriaren biktime izan diren eta bizirik atera diren emakumeei buruzko iruditeriaren aldaketa, gizartea eraldatzeko komunikazio-prozesuen bidez. Gizarte-mugimenduen hezkuntza-jarduerak.
- Subjektuei bizitzaren aldeko jarrera hartzeko gaitasuna emango dien diskurtso kontrahegemonikoaren kontakizuna.
- Latinoamerikako emakume migratuak ahalduzko gizarte-erlaketarako hezkuntza-estrategiak.
- Kolektibo baztertuenen prozesu parte-hartzaileak, eta haiei subjektu eragile gisa begiratzeko eta haiek beren burua halakotzat onartzeko duten gaitasuna.
- Parte-hartze komunitarioa, ingurumenaren jasangarritasuna eta giza garapena teoretik praktikara eramateko: ekintzaren bidezko proposamen metodologikoa.
- Metodologia parte-hartzaileak, gizartea eraldatzeko hezkuntza txertatzeko ikasketa zientifiko-teknikoetan.

- Sisteman esku hartzea eraldaketa ekosoziala aurrera eramateko.
- Kolonialismoa Latinoamerikako emakumeen egungo migrazio-prozesuetan.
- Instagrameko edertasun-iragazkiek eragina dute nesken autoestimuan eta autoirudian. Hezkuntza bisualaren estrategia ezinbestekoa da.

Jakintza kolektiboa sortzeko esperientzia horren eta mintegi horietan sortutako konfiantza-giroaren ondorioz, 5 ikaslek banakako tutoretzak eskatu zituzten Hegoako hezkuntza-taldearekin, beren lan akademikoei buruzko ideia eta zalantza batzuk kontrastatzeko. Gainera, ikasle horietako bik beka bat lortu zuten UPV/EHUko Ikasleen eta Enplegarritasunaren Errektoreordetzak sustatzen duen IKD Gazte programan<sup>6</sup>, gradu amaierako edo master amaierako lanak egiteko kanpoko erakundeekin lankidetzan eta IKD ereduan oinarrituta.

## UNICAUCAko mintegiko saioak

UNICAUCA gisa Articuladxs proiektuarekin bat egitean izan genuen erronketako bat hauxe izan zen: zenbait talderi buruzko gradu lana egiten ari ziren ikasleen parte-hartzea bermatzea; izan ere, talde horietako gehienak Popayán ez beste leku batzuetan aritzen dira. Erronka bikoitza izan zen: batetik, parte-hartze aski handia eta, ahal zen neurrian, aipatutako prozesuekin lotutako pertsonak modu adierazgarrian ordezkatuko zituena sustatzea, eta, bestetik, pertsona horiek mintegi horietan parte hartzeko baldintzak sortzea, tradizionalki prestakuntza-espazioak hirian zentralizatuta baitaude. Distantziak eta komunikazio-bideen egoera kontuan hartuz gero, hirian biziko ez ziren ikasleen talde batekin lan egiteko aukerak murrizak ziruditen.

Horrek pandemiaren testuinguruak utzitako ikaspenak berrikustera eraman gintuen, orduantxe ateratzen ari baikinaren egoera hartatik. Itxialdiak gizarte-bizitzako hainbat alderdi aldatu zituen; horietako bat eskola-hezkuntza izan zen, zeinak pertsonen arteko kontakturik gabeko topaguneak sortu behar izan zituen. Interneten baliabideak eta hezkuntza ez-presentzialeko metodologiek emaitza desberdinak izan zituzten, eta hemen ez dugu denborarik hori neurtzeko; hala ere, esan behar da komunikazio ez-presentzialerako teknologien erabilera aldatu egin zela. Kontuan hartuta distantziak eta garraio-zailtasunek gure xede-populazioa osatzen duten pertsona askoren parte-hartzea mugatzen dutela, eta kontuan hartuta, halaber, eskura dauden baliabideak beti mugatuak direla, mintegi horiek bertaratu beharrik gabe egitea erabaki genuen, eskura genituen teknologiak erabiliz.

---

6 Ikaskuntza Kolaboratiboa eta Dinamikoa Gazte programa.



Deialdiaren erantzuna nahiko ona izan zen: 32 pertsonak parte hartu zuten. Gradu eta maisutzako GRALeko ikasleek eman zuten izena, eta haietako batzuk urruti zeuden, bai landa-eremuan, bai hirietan, baita Cauca ez beste departamendu batzuetan ere. Prestakuntza-arloei dagokienez, hainbat diziplina eta ikerketarako interes-arlo izan ziren. Aberastasun handia zegoen interesei eta ibilbideei zegokienez, eta, horretaz gain, garrantzitsua izan zen zenbait unibertsitatek parte hartu izana, ez gureak bakarrik, hau da, unibertsitate publikoetako eta pribatuetako ikasleek parte hartu zuten. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Kulturarteko Unibertsitate Autonomo Indigenako (UAIIN) ikasleen parte-hartzea, zeina Kolonbiako Estatuak onartutako lehen unibertsitate indigena den.

Garrantzitsua da azpimarratzea mintegietan parte hartu zuen ikasle-taldea alde aurretik haztegiaren eta eskualdeko gizarte-erakundeen arteko lankidetzaz ibilbidearen ondorioz osatua zela. Deialdia egiteko, funtsezkoa izan zen gure irakasle batzuek indigenen, genero-taldeen, emakume nekazari eta indigenen antolakuntza-prozesuekin zuten lotura, bai eta beste unibertsitate batzuetako irakasle eta ikertzaileekin izandako lankidetzaz ere. Alde horretatik, esan daiteke lan partekatua onduko konfiantza funtsezkoa izan zela deialdiak erantzun arrakastatsua izan zezan.

Azpimarratzekoa da mintegietako irakasle-taldea, Kolonbiako hainbat tokitako auzituek eta Hegoa institutuko eta Surcolombiana Unibertsitateko kideek osatua. Mintegietako koordinazio-taldea osatzeko, Etnografia Lantegia haztegi kideak gonbidatzeaz gain, Catalina Serrano eta Paulo Álvarez irakasleak ere gonbidatu genituen, irakasle eskarmentudunak antolakuntza-prozesuetan eta prozesu komunitarioetan, eta saio birtualak diseinatzeko eta sistematizatzen lagundu zuten.

Gaien, esperientzien eta galdera orientatzaileen arabera, honela egituratu genituen saioak:

Bigarren saioan galdera honen gainean eztabaidatu genuen: Zer irismen, aukera eta erronka ditu ikerketa bat ikuspegi emantzipatzaile batetik egiteak? Galdera horri buruz eztabaidatuko zuten zenbait testuingurutako esperientziak lehenetsi genituen, ikasleei ikerketa emantzipatzailearen baldintzei eta aukerei buruz ikuspegi zabala eskainiko zietenak esperientzia espezifikoetatik abiatuta. Hauek izan ziren ikerketa kritikoari, gizarte-erakundeak eta unibertsitateari lotutako esperientzia esanguratsuak:

- Herri-hezkuntzako katedrak eta proiektuak. Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko Gizarte-laneko Departamentua (Claudia Patricia Sierra Pardo).
- Yanacona herria, Kulturarteko Unibertsitate Autonomo Indigena - Cauca Eskualde Kontseilua (Lenin Anaconda Obando).

- Etnografia Lantegia haztegia eta Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioa (William López Fernández).

Hirugarren saioan, galdera honi buruz egin genuen gogoeta: Gure ikerketek nola eman dezakete hezkuntza emantzipatzailearen printzipioen berri? Horri dagokionez, mintegian, berriz ere, ikerketa eta hezkuntza emantzipatzailearen funtsezko printzipioak txertatu dituzten esperientziak izan ziren:

- Lankidetzta-ikerketako esperientzia. Marcela Amador (Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioa).
- Hezkuntza emantzipatzaileko esperientzia. Juanjo Celorio (Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutua).
- Pasto herri indigenaren ikerketa-esperientzia. Fernando Guerrero (Yachai Ayanacuna Irakasle Indigenen Elkarte).

Laugarren saioan, hezkuntzak eta ikerketak hiri-testuinguruetan eta testuinguru akademikoetan duten lotura eztabaidatu genuen. Hona hemen mintegian azaldutako esperientziak:

- Caucako Unibertsitateko Garapenari buruzko Diziplinarteko Ikasketen Maitutza (Carlos Corredor).
- Herri-hezkuntzako eta ikerketa konprometituko esperientzien mapa (Robinson Piñeros).
- Pacho Vacca Herri Liburutegiko esperientzia (Julio Roberto Jaime Salas).
- Hiri-inguruneke ikerketa-esperientziei buruzko gogoetak (Pacho Vacca Liburutegia kolektiboa).

## USCOko mintegiko saioak

USCOko mintegietarako deialdiak izenburu hau izan zuen: “Konpromiso soziala ikerketa akademikoko lanetan. Aldaketarako ezagutza sortzen duen elkarrizketa lokal/globalerako esperientzia”. Parte hartu zuten 33 pertsonak Hezkuntzako, Osasuneko eta Gizarte eta Giza Zientzietako fakultateetako graduaurrekoak eta Hezkuntza Fakultateko graduondokoak ziren. Halaber, Huila departamenduko gizarte-mugimenduak gonbidatu genituen, eta, hala, hainbat arlo artikulatzen dituzten kolektiboetako zenbait kidek parte hartu zuten. Arlo horiek hauek dira, besteak beste: herri-hezkuntza, lurraldearen gizarte- eta ingurumen-defentsa, feminismoak, hirirako eskubidea eta elikadura-burujabetza.

USCOko taldean hiru auzi planteatu genituen galdera gisa, horien bidez gogoe-  
ta eta jarduera praktikoak egiteko, Kolonbiako hegoaldeko eskualdeko erreali-  
tatearen azterketan oinarritutako ikerketa-proiektuak oinarritzeko helburuarekin:

- Zertaz ari gara hezkuntza emantzipatzaileaz ari garenean? Ibilbideak, topaketak eta aukerak
- Nola egin ikerketak hezkuntza emantzipatzailean oinarrituta zibilizazio-krisi garaian?
- Nola eraiki lurraldeetan bizitza duinerako proiektu politiko-pedagogiko bat hezkuntza eraldatzailean oinarrituta? Jakintzen arteko elkarrizketa eta esperientzien sistematizazioa

Galderek hezkuntza emantzipatzaileako proposamen bat sortzen dute, irakurketa kritikotik abiatzen dena, eta, Paulo Freireren arabera, “ez da amaitzen hitz idatziaren edo hizkuntza idatziaren deskodetze hutsean, baizik eta aurrea hartu eta munduaren adimenean luzatzen da. Munduaren irakurketa hitzaren irakurketaren aurretik dator” (1984:94). Hala, galderek aukera eman zuten, alde batetik, hezkuntza emantzipatzailearen eremua eta horrek eremu akademikoan dituen tradizio konbergenteak eta dibergenteak aztertzeke; eta, bestetik, ikerketa akademikoa aztertzeraz bultzatzen dute, zibilizazio-krisiaren kontraesanak aztertzeke eta kritikatzeko aukera ematen duen konpromiso-ekintza gisa.

Oinarri horiek saioei ordena bat ematen zieten gai arazotsuekin artikulatu ziren, hezkuntza emantzipatzailearen suposizioetatik abiatuta, eta ikasleek eta irakasleek errealitateak eraldatzeko zituzten ezagutzen behaketa, ikerketa eta trukearekin lotuta. Gai hauek landu ziren:


- Bizitzarekin konprometitutako unibertsitatea: gizarte-aldaketarako hedapen komunitarioa, kapitalaren eta bizitzaren arteko hausturaren testuinguruak eta hezkuntza-emantzipatzailearen tradizio metodologikoak.
- Hezkuntza eraldatzaileko kartografia teoriko-metodologikoak: jakintzen sistematizazioa eta elkarrizketa.
- Tokiko esperientzien gaineko jakintzen elkarrizketa.

Saioak mintegi-lantegi eran egin ziren; hasieran, irakasleek hitz egin, eta ikasleekin eztabaida egiten zen. Horren ondoren, lantegia norbanakoen ikerketa-proposamenak trukatzeko baliatzen zen, lankidetzaz ikerketako estrategiak sortu ahal izateko. Eta gogoeta teoriko-politikoa hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekin elikatzen saiatzen ginen, ikerketaren logika indibidualistatik harago joateko eta lankidetzaz proposamenera hurbiltzeko.

Saioetan, problema gisa aurkeztutako galderei eta gaiari lotutako jarduerak egiten ziren. Modu metagarrian, hezkuntza emantzipatzailearen printzipioetatik eta eskualdeko gizarte-errealitateak abiatzen ginen, eta, gero, ikerketarako eta esku hartzeko proiektuen sare bat proposatzen zen. Proiektuak gaika artikulatu ziren, trukean eta ekintza-konpromisoan oinarritutako lankidetzak ikerketarako proposamenak azaltzeko.

UNICAUCA eta Hegoarekin batera egindako lehen saioaren zatia amaituta, mahai-ingurua egin genuen ikasleekin, nortzuk ziren eta zer hezkuntza- eta gizarte-testuingurutatik zetozen jakiteko. Norberaren burua aurkezteko, eta parte hartzeko motibazioak eta ikerketa-gai posibleak aurkezteko baliatu genuen jarduera. Azkenean, banakako ikerketa-proposamenen, jatorrizko tokien eta eskualdeko eraldatze-prozesu sozialen arteko erlazioak identifikatzea lortu genuen. Mapaketa georreferentziatua egiteko, plataforma birtual batean<sup>7</sup> kokatutako mapan lan egitea adostu genuen, urruneko kartografia parte-hartzaile gisa. Ikasleek bizi diren eta ikertzen dituzten lekuetako testuak, argazkiak eta bideoak partekatu zituzten mapa horretan.

## 1. irudia. USCOko parte hartzaileen geolokalizazioa



Iturria: USCO-ko taldea.

Bigarren saioaren ardatza galdera hau izan zen: Nola ikertu hezkuntza emantzipatzailean oinarrituta zibilizazio-krisiko garaietan? Lehen zatian, parte-hartzaileen jakinarazpenekin jarraitu genuen, bakoitza lurraldeko bere enuntziatio-lekuan oinarrituta. Egindako mapaketa eta mintegi horien

<sup>7</sup> Maparen esteka: <https://11nq.com/geolocalizacion-USCO>

informazioa aurkeztu ondoren, “Artikulatuen ahots eta adierazpen lokalak kartografiatuz” jardura egin genuen. Hiru dimentsiotan adierazi zen: gorputza, lurraldeak eta borrokak. Parte-hartzaile bakoitzak fitxa batean idazten zuen bere enuntziatio-lekua, eta taulan zegokion eremuan jartzen zuen. Azkenean, fitxen zati bat partekatu genuen, galdera hauei erantzuten saiatuz: Koherenteak al dira gure praktikak testuinguruaren dinamikekin? Nola alda ditzakegu? Emakumeen eta feministen enuntziatioak nabarmendu ziren; izan ere, beren gorputz-lurraldean banakako eta taldeko borrokak aurkitzen dituzte, ingurumenaren, osasunaren, elikaduraren, hezkuntzaren eta emakume izatearen aniztasunaren edo genero-identitate *bestelakoetara* atxikitzearen aldeko borrokekin artikulatzen direnak. Gure ustez, banakako enuntziatioaren (gorputzaren lurraldea) eta enuntziatio kolektiboaren (bizitzaren lurraldea) arteko sentsibilitate-, empatia- eta artikulazio-unea izan zen hori, eta horretan oinarrituta identifikatu ziren borroka akademikoak zein soziopolitikoak.

Hona hemen gune horretan elkartu ziren gorputzen, lurraldeen eta borroken bilbaduratik abiatuta kolektiboki eratutako mapa.

---

## 2. irudia. Hitz-hodeia. Gorputza

---



Iturria: USCO-ko taldea.

Hitz-hodei horrek esperientzia pedagogiko honetan elkartu ziren zentzumenak eta gorputzasunak biltzen ditu. Leku gorputzuak, gizarte-sufirimendu, ahanztura, isiltasun eta ametsen bidez hitz egiten dutenak, baita errebeldia, erresistentzia eta amorru duinaren bidez ere:

Aske izan nahi duen eta etxean “ikara” eragin duen izateko modu bat... maritxua naizela diotelako –ile luzea izateagatik, belarritakoak jartzeagatik (lehen, azazkalak margotzen nituen)– edo marihuanazaletzat hartzen nautelako tatuajeak izateagatik, argala izateagatik eta desberdintasunari irekita egoteagatik (P4IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).

Gorputz gazte batetik hitz egiten dut, lanaren ondorioz zigorak eta mina jasaten dituen gizon baten gorputzetik. Obesitatezko iragan baten ondorioz orbainak eta ildaskak dituen gorputz batetik hitz egiten dut. Egunero eguzkitan egotearen ondorioz gorputz erre eta orbanetz bete dagoen batetik hitz egiten dut (P5IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).

Emakumeen emantzipazioak dakarren nire gorputz ahaldundutik eta nire eskubideen defentsan oinarriturik hitz egiten dut (P6IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).

---

### 3. irudia. Hitz-hodeia. Lurraldeia

---



Iturria: USCO-ko taldea.

Gorputzen *juntadiza*, Estatuko bazterretatik lurralderatutako emozioen aliantza, jakintza-botereen ezleku pribilegiatuetatik, hegoaldeetik, lurretik, auzotik, parketik, intimitatetik, landatik eta unibertsitateko ezlekuetatik helduak eta elkarren ezagutzaren eta grina alaien sare batean bilduak:

Kontraesaneko lurraldea, nonahi eta inon ez. Hiriko eguneroko bizimoduan dudan beldur handienetik abiatua. Hiriko kaosa, nire etxea eta herri-auzoak. Alderdi espiritualetik, kontraesan-eszenatokia, kritika sozialarekin, baina zenbait gauza onartuta (P7IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).

Lehen lurraldea nire gorputza da, gorputz mugikorra, dinamikoa, batzuetan estatikoa, beste batzuetan etereoa. Nire egunerokotasunean lurralde anitzeko lurraldeak, izenik gabeko lurraldeak, beste batzuk borroka sozial edo politikoetara bideratuak, auzotarrak, herritarrak, gorpuztasunak, nire lurraldea elikatzen duten beste lurralde batzuk (P8IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).

Huilatik hitz egiten dut, iparraldetik zehazki. Indarkeriak, gizarte- eta politika-desberdintasunek eta ingurumenari eragiten dion estraktibismoak eragindako eskualdea da, non, utopiaz eta espiritu emantzipatzailez, prozesuak eta kolektiboak sortzen diren (P9IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).

---

#### 4. irudia. Hitz-hodeia. Borrokak

---



Iturria: USCO-ko taldea.

Mugimenduan eta etengabe kontraesanean dagoen bitzta borroka artikulatuen eremu bihurtzen da; borroka horiek ikusgarriak zein ikusezinak izan daitezke, handiak edo mikropolitikoak. Eguneroko aukerak eta utopia imajinaezinak asmatzen dituzten gorputzen aliantza, eta hori dena ehuna, hitza, besarkada, egoera bihurtu zen. Bizitzaren zaintza eta emantzipazioa dira aurkitutako

bidearen korrelatuak. Elkartze bakoitza aitzakia bat da *juntadizoa* egiteko eta ezinezkoa irudikatzeko:

*Gizarte-klaseen borrokekin identifikatzen naiz, desberdintasunaren, bazterketaren eta halakoen aurkako borrokekin... pertsonen bizi-kalitatea hobetu nahi duten borrokekin identifikatzen naiz, eta guztiz babesten dut bizitzaren, askatasunaren, berdintasunaren eta afektuaren aldeko borroka oro (P10IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).*

*Nire borroka herri zapalduen emantzipazioa eta askapena dira, lurraldeen defentsa (P11IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).*

*Emakumeen eta gazteen borrokan ari naiz, emakumeak boterearen iruditeria deseraikitzeke, etxeoandre baino gehiago izateko egiten ari garen borrokan. Matxismoa deseraikitzeke borrokan, nire familian bertan hasita; ikasi duen, lan egiten duen, eta ezkondu, seme-alabak izan eta etxeoandre izateko zikloa eta iruditeria hautsi dituen emakumea izateko borrokan. Ahalegin propioarekin, familiaren laguntzarik gabe, ikasi eta goimailako hezkuntza lortu duen eta independentea den nire belaunaldiko lehena eta bakarra naiz (P12IK.Mintegia.USCO.Kolonbia).*

Saioaren bigarren zatia mundua irakurtzeko jakintzen arteko elkarrizketan oinarritu zen, tokian tokiko hezkuntza emantzipatzailearen esperientzietatik abiatuta. Hegoaldeko lurraldeetan izaten diren prozesu eta ekintzen arteko elkarrizketa eta aintzatespena sustatzeko ikerketa konprometituetan parte hartu duten irakasleak, ekintzaileak eta komunitateetako buruak gonbidatu zituen USCOko talde eragileak. Guztira, lau esperientzia aurkeztu ziren, eta, saioaren amaieran, ikasleek beren enuntziazio-lekuei eta eraldatze-prozesuei buruzko gogoeta egin zuten; prozesu horietako batzuk unibertsitatearekin edo lehen eta bigarren hezkuntzako hezkuntza-erakundeekin lotutako akademikoek kudeatzen dituzte, eta beste batzuk ikasleen komunitateekin eta arazoekin konprometitutako gizarte-eragileek. Jakintzen arteko elkarrizketari esker, urte askoan aktibo egon diren esperientziak partekatu, eta mobilizazio- eta ikerketa-prozesuak ezagutu ahal izan ziren, eta jarduera kontzientearen aukera baieztatu zen, bai eta eraldaketaren aldeko unibertsitatea/gizartea harremanean oinarritutako belaunaldi-trukea ere.





Saioaren barruan, “Irakasleentzako eta gizarte-taldeentzako galderak” fitxa (ikus 1. eranskina, 4. fitxa) betetzeko asmoa zegoen, baina ezin izan zen egin, esperientziei buruzko eztabaidarako interesa zegoelako. Ikerketa-proposamenari buruz idazten has gintezkeela erabaki genuen. Horretarako, proposatutako fitxa hurrengo saioan beteko zuten. Azpimarratu behar da Hegoak proposatutako fitxa aldatu genuela; hala, eztabaidan azaldutako interesagatik, taldeka lantzea erabaki genuen, eta ez banaka.

Parte-hartzaileek eskatuta, hirugarren saioa atzeratu egin zen, eta bi astez taldeak beren gogoetak eta kidesunak elikatuz joan ziren. Lankidetzaikerketarako proposamenetan aurrerapenak zeudela aprobetxatuz, irakasleek 1. fitxa (“Ikerketa-lanaren aurkezpena”) aldaketa batzuekin lantzeko eskatzea erabaki zuen. Parte-hartzaileak graduko, graduondoko eta mugimendu sozial edo komunitarioetako ikasleak ziren, eta aldaketak haien ezaugarrietara egokitu ziren. Hala, 1. fitxak hasierako proposamena eta 2. fitxako hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekiko lotura integratu zituen, galdera honetan laburbilduta: Hezkuntza emantzipatzailearen zer printzipiotan oinarritu daiteke amaierako lanaren proposamena?

Mintegietan aurrera egin ahala, agerikoa zen talde-lanak egiteko interesa. Horrek sendotasuna ematen zion irakasleek hartutako erabakiari, hau da, ikerketa kolektiboetan sakontzea gai handietan oinarrituta, gero, gai horietatik lan indibidualak edo kolektiboak aterako baitziren. Horren ondorioz, ikasleek lankidetzaikerketako ekintzetara jo zuten, ikasleen eta militanteen interakzioaren bidez, eta betiere horizontaltasunean oinarrituta. Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa aldenitu egiten zen zientzia tradizionalaren logiketarik, non subjektua

eta ikergaia argi eta garbi bereizten diren, eta, horrenbestez, baita espazio akademikoa eta ikertutako subjektuaren gizarte-espazioa ere.

Hirugarren saioa komunitateekin egindako bi ikerketa-esperientzia ezagutaraziz hasi zen: bata, komunitate indigenekin Huilan egindako elikadura-burujabetzari buruzkoa zen, eta bestea, Estatu Unibertsitate Paulistako (UNESP) kide baten bisita aprobetxatuz, Brasilen Lurrik Gabekoen Mugimendurekin (MST) nekazaritza-erreforma herrikoia egiteko borrokei buruzkoa. Bigarren zatian, 1. fitxan jasotako proposamenak ezagutarazi ziren. Ikasle bakoitzak bere ekarpenak egin zituen, eta, azkenean, taldeak sortu ziren 4 gai nagusitatik abiatuta:

- Feminismoak, emakumeen gizarte-mugimendua, zainketaren jarduerak eta zainketaren ekonomiak.
- Komunitateen autonomia, elikadura-burujabetza, lurraldetasuna eta landatartasuna.
- Curriculuma eta prestakuntza.
- Belaunaldien arteko elkarriketak, memoriak, jakintzak eta kultura.

Saio horren amaieran, eztabaida eta gogoeten ondoren, hurrengo saiorako lana adostu genuen: lankidetzatza-ikerketaren proiektua aurkeztea. Berriro ere, Hegoak proposatutako materiala egokitu egin zen, lankidetzatza-ikerketak erregistratu ahal izateko.

Hasiera batean, laugarren saioa aurrez aurre egiteko programatuta zegoen, baina, 2021eko apirilaren 28ko Kolonbiako Geldialdi Nazionalaren oroitzapenezko manifestazioak zirela-eta –gizarteak eztanda egin zuen–, beharrezkoa izan zen aholkularitza ematea taldeka *Meet* plataforma birtualaren bidez. Talde bakoitzak egindako aurrerapen eta eztabaidetan oinarrituta, irakasle-taldeak orientabide bibliografiko eta metodologikoak eskaini zituen lanean jarraitzeko.

Azkenik, saio presentziala egin zen, bi galdera hauen inguruan: Zer proposamen sor genitzake gure testuinguruetarako? Eta nola osatu hezkuntza eraldatzailerako metodoak? Irakasleen azalpenetatik eta taldeen ikerketei buruzko eztabaidetatik abiatuta, hezkuntza emantzipatzailearen metodologia problematizatzea lortu zen. Ikerketa-metodo eta -teknika tradizionalei buruzko galderen bidez, ikerketa estruktibistari aurre eginez, komunitateekin jarduteko, esku hartzeko eta parte hartzeko zalantzak eta proposamenak sortu ziren. Halaber, komunitateek ikerketa konprometituaren inguruan duten jarrerari buruz hausnartu genuen. Neivako herri-auzo batean prozesuarekin jarraitzea eragotzi zioten talde baten kasuak eragin zuen eztabaida hori. Zalantzak sortu ziren, ea ikerketa-prozesua bertan behera geratzeak taldearen akats batekin edo komunitatearen erabaki batekin

zerikusia izan zuen. Azkenik, hasieran begi-bistakoa ez zen kausa bat agertu zen eztabaidan: auzoko mikrotrafikoaren boterea zen, eta nola eragiten duen bere lurraldera nor sartzen den eta nor ez erabakitzeko orduan. Badirudi hori zela komunitateak ikerketa-ariketa hori ez egiteko arrazoia. Kasu horrek gogoeta ugari eragin zituen ikerketa konprometituei buruz, eta erakutsi zuen hainbat arrazoirengatik gertatzen dela “izan-parte hartu-irten” espirala.

Amaieran, ikerketa kolektibo horietan aurrera egitea eta Hegoa eta UNICAUCAko kideen iraileko topaketarako emaitzak prestatzea adostu genuen. Denbora horretan irakasleek aholku- eta laguntza-saioak egin zituzten.

## 2.2. Ikerketa akademiko kritikoari buruzko hausnarketa-eta eztabaida-topaketak

Bilbon, Neivan eta Popayánen (ordena horretan) egindako topaketak ikerketa akademiko kritikoari buruzko eztabaida bi errealitate desberdinetatik (Euskadi eta Kolonbia) sortzeko diseinatu ziren, jakinarazpen hegemonikoari aurre egingo dion ezagutza sortzeko ikaspenak berreskuratzearen. Espainiako Estatuko eta Kolonbiako unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileen ekarpenak entzun genituen, baita esperientzia honetan parte hartu zuten ikasleen ahotsa ere. Gainera, talde-lanerako aukera eskaini genuen, gogoeta egin ahal izateko gizarte-mugimenduen eta unibertsitatearen arteko artikulazioak ikerketa kritikoko ariketetan dituen muga eta aukeren inguruan.

### UPV/EHUko topaketa

2022ko maiatzaren 12an, “Ikerketa kritikoaren gakoak, unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulaziotik” izeneko topaketa egin genuen Euskadin, eta 50 pertsonak parte hartu zuten. Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle-talde batekin batera antolatu genuen, UPV/EHUko Leioako campusean.

Topaketa 3 bloketan egituratu genuen, elkarrizketa-formatuan. Dinamizatzailerik saio bakoitzean egindako galderen bidez, Espainiako eta Kolonbiako hizlarien ekarpenak entzun ahal izan genituen. Tarte bat gorde genuen mintegietan parte hartu zuten ikasleek halako ekimenek unibertsitate-esparruan duten interesari buruz egindako azterketa azaldu zezaten, eta beste eztabaida-tarte bat izena eman zuten guztiek parte har zezaten, gizarte-mugimenduen eta akademiaren arteko artikulazioak ikerketa kritikoko ariketetan dituen muga eta aukeren inguruan.

## 5. irudia. UPV/EHUn egindako topaketaren kartela



### ENCUENTRO / TOKAPETA

12 mayo 2022 Maiatzaren 12an  
Sala Juliana Agirrezabala, Facultad de Educación de Bilbao (Leioa)  
Juliana Agirrezabala Aretoa, Bilboko Hezkuntza Fakultatean (Leioan)

**DOKTORATZAK**  
**TERRITORIOS**  
**FEMINISMOAK**  
**MOVIMIENTOS SOCIALES**  
**UNIBERTSITATEA**  
**ECOLOGIA DE SABERES**  
**ZIENTZIA**  
**GRUPOS DE INVESTIGACION**  
**TFM**  
**DECOLONIALIDAD**  
**CUERPOS FEMINISTAS**  
**ZIENTZIA**  
**LURRALDEAK**  
**NARRATIVAS**

**GORPUTZAK**  
**DEKOLONIALTASUNA**  
**DOCTORADO GRAL**  
**METODOLOGIA FEMINISTAK**  
**CUERPOS NARRATIVAK**  
**UNIVERSIDAD**  
**CONOCIMIENTOS**  
**TFG**  
**INVESTIGACIÓN-ACCIÓN-PARTICIPATIVA**  
**CIENCIA**  
**MUGIMENDU SOZIALAK**  
**METODOLOGÍAS FEMINISTAS**  
**JAKINTZEN METODOLOGIA**  
**NARRATIVAS**  
**MAI**  
**NARRATIVAS**  
**UNIBERTSITATEA**  
**ECOLOGIA**  
**EZAGUTZAK**

#### Claves para una investigación crítica

desde la articulación entre universidad y movimientos sociales

**Inscripción:** Gratuita (plazas limitadas).  
Necesario formalizar la inscripción aquí:  
<https://labur.eus/ty0ll>

**Transporte:** saldrá un autobús desde la Facultad de Economía y Empresa (Sarriko) para las personas que necesiten transporte desde Bilbao al Campus de Leioa (necesario reservar plaza).  
Se extenderá certificado.

#### Ikerketa kritikoaren gakoak,

unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulaziotik

Izen-ematea: Doakoa (plaza mugatuak).  
Inskripzioa beharrezkoa:  
<https://labur.eus/ty0ll>

Garraioa: Ekonomia eta Enpresa Fakultetetik (Sarriko) autobus bat aterako da Bilbotik Leioako Campusera garraioa behar duten pertsonentzat (beharrezkoa da plaza erreserbatzea).  
Ziurtagiria emango da.

Más información / Informazio gehiago: 

Financiadora / Finantzatzailea:  Organizadora / Antolatzaileak: 

“Ikerketa kritikoaren gakoak, unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulaziotik” topaketaren programa eta edukia:

**Ongietorria.** Amaia del Río (Hegoa Institutuko Hezkuntza Taldea) eta Maitane Picaza (Hezkuntza Fakultateko irakaslea, UPV/ EHU).

**Lehen elkarrizketa.** Nola ikertu, egungo erronka sozial, ekologiko, ekonomiko eta kulturei aurre egiteko? María Jesús Márquez (Didaktika eta Eskola Antolakuntzako Saileko irakaslea, Málaga Unibertsitatea); Axel Rojas (Antropologia Departamentuko irakaslea, Cauca Unibertsitatea) eta Robinzon Piñeiros (Hezkuntza Fakultateko irakaslea, Surcolombiana Unibertsitatea). Dinamizatzailea: Maitane Picaza (Hezkuntza Fakultateko irakaslea, UPV/ EHU).

**Talde-etzabaida.** Eta gizarte-aldaketarako ikerketa batean pentsatzen badugu, non gizarte-mugimenduak eta unibertsitatea elkartu daitezkeen?

**Hitzaldia.** Kultura akademiko eta sozialeko askotariko subjektuen eta jakintzen arteko artikulazioa. Diana Granados (Antropologia Saileko irakaslea, Cauca)

Unibertsitatea). Dinamizatzailea: Zuriñe Gaintza (Hezkuntza Fakultateko irakaslea, UPV/EHU).

**Bigarren elkarrizketa.** Aldatzen duten/gaituzten prozesuak. Begirada kolektiboa “Konpromiso soziala ikerketa akademikoko lanetan” mintegiei. Alba Pastor, Clara Furió eta Marina Gallardo (UPV/EHUko ikasleak); Mateo Vidal (Caucako Unibertsitateko ikaslea) eta Thayra Ardila eta Yurany Sáenz (Surcolombiana Unibertsitateko ikasleak). Dinamizatzailea: Juanjo Celorio (Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Eskolako irakasle erretiratua, UPV/EHU).

**Azken elkarrizketa.** Ikerketa kritiko baterantz joateko proposamenak. Aida Sánchez de Serdio (Kataluniako Unibertsitate Irekiko irakaslea) eta Julio Roberto Jaime (Gizarte eta Giza Zientzietako Fakultateko irakaslea, Surcolombiana Unibertsitatea). Dinamizatzailea: Idoia Marcellán (UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko irakaslea).

UPV/EHUko ikus-entzunezko zerbitzuaren lankidetzari esker, baditugu bideo-grabazioak, eta eskura daude Hegoaren multimedien<sup>8</sup>.



- 
- 8 <https://multimedia.hegoa.ehu.eus/es/videos/158-como-investigar-para-hacer-frente-los-retos-sociales-ecologicos-economicos-culturales-actuales>  
<https://multimedia.hegoa.ehu.eus/es/videos/160-procesos-que-nos-transforman-una-mirada-colectiva-los-Seminarios-compromiso-social-los-trabajos-investigacion-academicos>  
<https://multimedia.hegoa.ehu.eus/es/videos/159-articulacion-entre-sujetos-saberes-diversos-cultura-academica-social>  
<https://multimedia.hegoa.ehu.eus/es/videos/161-propuestas-para-caminar-hacia-una-investigacion-critica>

## UNICAUCAko topaketa

2022ko irailaren 9an, UNICAUCAko taldeak “Irudimena, politika eta akademia: ikerkuntzarako eta hezkuntza emantzipatzaileerako erronkak” izeneko topaketa antolatu zuen Popayángo Antropologia Fakultatean. Guztira 82 pertsonak parte hartu zuten, besteak beste, irakasleek, ikasleek eta gizarte-erakundeek. Topaketaren helburua zen herri-hezkuntzaren eta ikerketa-ekintza parte-hartzailearen (IEPH) ibilbide historikoei buruz pentsatzea taldean, eta bideak eta erronkak planteatzea erakundeen, gizarte-mugimenduen eta akademiaren arteko lankidetzaren horiek elikatzen jarraitzeko. Ezbairik gabe, herri-hezkuntza eta IEPHa bi ikuspegi dira, asko laguntzen dutenak, ezagutza sortzeari dagokionez, pribatizazioari eta desberdintasunei aurre egiteko bide kolektibo eta kritikoak sortzen eta pentsatzen. Kapitalaren metatze-logikak eta zapalkuntza-sistemak zalantzan jartzen dituen ezagutza sortzeko galderak indarrean daude oraindik latitude guztietan, eta eremu akademikoetan eta, bereziki, unibertsitateetan, kolektibo ugari daude, korrante horiek proposatutako planteamendu emantzipatzaileekin bat datozen erantzun posible eta berritzaileak sortu nahi dituztenak.



“Irudimena, politika eta akademia: ikerkuntzarako eta hezkuntza emantzipatzaileerako erronkak” topaketaren programa eta edukia:

**1. panela.** Ekintza parte-hartzailearen ikerketari buruzko berriak. Marcela Amador (antropologo feminista eta Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioko zuzendaria); Diana Lucía Rentería (irakaslea, arrazakeriaren aurkako hezitzailea, ikertzailea, artibista eta afrofeminista), eta Javier Fayad (Hezkuntzan eta Pedagogian doktorea. Valleko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko dekanoa).

2. **panela.** Hezkuntza eta ikerketa emantzipatzaileko esperientziak, aurrerapenak eta oztopoak. Patricia Sierra (Unibertsitate Pedagogiko Nazionaleko Hezkuntzako doktorea eta Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko Gizarte-lanen Saileko koordinatzailea); Carlos Corredor (Caucako Unibertsitateko Garapenari buruzko Diziplinarteko Ikasketen Maisutzaren koordinatzailea) eta Juanjo Celorio (Hegoa Institutuko Hezkuntza Taldeko hezitzailea eta kidea).

---

## 6. irudia. UNICAUCAn egindako topaketaren kartela

---

**SEMINARIO** **09 SEP 2022**

**Imaginación, política y academia:**  
Retos para la investigación y educación emancipadora

**Invitadxs:**

Marcela Amador Ospina	María Teresa Findji
Diana Lucía Rentería	William López
Javier Fayad	Julio Jaimes
Patricia Sierra Pardo	Yinna Ortiz
Carlos Corredor	Catalina Serrano
Juanjo Celorio	

**INSCRIPCIONES**  
(Link adjunto)

**Lugar:** Auditorio Virginia Gutiérrez de Pineda, Facultad de Ciencias Humanas y Sociales, Universidad del Cauca, Popayán.  
Dirección: Calle 4ª N° 3 56

Logos: FINANZAS, UNICAUCA, SURCOLOMBIANA, INDIANAS, G&LPS, Taller de Etnografía, Universidad del Cauca.

### Gaikako mahaiak (paraleloan):

1. **mahaia.** Herri indigenekin izandako ikerketa emantzipatzaileko esperientziak. Koordinatzailea: María Teresa Findji (Colombia Nuestra fundazioa).
2. **mahaia.** Beltzekin/afro-ondorengoekin izandako ikerketa emantzipatzaileko esperientziak. Koordinatzailea: William López (Etnografía Lantegia haztegia eta Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioa).
3. **mahaia.** Nekazari-herri eta -komunitateekin izandako ikerketa emantzipatzaileko esperientziak. Koordinatzailea: Catalina Serrano (Etnografía Lantegia haztegioko laguntzailea).

4. **mahaia.** Generoari buruzko ikerketa-esperientziak, eta sexu- eta genero-disidentziak. Koordinatzailea: Yinna Ortiz (Viraje kolektiboa).

5. **mahaia.** Hiriko sektore popularrekin izandako ikerketa emantzipatzaileko esperientziak. Koordinatzailea: Julio Roberto Jaime (Gizarte eta Giza Zientzietako Fakultateko irakaslea, Surcolombiana Unibertsitatea).

**Bilkura.** Gaikako mahai bakoitzaren sintesiaren aurkezpena.

## USCOko topaketa

Guztira, 50 pertsona bildu ziren “Ezagutzaren praktika *bestelakoak* itxaropenaren alde borrokatzeko: hausturak eta erresistentziak bizitza zaintzearekin konprometitutako ikerketa eta hezkuntza emantzipatzailea egiteko” topaketan, 2022ko irailaren 5ean, USCOko Ekonomia eta Administrazio Fakultatean. Helburua zen, jakintzen arteko elkarrizketaren bidez, Huila departamenduko lurraldeetan bizitza zaintzearekin konprometitutako ezagutza modu *bestelakoak* eraikitzeo esperientzia eta jarrera politiko/ontologiko/epistemologikoak ezagutzea, eta Caucako Unibertsitateko eta UPV/EHUko beste esperientzia batzuekin bateratu. Bizitza/kapitala tentsioaren ondoriozko hezkuntza- eta komunitate-hausturek biziaren zainketarako komunitateekin talde-lanean sentitzeko eta pentsatzeko *juntadizoetarako* bidea ematen dute.

Bi unetan oinarrituta egin zen topaketa. Lehen, hiru erakundeetako taldeen arteko elkarrizketa gisa. Metodologia panel formatukoa izan zen, eta arazo zentraletatik abiatuta dinamizatu zen, gonbidatuek parte hartzen zuten hezkuntza emantzipatzaileko esperientziak ezagutarazteko. Lehenengo panela arazo zentral honetatik abiatu zen: “Itxaropenaren alde borrokatu: elkartze politiko/ontologiko eta epistemiko handi baterantz, zibilizazio-krisian bizitzarekin konprometitutako unibertsitate bat lortzearren”. Bigarren panela “Lankidetzak-ikerketak, militanteak edo korrontearen kontra: Bizitzarekin konprometitutako irakaskuntzarako eta ikerketa-ekintzarako esperientziak eta erronkak” ardatzaren inguruan aztertu zen. USCOko ikasleen eta irakasleen parte-hartzeari esker, aurretik egindako mintegietako eztabaidak aberastu ziren.

Arratsaldeko jardueran, mintegietan egin ziren lankidetzak-ikerketako hiru taldeen mahaiak garatu ziren:

- Komunitateen autonomia eta elikadura-burujaetza
- Jakintzak, memoriak eta erresistentziak
- Hezkuntza propioa eta kulturartekotasuna: Curriculum disidenteak eta prestakuntza *bestelakoak*



Oinarri gisa gai komun bat hartuta, mahai bakoitzean ikasleak eta gizarte-liderrak elkarrekin aritu ziren. Erabilitako metodologia jakintzen arteko elkarrizketa izan zen. Esperientzien eta ikerketen aurkezpenak elkarrizketa problematizatazailak sortu zituen ekintza-konpromisoari, ikerketa-prozesu parte-hartzaileei eta hezkuntza emantzipatzaileari buruz. Interakzioari esker, aldaketekin eta emantzipazioarekin konprometitutako borrokei, erresistentziei eta ikerketa-prozesuei lotutako jakintzak artikulatu ahal izan ziren.

---

## 7. irudia. USCO n egindako topaketaren kartela

---



“Ezagutzaren praktika *bestelakoak*, itxaropenaren alde borrokatzeko: hausturak eta erresistentziak, bizitza zaintzarekin konprometitutako ikerketa eta hezkuntza emantzipatzailea egiteko” topaketaren programa eta edukiak:

**1. panela.** Itxaropenaren alde borrokatu: elkartze politiko/ontologiko eta epistemiko handi baterantz, zibilizazio-krisian bizitzarekin konprometitutako unibertsitarekin bat lortzearen. Juanjo Celorio eta Gemma Celorio (Hegoa Institutua); Axel Rojas (UNICAUCA), eta Claudia Yolima Devia eta Julio Roberto Jaime (USCO).

**2. panela.** Lankidetzeta-ikerketak, militanteak edo korrontearen kontrakoak: Bizitzarekin konprometitutako irakaskuntzarako eta ikerketa-ekintzarako esperientziak eta erronkak. Amaia del Río (Hegoa Institutua) eta Diana Granados (UNICAUCA).

### Jakintzen arteko elkarrizketa:

1. **mahaia.** Lurraldetasuna eta landatartasuna: Autonomia komunitarioak eta elikadura-burujabetza.
2. **mahaia.** Jakintzak eta kulturak: Belaunaldien arteko elkarrizketak eta memoriak.
3. **mahaia.** Hezkuntza propioa eta kulturartekotasuna: Curriculum disidenteak eta prestakuntza *bestelakoak*.

### Jakintzak eta zapoak ezagutzeko mistika



### 2.3. Elkarrizketak lurraldeetako herri-ekimenekin eta prozesu komunitarioekin

Hiru erakundeetako taldeak Neivara, Popayánera eta Calira joan ziren; hala, saioa landa-lan bihurtu zen, eta horrek ikaspen eta ezagutza handiak ekarri zituen esperientzia pedagogiko honetara. Irteera horretan, Huila eta Cauca departamenduetako gizarte-mugimenduen komunitate- eta herri-prozesuak ezagutu genituen, eta horietako batzuk ikerketa-ariketen eremu izan ziren. Helburu horrekin berarekin, Euskadin Errekaleor Bizirik esperientzia autogestionatua ezagutu ahal izan genuen Gasteiz kanpoaldean.

Kolonbian bisitatutako tokiak:

- Calixto nekazari-azoka (Neiva). Zuzeneko ekonomia ekoizleen eta kontsumitzaileen artean. Bakearen aldeko eta Ekintza anitzeko Nekazaritza

eta Abeltzaintza Kooperatibako (COOAGROAZ) ordezkariekin hitz egin genuen. Kooperatiba hori borrokalaria ohiek, nekazariak eta gatazkaren biktimek osatua da; nekazaritza eta abeltzaintzako proiektuak lantzen ditu eta borrokalaria ohientzako bizitza-proiektu berriak osatzen laguntzen du.

- Pacho Vacca herri-liburutegia (Comuna 8, Neiva). Komunitatea indartzeko esku-hartze psikosozialeko estrategia modura pentsatuta dago. Lurraldeetan bizitza zaintzeko aukera erradikal bat da, amorrutuan, herri-samurtasunean eta alaitasun mugagabearen oinarrituta. Comuna 8 Kolonbiako hainbat tokitatik lekualdatutako familiek osatzen dute. Gerratik eta landa-eremuetako egiturazko indarkeriatik ihes egin zuten 80ko hamarkadan, bizitzeko aukera hobeen bila.
- Jaguos por el territorio elkarte (La Jagua, Garzón, Huilako hegoaldea). La Jaguako komunitatea eta haren inguruko lurralde eta ekosistema guztiak zaindu, leheneratu eta babesten lagundu nahi duen prozesu autonomoa da. El Quimbo proiektu hidroelektrikoari desadostasuna agertzeko sortu zen; hala, tokiko prozesuen kudeaketa sustatzen du, lurraldetik alde egiteko presioei aurre egin, eta bertan geratzeko estrategia gisa.
- Emakume Zeta-ehuleak (Timbío, Cauca) zetazko ehunak ekoizten dituen erakunde bat da. Erakundeko kideak arduratzen dira ekoizpen-ziklo guztiaz: marugatzea landatu eta zeta-harra hazi, kapuluak hari bihurtu, tindatu, ehundu eta saldu.



- La Fortaleza eta Unidos Para Triunfar kokaguneak (Comuna 7, Campiña eta Chapinero auzoen artean, Popayán). 2012. urtearen inguruan sortu ziren, zenbait familia Cauca hegoaldeetik iritsi zirenean lekualdatze behartu batean. Lau hilabete inguru iraun zuten lurrak berreskuratzeko lanek. Prozesu gogor horren ondoren, komunitateak erabaki zuen La Fortaleza eta Unidos Para Triunfar izena ematea kokaguneei, indar publikoek handik kanporatzeko egin zituzten saiakerei erakutsitako erresistentzia adierazteko. 2016. urtetik gaurdaino, Hogar Digno Hogar elkarteak osatzen dute, hirian habitat duin baten alde borrokatzen diren 200 bat familia afiliaturekin. Urte hartan bertan, elkarteak, mobilizazioaren bidez, beste lursail bat lortu zuen Popayángo iparraldean, eta gaur egun auzo berri bat eraikitzen ari dira han.
- “La Trocha” emakume borrokalari ohien eta berriz gizarteratuen kooperatiba (Popayán). Popayángo ekimen horretako buruak birgizarteratze-prozesuan dauden emakumeak dira. Bake-sinatzaileek egindako produktuak sustatzeko gunea da.
- Aquelarre, diseinu eta komunikazio bisual feministaren laborategia (Popayán). Diziplinarteko proiektuak sortzen ditu; batez ere, landa-eremuko eta hiri-eremuko gazteekin eta haurrekin material didaktikoak eta hezkuntzakoak egiteko.
- Viraje taldea, narratiba maritxu transfeministak (Popayán). Generoaren eratze identitarioarekin, sexu-orientazioekin, feminismoarekin, *queer* teoriarekin zerikusia duten arazoei eta horiek Caucako dinamika berezi eta erreionalekin duten loturari buruz pentsatzeko prestakuntza-gunea da. “Landako polisemiak: gorputz-, sexu- eta genero-narrazioak Caucan” proiektuaren bidez, Cauca departamenduko landa-testuinguruetan sexu- eta genero-aniztasuna bizitzeko modu guztien ñabardura ugariak ulertu eta ikusarazi nahi dira.
- Cauca Iparraldeko Kabildo Indigenen Elkarteak, ACINC (Santander de Quilichao, Cauca). Cauca Iparraldeko kabildo indigenen elkarte nagusia da. 22 kabildo indigenak (agintaritzak indigena tradizionalak) osatzen dute Çxbab Wala Kiwe lurraldea. Nasa herriaren lurralde- eta politika-eskubideak aldarrikatzen ditu. 1994an sortu zen, eta Caucako Eskualde Kontseilu Indigenaren (CRIC) barruan dago. Azken urteotan, ACINC elkartearen lana bizitza-planak eta gatazka armatuari aurre egiteko estrategiak lantzerantz bideratuta egon da. ACINC lanean ari da nasa herriak autodeterminazio librea baliatzea dezan jabetza kolektiboko lurralde batean “Çxbab Wala Kiwe”, non berdintasunean eta harmonian biziko den beste komunitate indigena, mestizo eta afro-kolonbiar batzuekin. “Pentsamenduaren Etxea” Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioaren eta Cauca Iparraldeko

Kabildo Indigenen Elkartearen arteko proiektu bateratua da. Ikerketa partehartzaile eta solidarioa egitea eta mundua ezagutzeko bi moduren artean elkarriketa sortzea du helburu, mundua aldatzeko.

- Cauca Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarte, ACONC (Santander de Quilichao, Cauca). Erakunde afroen eta beltzen komunitateen kontseiluen antolakuntza-prozesuei laguntzen die, antzinako lurraldearen defentsan, eta giza eskubideen, erreskatearen eta norberaren garapenaren eskagarritasunean oinarrituta, konstituzioan, legean eta nazioarteko itunetan ezarritako printzipioen arabera. “El Pueblo negro del Norte del Cauca cuenta su historia” (Cauca Iparraldeko beltzek beren historia kontatzen dute) ikerketa-esperientziak zalantzan jartzen du historia ofiziala, eta Cauca Iparraldeko herri beltzaren erresistentzia-, lurraldearen edukitza- eta lurraldearen eta komunitatearen garapen-prozesua azaltzen saiatzen da.



- Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioa (Santander de Quilichao, Cauca). 2009an eratu zuen emakume- eta gizon-talde batek, gizarte-ikerketan, herri-hezkuntzan eta gizarte-erakundeei eta komunitateei, bereziki herri indigenei, aholkularitza ematen esperientzia handia zuenak. Herri-erakunde feminista da, eta, prestakuntza eta eragin politikoaren, ikerketa komunitarioaren eta komunikazio alternatiboaren bidez, beste kolektibo batzuekin batera bakea eraikitzen parte hartzen du.

Landa-lanak Hegoa, USCO eta UNICAUCAren prestakuntza-prozesua indartu zuela esan dezakegu. Jarduera handiko aste batean, hiru erakunde horietako ikasleek eta irakasleek bertatik bertara ezagutu ahal izan genituen lurralde

horietan sortzen diren borroka-prozesuak. Neiva - Garzón - San Agustín - Popayán - Timbío - Santander de Quilichao - Cali ibilbidean lurraldeak, komunitate-prozesuak eta prozesu herritarrak ezagutu genituen, eta lagungarria izan zen jakintzen arteko elkarrizketa gerta zedin unibertsitate-esparrutik harago; behetik hasita, eta, kasu batzuetan, akademiaren eta nazioarteko lankidetzaren laguntzarekin egiten diren esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen.

Esperientzia horiei esker, geure buruari galderak egin ahal izan genizkion ekintza-konpromisotik eta munduaren irakurketatik abiatzen den ikerketaren inguruan. Hezkuntza emantzipatzailearen proposamenarekin bat etorrita, bidaia horrek aurrera jarraitzeko moduan jarri gintuen; gizartea eraldatzeko konpromisoak osotasunaren irakurketa eskatzen du, bai eta aniztasunarekin eta gizatasuna eraikitzeko aukerekin indartzen den ekintza-konpromisoa ere. Laburbilduz, mundua irakurtzeak entzute, hausnarketa, parte-hartze, konpromiso eta idazketa polifoniko baterako jarreran jartzen gaitu, eta horri erantzuten dio ekoizpen akademikoaren eta ekoizpen sozialaren arteko elkarrizketarako bideak eskaintzen dituen sistematizazioak.



### 3. Esperientzia pedagogikoa sistematizatzeko prozesua





### 3. Esperientzia pedagogikoa sistematizatzeko prozesua

Proiektuaren barruan, lehenengo bi ekimenen sistematizazioa planifikatu zen: mintegiak eta topaketak. Hezkuntza emantzipatzailearen proposamenerako funtsezkoena ez da ikaskuntzaren ebaluazioa, baizik eta subjektuak gaitasunetan indartu eta ahalduzko ikaskuntzaren ebaluazioa. Sistematizazioak ezagutza eta ikaskuntza garrantzitsuak sortzen ditu, esperientzien zentzuaz jabetzeko, teorikoki ulertzeko eta, ikuspegi eraldatzaile batean oinarrituta, etorkizunera bideratzeko.

Ariketa honen helburua da mintegien eta topaketen esperientzia pedagogikoa berreraikitzea sozialki konprometitutako ikerketari dagokionez, Euskadi-Kolonia artikulaziotik, ezagutza kritikotik eta ekintza kolektiboko prozesuetatik sortutako ikaspenak identifikatzeko.

Aipatu behar da Articuladxs taldea sistematizazio horretan inplikaturik dagoela, gainerako parte-hartzaileak bezala. Prozesu hori bultzatu ez ezik, prestakuntza-eta gogoeta-guneak eskainiz, inplikatu ere egin gara gure askotariko esperientzia eta subjektibotasunetan oinarrituta, eta gainerakoekin batera pentsatzen, eztabaidatzen eta ikasten saiatu gara. Beraz, parte-hartzaileak aipatzen ditugunean, guri buruz ere ari gara.

Sistematizazioa, definizioz, logika parte-hartzailea proposatzen duen metodo bat da. Prozesu osoan konfiantzan oinarritutako lan-giroa sortzen ahalegindu gara, iritziei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko, eta haiek partekatzeko. Parte-hartzaileak gure planteamenduak eta esperientziak azaltzen ditugun subjektuak gara, eta ez gara aztergai hutsak; sistematizazioa modu kolektiboan sortu ditugun jakintza, diskurtso eta esanahietatik abiatuta egiten da.

Ez da ohikoa gure lanari buruz gogoeta egitea. Hala ere, gogoetak berak bide ematen dio –egiten dugun horretatik abiatuta– jakintza berri bati, praktika esperientzia bihurtzeko aukera ematen diguna. Testu honen helburua da gure gogoetak partekatzea, hiru lantalderen arteko artikulazio-prozesu batean egindako bidetik abiatuta. Talde horiek leku desberdinetan kokatuta gaude espazioari, erakunde moduari eta kulturari dagokienez. Desberdintasun horiek gorabehera (edo horiei esker), hiru taldeak hezkuntzan eta praxi eraldatzailean interesatuta gaude. Prozesua luzea izan zen, eta, beraz, ikaspenak askotarikoak izan ziren: proposamen bateratu baten diseinua, talde-lana, egindako lanaren segimendu- eta ebaluazio-ariketak.

Proiektu baten sistematizazioaz hitz egiten denean, bide askotatik egin daiteke, eta hainbat tresna erabil daitezke. Gure kasuan, esperientziari buruzko gogoetatik sortutako ikaspenak partekatu nahi izan ditugu, praktikari buruzko xehetasun batzuk alde batera utzita. Uste dugu beharrezkoa dela esperientziara bueltatzea artikulazio-prozesu horren ikaspenak berrikusteko.

Hasiera batean, Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioaren laguntzarekin, Artikuladxs taldeko kideok zenbait bilera egin genituen sistematizazioaren azterketa-eremua zehazteko. Ardatz hauek adostu ziren, proiektuaren helburu zehatzaren arabera:

- Kultura akademikoaren eta gizarte-produkzioaren arteko artikulazioa
- Ezagutza emantzipatzailea sortzeko ikaspenak
- Ekintza kolektiboko prozesuen ikaspenak

Esan nahi dugu horiek ez direla ardatz estankoak eta konpartimentuetan banatuak, baizik eta estu lotuta daudela haien artean. Horien arteko lotura bilatzea da gure interesetako bat, sistematizazioaren emaitzetan egiazta daitekeen bezala (4. puntua).



Informazioa aztertzen hasteko, erregistro guztiak aztertu (ikus 5. eranskina), eta goian aipatutako ardatzei buruz gogoeta egiten duten ahotsak atera

ditugu. Parte-hartzaileen gogoetak biltzeko orduan, testu honetan anonimatu bermatzen duen baina haien profila eta lurraldea zein den jakiten uzten duen kodetze-sistema bat aplikatu dugu.

Parte-hartzaileen hiru profil ditugu: Ikasleak (IK); irakasleak (IR) eta kolektibo-sozialak (KS). Jarraian, zein jardueratan parte hartu zuten identifikatu dugu: Mintegiak, topaketak edo talde fokala. Horren ondoren, ekitaldia antolatu zuen unibertsitatea dugu. Eta, azkenik, parte-hartzailearen jatorria aipatzen dugu, jardueraren kokalekua edozein zela (Kolonbia edo Euskadi).

### 1. taula. Kodetze-adibidea

Kodea	Interpretazioa
P4IR.Topaketa. USCO.Kolonbia	(P) Parte-hartzailea (4) Parte-hartzaile bakoitzari modu korrelatiboan esleitutako zenbakia (IR) Irakaslea. Jardueraren identifikazioa. Jarduera antolatu zuen unibertsitatea. Parte-hartzailearen jatorria
P1KS.Mintegia. UNICAUCA.Euskadi	(P) Parte-hartzailea (1) Parte-hartzaile bakoitzari modu korrelatiboan esleitutako zenbakia (KS) Kolektibo-Soziala. Jardueraren identifikazioa. Jarduera antolatu zuen unibertsitatea. Parte-hartzailearen jatorria
P3IK.Talde fokala. UPV/EHU.Euskadi	(P) Parte-hartzailea (3) Parte-hartzaile bakoitzari modu korrelatiboan esleitutako zenbakia (IK) Ikaslea. Jardueraren identifikazioa. Jarduera antolatu zuen unibertsitatea. Parte-hartzailearen jatorria

Iturria: geuk egina.

Horren ondoren, parte-hartzaileek berek sortutako esanahiak multzokatu genituen, eta, azkenik, esperientzia pedagogiko horretan gertatutakotik aldentzen den ezagutza kolektiboa sortuko zen.

Hiru lurraldeetan eratu ziren talde fokalak, eta, horri esker, proiektu honetan sortutako jakintzak parte-hartzaileen esperientzietan oinarrituta argitu ahal izan ziren. Ahots eta gogoeta guztiak izan ziren nagusi jakintza kolektiboaren eraikuntzan eta prozesu osoaren ebaluzioan.

Hegoaren kasuan, bi talde fokal eratu ziren, 4 eta 3 lagunekoak, hurrenez hurren (ikasleak, irakasleak eta GGKEak), eta bi orduz hausnartu genuen esperientzia honi buruz. UNICAUCAk, jakintza partekatua ebaluatzeko prozesuan, azterketari

ikerketa-haztegi gisa (Etnografia Lantegia) duen esperientzia gehitu zion; izan ere, lantegi horretan egin zen artikulazio hau. Talde fokal bat eratu zuten haztegiko parte-hartzaileekin, non apustu politiko-akademikoa eta munduaren eraldaketarako konpromisoa azpimarratu zen. USCOK, berriz, 2 talde fokal eratu zituen, mintegi eta topaketetako 8 parte-hartzaileekin.

Lurralde bakoitzak emandako informazio guztia antolatuta, sistematizazioaren lehen zirriborroak egin genituen, eta, gero, Hegoa, UNICAUCA eta USCO taldeen artean partekatu ziren. Gogoeta- eta elkarrizketa-saio batzuen ondoren, saio horien, esperientzien eta jakintzen triangulazioa lortu zen. Horren guztiaren ondoren, Euskadiko eta Kolonbiako unibertsitate-komunitate kritikoaren arteko artikulaziotik sortutako ikerketa-prestakuntzako esperientzia horren ikaspenen testu integratzailea osatu genuen.

Sistematizazioaren bidez lortutako ezagutzak funtsezkoak dira, eta baliagarriak izaten ari zaizkigu gizarte-eraldaketaren alde egiten dugun lana hobetzeko eta horretan jarraitzeko. Articuladxs taldearentzako ikasbide izateaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu gizarte-eraldaketarako eta ikerketa kritikorako hezkuntzaren esparruan lan egiten dutenekin partekatzea, horiek eragile akademiko zein sozial izan.

Hala, bada, hurrengo atalean sistematizazioaren emaitza nagusiak azalduko ditugu: i) subjektuen, lurraldeen eta gizarte-prozesuen arteko artikulaziotik sortutako ikaspenak, unibertsitateko hezkuntza- eta ikerketa-esperientziei dagokienez; ii) ezagutza emantzipatzailea sortzeko ikaspenak, eta iii) ekintza kolektiboko prozesuetatik sortutako ikaspenak.



## 4. Sistematizazioaren emaitzak



## 4. Sistematizazioaren emaitzak

Goian planteatutako ardatzetan oinarritutako sistematizazioaren emaitzak aurkeztu aurretik, ekimenaren testuingurua deskribatuko dugu. Kolonbiako eta Euskadiko parte-hartzaileen artean desberdintasun nabariak dauden arren, testuingurua bera dute. Esparru horri esker, unibertsitateak beste mundu posible batzuk eraikitzen aurrera egiteko behar duen aldaketan jakintzak duen garrantzia uler dezakegu. Jokalekua eta helmuga berberak ditugu: zibilizazio-krisiak unibertsitatearen aldaketa eskatzen du, emantzipaziorako bidean.

Edozein hezkuntza-ekintza egiteko, testuingurua zehatz-mehatz identifikatu, ezagutu eta ulertu behar da. Hori ikaspen garrantzitsua da, halaber, gizartea eraldatzeko hezkuntza- eta ikerketa-prozesuetan.

### 4.1. Testuinguruak esperientzia pedagogikorako duen garrantzia. Egungo zibilizazio-krisiak unibertsitatearen aldaketa eskatzen du, emantzipaziorako bidean

Zibilizazio-krisian gaude, eredu kapitalista, patriarkal eta kolonialetik eratorria, eta unibertsitateak zeregin erabakigarria izan du eredu horren errepikapenean. Duela zenbait urtetatik hezkuntzaren merkantilizazio-korronte batean gaude, non ezagutza kapitalarentzat interesa duen estrategia bihurtzen den, eta alde batera uzten duen gizateriak eta planetak dituzten arazoei aurre egiteko gai den komunitate kritikoa indartzeko xedea:

*Unibertsitatea Mendebaldeko sorkuntza bat da, sistema betiketzen laguntzen duen kultura- eta hezkuntza-esparrua sortzen duen instituzio bat. Azken hamarkadetan, gainera, pribatizazio-prozesu etengabea izan du, hezkuntza gizabanako merkaturako produktiboen fabrika bihurtu dadin, eta ez planeta itotzen duten arazoak eta bertako bizitza aintzat hartuko dituzten komunitate kritikoak sortzeko gaitasuna duen tresna izan dadin (P13IK.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Globalizazioaren joera horrek eragina du, halaber, unibertsitateko eredu teknokratiko eta neoliberalak legitimatzen duten ikasleen eta irakasleen subjektibotasunetan. Ematen den irakaskuntzak berak mugatzen du ikuspegi kritiko hori, zeinaren arabera unibertsitateak lotura zuzena izan behar duen dagokion komunitatearekin eta lurraldearekin:

*Unibertsitatean sartu, eta eraikin gisa ikusten dugu; pasiboki kokatzen gara unibertsitatean, gizaratearekiko inolako loturarik ikusi gabe... Gizarte gero*

*eta indibidualistago eta lehiakorragoetara goaz, ikasi dugun horretara, azken batean (P14IK.Topaketa.UPV/EHU.Euskadi).*

Gizarte-aldaketan esku hartzeko pentsamendu kritikoa sortzea ez da gaur egun akademia definitzen duten ildo nagusietako bat. Aldiz, ikuspegi efizientista eta kalitate eztabaidagarrikoa lehenesten da, unibertsitatea gizarte-eraldaketarako eragile gisa alde batera uzten duena. Ildo horretan, ikerketaren ezaugarriak gizartetik gero eta urunduago daude, eta enpresaren interesetara eta haren proiektu kapitalistara hurbiltzen dira:

*Unibertsitate publikoan kapitalismo kognitiboa da nagusi. Unibertsitateko prestakuntza eta irakaskuntza kontzeptu hauek eta antzekoek bideratzen dituzte: eraginkortasuna, nazioartekotzea, kalitatea.... Unibertsitatea gizarteak eraldatzeko duen ezinbesteko rola galtzeko bidean dago (P15KS. Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

*Gizarte indibidualista, lehiakor eta bizi garen testuingurutik bereizi batean bizi gara; denak epe laburrean eta berehala behar du.... Alde horretatik, ikerketaren mundua ez zen salbuespena izango. Gaur egun, Gradu Amaierako Lanetan, Master Amaierako Lanetan eta doktorego-tesietan, lan egiteko modua banakakoa da, eta ikerketa askoren edukiak, gizarte-testuingurutik at egoteaz gain, dinamika ekonomiko neokapitalistetako asko irauraraz ditzake (P14IK.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Unibertsitateak sustatzen duen ikerketa-eredu merkantilista horrek kasu gehienetan zaildu egiten du gizarte antolatuekin loturak ezartzea. UPV/EHUren kasuan, "Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea" izeneko proiektu-deialdi bat dago, eta baldintzetako bat da finantzaketa propioa egitea. Irizpide horrek, zalantzarik gabe, gizarte-mugimenduen parte-hartzea oztopatzen du eta, aldiz, enpresei laguntzen die:

*Unibertsitatearen egiturak bere baldintzak jartzen ditu.... Militantziaz ikertu, edo unibertsitateak ez dizu beste aukerarik uzten. Zergatik da erraza industrientzat? Enpresa horiek beren burua finantzatu dezaketelako (P16IR.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

Unibertsitate-eredu hori aldatzea ezinbestekoa da beharrezko gizarte-aldaketak elikatuko dituen eta lurraldeetako ekintza kolektiboko prozesuetan lagunduko duen ezagutza adierazgarria sortzeko. Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa funtsezkoa da helburu horretan. Unibertsitate inklusibo eta sozialki konprometitu bat osatzen parte hartzea gure eskubidea da, bai eta mobilizatzekeo pizgarria ere:

*Unibertsitatea eraikuntza kolektiboko lekua dela pentsarazi zidan. Oso erakunde garrantzitsua da, eta gizakiok erreibindikatu egin behar dugu*



ordezkatuko gaituen unibertsitate baten eraikuntzan parte hartzeko eskubide hori. Niretzat, mobilizaziora bultzatu ninduen ikaspen oso garrantzitsua izan zen hori (P17IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).

Alde horretatik, badira zenbait gizarte-talderen esperientziak unibertsitatean aldaketak eragiten dituztenak, dela praktiketan ari diren ikasleak prestatzeko ematen duten laguntzaren bidez, dela gogoetarako eta sentsibilizaziorako guneak eratzearen bidez. Gainera, ekimen horiek ikuspegi kritikoan oinarrituta egiten direnez, horrek balioa erasten die gizarte-aldaketarako ikaspenak sustatzen dituzten hezkuntza-erakunde gisa:

UPV/EHUko Gizarte Laneko, Gizarte Hezkuntzako eta Antropologiako ikasleentzako praktika-zentro ere bagara, akademiak ikasleen prestakuntzarako hirugarren sektoreko profesionalak izan ditzan. Nazioz gaindiko migrazio-errealitateei eta zeregin profesionalari buruzko gogoeta kritiko eta sentsibilizaziorako lantegiak egiten ditugu. Irakasle eta ikasleentzako etengabeko prestakuntza eskaintzen dugu beste epistemologia batzuetan oinarrituta (feministak, hegoaldekoak...) eta jakintzaren, egitekoaren eta abarren kolonialtasunaren dekonstrukzioan oinarrituta... (P18KS.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).



Akademia beretik datozen beste esperientzia batzuek ere sustatzen dituzte ikaskuntza- eta ikerketa-moduak, eta horiek ere aldaketak eragiten dituzte. Adibidez, UPV/EHUko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak lan egiten du "justizia egiteak" benetan esan nahi duenaren jardunari eta errealitate sozialari erantzun diezaien irakaskuntza juridikoak:

*Egitura hori sortu genuenean (Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa), irakaskuntza juridikoetan eragin nahi genuen, ez geundelako haiekin ados, hau da, ez geunden ados errealitateatik eta inguruko arazoetatik urrun dagoen eta justiziaz ahazten den legelari-ereduarekin. Bidegabetzat jotzen dugun gizartea aldatzen laguntzeko, statu quo aldatzeko kezka hori eragin eta garatu nahi dugu.... Ez zaigu gustatzen inguruko arazoetatik, gizateria osoaren arazoak baitira, urrun dagoen ikerketa (P19IR.Mintegia. UPV/EHU.Euskadi).*

Komunitatearekin hitz egiteak eragin eraldatzailea du unibertsitatean. Parte hartzen duen gizartearen errealitate sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalarekin lotura duen unibertsitate ireki bat eta, gainera, aldaketarekin konprometitu eratzten laguntzen du. Tokiko komunitateak eraldatzeaz gain, unibertsitatea bera ere eraldatze-subjektu da. Alderdi hori askotan ahaztu egiten da, eta, neurri batean, horrek unibertsitatea eta gizartea erakunde autonomo eta independentetzat hartzeko joera adierazten du. Esperientziak erakusten du gizartearen eraldaketa ez dela osoa unibertsitatearen eraldaketarik gabe, eta, aldi berean, gizartearen eraldaketak subjektu kritikoen prestakuntza eta gizarte-aldaketa horretarako behar den ezagutza sortzea eskatzen du:

*Mintegietatik atera, eta gelatik kanpo hitz egiten hasten ginen; horrek badu indarra, eta iraultzailea da. Aldaketa horren parte gara, beraz, gertatuko ahal da.... Mintegi hauen bidez, masterrean ikusi ditugun diskurtsoak egia bihurtu ditugu. Bai, alda daiteke. Potentzial handia duen prozesu batean parte hartu dugu. Hori guztia beste eremu batzuetara transmititzea da asmoa (P20IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

Esan beharra dago hezkuntzaren eta ikerketaren bidezko eraldatze-prozesuak asumitzeak tentsioak eta kontraesanak sor ditzakeela horretan parte hartzen duten askotariko subjektuen artean. Tentsio horiez ohartzea, agian, ekintza eraldatzailearen parte da. Ikuspegi dialogiko kritikoak desadostasunerako aukerak onartzen ditu:

*Elkarrizketaz hitz egiten denean, pentsatzen da ez dagoela ez eztabaidarik, ez borrokarik, baina kontrakoa gertatzen da, herri-hezkuntzak planteatzen digu ezagutzaren eraikuntza kolektiboaren ikuspegia negoziazioaren ikuspegia dela. Negoziazio kulturala, errealitatea ulertzeko moduak negoziatzen ari garelako (P21IR.Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Unibertsitatean aldaketak bultzatzea, unibertsitatean bertan eraikitzen duguna eta lan egiten dugun gizarte-sektoreen eskaerak bateratuko dituztenak, edo elkartasun- eta erantzukizun-harremana ezartzea ikuspegi kritikoen bidez, prestakuntza akademikoari buruzko interpelazioaren parte da, ikasle batek epistemologia feministei buruz eta horiek gizarte-arazoekin duten elkarriketari buruz hausnartzean iradoki zuen bezala:

*Interesgarria da ikustea nola lotzen diren horrelako gauzak, eta nola generoa eta feminismoa mundua irakurtzeko moduak diren; beraz, oso garrantzitsua da hezkuntzak eraldaketarako oinarria ematea. Izan ere, zertarako balio du nire ezagun guztiei esatea "begira ikasgelan irakurri dudan guztia; liluragarria da"? Garrantzitsuena da horrekin zerbait egitea (P22IK.Talde fokala.UNICAUCA.Kolonia).*

Orain arte esandakoak ez du esan nahi unibertsitatea jada eremu eraldatzailea denik; akademia eztabaidarako agertoki bat da, non ikuspegi kritikoez eta ekimen emantzipatzaileek oraindik ere leku marjinalak edo periferikoak dituzten. Hori dela eta, Artikuladxs eta halako proiektuak, hau da, erakundearentzat eta bertako ikertzaileentzat onura sortzeko interesari aurre egiten dion etika batean oinarritutakoak, oraindik gutxi dira. Era berean, ez da oso ohikoa prestakuntza-programek beste unibertsitate batzuetako ikasleak doan konektatzea, edo tradizionalki zientifikotzat jotzen diren ezagutza-ekoizpeneko guneetatik kanpo dauden sektoreetako ikasleak konektatzea.

Hezkuntza-ekintzaren agendak eta bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako ikerketak curriculum akademikoa gizarte-praktikekin artikulatzea eskatzen dute. Errealitateak, alternatiba kolektiboak eratzeko, artikulazioak eskatzen ditu askotariko subjektuen, lurraldeen eta gizarte-prozesuen artean. Ordena hegemonikoa aldatzearen alde egiten dugunok topaguneak behar ditugu, elkar ezagutzeko eta ahalduentzako; prestakuntzako, ikerketako eta gizarte-mobilizazioko esperientziak trukatzeko; mundua interpretatzeko azterketa-esparruari buru egiteko, eta ekintza emantzipatzailea eraikitzeko.

## 4.2. Subjektuen, lurraldeen eta gizarte-prozesuen arteko artikulaziotik sortutako ikaspenak, unibertsitateko hezkuntza- eta ikerketa-esperientziei dagokienez

Esperientzia pedagogiko honen artikulazioko ikaspen asko ikasleen arteko, ikasleen eta irakasleen arteko, eta ikasleen eta gizarte-taldeen arteko harremanaren ondorio dira. Artikulazioaren (Ipar eta Hego globaleko komunitateen artekoa) irakaskuntzaren eta ikerketaren ezaugarri bereziek esparru akademikoarekin lotutako zenbait ikaspen sortzen dituzte, bai eta esparru hori gaintzen duten beste batzuk ere.

#### 4.2.1. Ikerketa harreman, akonpainamendu eta eraikuntza kolektiborako espazioa da, eta subjektuen ahalduntzea dakar

Ekimen honetako parte-hartzaileen arteko entzute aktiboa eta elkarrizketa horizontala direla-eta, hezkuntza- eta ikerketa-prozesua harreman-eremu gisa ulertzen da, non bat egiten duten ikerketa-lanei buruzko gogoetek eta bizitza-proiektuekin zerikusia dutenek:

*Mintegiak elkargune fisikoak, eta irakasleen, graduiko ikasleen, masterreko, doktoregoko eta gizarte-eragileen arteko parte-hartze horizontaleko guneak izan dira, eta komunikazioa eta entzutea ahalbidetu dute, ideiak, galderak, zalantzak, beldurrak, helburuak eta ametsak partekatzeko (P13IK.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Desberdinen arteko lankidetzak eta artikulazioak lagun egitea, konponbide kolektiboak bilatzea eta ezagutza berriak –hain zuzen ere, pertsona horien esperientzia eta jakintzen truketik eratorriak– sortzea dakarte:

*Ikerketa-prozesuan lagunduta gaudela sentitzea, ezagutzak eta esperientziak trukatzu. Normalean, hori unibertsitateak ez du errazten, eta goi-mailako hezkuntza hobetzeko proposamen estrategikoa bihurtzen da, egungo gizarte-premietara hurbilduta. Halaber, erabateko esperientzia izan da esparru akademikoan gizarte-eraldaketaren alde egindako erakuntza kolektiboari dagokionez (P17IK.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Ezagutza kolektibo hori oso urruti dago akademiak sustatzen duen ezagutzatik, non bakarka ekoizten den, eta zuzendariak edo ikertzaile nagusiak erabakitzen duen norabidea. Ikerketa egiteko beste modu honek, harremanetan eta lankidetzan oinarritua, gogo bizia sortzen du gizartearekin eta haren zerbitzura dagoen unibertsitate batekin konprometitutako ezagutzaren alde egiten duten pertsonengan:

*Nik ikerketa utzia nuen, akademian tokirik aurkitzen ez nuelako. Belgikan –han ikasi nuen– nik egiten nuena ez zela hezkuntza esan zidaten, beste zerbait zela. Akademiatik atera eta GGKEetan antropologoa izaten saiatu nintzen, baina nik ikerketa egin nahi nuen. Prozesu hau ezagutu nuenean, zuek ezagutu zintuztedanean eta egiteko modu hau ezagutu nuenean, berriro piztu zitzaidan ikerketarako grina. Hezkuntza-taldea ezagutu, eta nola lan egiten duzuen ikusteak ilusio handia egin zidan. Ez da ikerketa indibidualista egitea, zu bakarrik egotea, eta zure tesi-zuzendariak zu azpian kokatzea, masterreko ikaslea zarelako. Ilusio handia egin zidan beste akademia hau dagoela ikusteak. Niretzat berriro arnasa hartzea bezala izan zen, eta berriro maitemindu nintzen; horregatik proposatu dut doktorego-tesia (P23IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

Parte-hartzaileek egiten dituzten ekarpen guztiei ematen zaien zilegitasuna da hezkuntza- eta ikerketa-prozesu kritikoetako artikulazioaren beste berezitasunetako bat. Mintegietan sortzen diren gogoetek eta pentsamenduek balio bera dute –ikasle batena, irakasle batena zein gizarte-eragile batena izan, eta berdin elikatzen dute talde osoa, eta horrek ikaskuntza aberasgarriagoa egiten du. Ikasketa-mailan, adinean eta gizarte-posizioan oinarritzen diren botere-logikak desegin egiten dira, bai eta profil desberdineko subjektuen arteko hierarkiak lausotu ere:

*Gune horietan ez da oso garbi egoten nor den irakasle, nor ikasle eta nor datorren gizarte-erakunde batetik. Denek egiten dute beren ekarpena, beren esperientzian eta jakintzan oinarrituta, eta ikasteko komunitate oso ederra sortzen da (P24KS.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*



Jakintza guztiei aitortpen bera egiteari buruzko iritzi horrek sentipen berezi bat sortzen du, eta hori sentitu dutenek diote ahaldundu egiten duela eta unibertsiteate-esparruan ez dela oso ohikoa:

*Ez nintzen lekuz kanpo sentitzen; nire jakintzan oinarrituta, lasai hitz egin ahal izan nuen, epaitua sentitu gabe edo gutxiago sentitu gabe. Ahaldundu egiten ninduen (P20IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

Ahalduntze hori ikerketa-lanaren eraikuntzan ikasleen artean izaten den trukearen ondorio ere bada. Eraikuntza horretan, ikuspuntuak eta interesak partekatzeaz

gain, geure burua sentimendu, min eta halakoetara irekitzea ere sartzen da. Eta azken alderdi hori ez da oso ohikoa akademian:

*Unibertsitateak galdera hau egiteko aukera eman beharko luke: zergatik eta norentzat ari naiz ikasten? Ekintzaile sentipentsatzaileak izan behar dugu. Hain barneratua dugu denak teorikoa izan behar duela, ezen sentitzea alde batera utzi dugun, minimizatu egin dugun. Minen haustura ez da alde batera utzi behar; izan ere, minak mugari garrantzitsuak dira gure ekintzetan, ikerketan eta prozesu sozialetan. Honelako lekuetan bestearekin topo egiten dugu, lurralde eta esperientzia desberdinetatik entzuten diogu elkarri, eta indartu egin gaitzke subjektu kritiko gisa. Gainezka egiteak eta isiluneak haustea akonpainamendua behar du, bestearen ekarpena. Unibertsitateak indartzailea izan behar du, geure buruari gainezka egiten eta bizitzari gu zeharkatzen utzi behar dio (P25IK. Topaketa.UPV/EHU.Kolonbia).*

Ikasleak ekimen horretan aktiboki parte hartzeko konpromiso kontzientea hartzeak ezagutza, ekintza eta gogoeta kritikoko esperientzia bat eratzen du –indibiduala eta kolektiboa–, gorago aipatutako ahalduntze horretan laguntzen duena:

*Espazioa eraikita dagoen bezala... inplikatu egin behar zenuen ezinbestean... landu behar duzun gaiari buruz gogoeta egiteko eskatzen zaizu, eta, gero, bateratze-lana egin, gainerakoentzat ere baliagarria izan dadin. Horrek, berez, ahaldundu egiten zaitu, egiten ari zarena taldearentzat baliagarria dela sentitzen baituzu (P13IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

*Nire ustez, gutxi dira ikasleak benetako eragileak diren, presente dauden eta ekarpenak egiten dituzten lekuak [mintegiei eta topaketei buruz (P26IR.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

#### **4.2.2. Hegoalde globaletik datozen eta gizarte-eraldaketara jotzen duten esparru kontzeptualetara eta tresna metodologikoetara hurbiltzea**

Lurralde desberdinetako unibertsitate-komunitateen arteko elkarrizketari eta kontrasteari esker, ezagutza sortzeko eta jakinarazteko beste modu batzuk ezagut daitezke, Mendebaldeko modu hegemonikotik harago. UPV/EHU izandako esperientzian, Kolonbiako irakasle eta ikasleekiko artikulaziotik sortutako ikaspen garrantzitsuak nabarmendu behar dira. Beste jakintza batzuetara hurbiltzeak aukera ematen du kontzeptu-esparruak zabaltzeko, eta ulertzeko ezagutza gizarteak une historiko jakin batean ematen dion aginduak zehazten duela:

Parte hartu dudan ikerketarako ideia izan da ulertzea zer pentsatzen duten eta nola jarduten duten, beren agenda politikoarekin lotuta, Caucan gatazka armatuak zeharkatu dituen hainbat emakumek. Bakerako pentsamendua sortzen dute, baina gatazka armatu batek eta hainbat genero-indarkeriak zeharkatuta (P271R.Topaketa.UPV/EHU.Kolonbia).



Beste jakintza horiek ezagutzeak aukera ematen du ikerketa-jarduera beste mundu posible batzuetarako ekarpenarekin lotzen duten Hego globaleko tresna metodologikoak ikertzeko. Ikuspegi konplexu eta kritikoek pizten duten interesa nabarmetzen dugu, hala nola pentsamendu dekolonialak, ezagutza kokatuak, bai eta, arrazionala den horretaz gain, subjektiboa eta emozionala den hori azpimarratzen duten beste batzuek pizten dutena ere (Fals Bordaren sentipentsamendua). Ikasleengan errealitatea interpretatzeko, munduan kokatzeko eta munduaren eraldaketa ahalbidetzeko gaitasun etikoak garatzen laguntzen dute ikuspegi horiek:

*Asko aberastu da nire ikerketa-proposamena. Mintegiek beste bide eta aukera batzuetara zabaldu zuten nire adimena. Pentsamendu dekolonialak indarra hartu zuen, nolabait "haren begiradan kokatu" ninduen (noski, nik nondik hitz egiten dudan jakinda)... Niretzat, mintegi horiek mugarri bat izan ziren. Kolonbiarekiko harremanak asko markatu ninduen; ematea, jasotzea, ikastea, eskertzea, hor daudela jakitea (P231K.Talde fokala. UPV/EHU.Euskadi).*

*Heriotzaren politikek ere zeharkatzen dute ikerketa. Gu, lubakiaren beste aldean lata zati batekin kokatuta (mutiko bat metal zati batez poliziarengandik ezkututzen erakusten duen argazki bati erreferentzia egiten dio), direnak eta ez direnak imajinatuz eta artikulatzen saiatuz. Herri-ikuspegiaren artikulazio horretatik eta borroka- eta erresistentzia-elementu horretatik (P28IR.Topaketa.UPV/EHU.Kolonbia).*

#### **4.2.3. Errealitatearekiko lotura eta lurraldeen emantzipazio-borrokak**

Lurraldeetan sortzen diren errealitatearekiko eta proiektu politikoekiko lotura da gizarte-taldeek artikulazio pedagogiko honetan eskaintzen duten irakaskuntzetako bat. Erakunde horiekin elkartzeak eta horiekiko trukeak aukera ematen dute ez bakarrik gizarte-arazoetara hurbiltzeko eta horiek ulertzeko, baizik eta baita horiek modu kritikoan aztertzeko ere, eraldaketari bide emango dioten erantzunak bilatu ahal izateko:

*Gure lanak birpentsatzeko, lurraldean gertatzen ari diren prozesu eraldatzaileetara hurbiltzeko eta ikerketa-prozesuei planteamendu koherentea eta gizartea eraldatzeko proiektzioa emateko tresnak lortzeko aukera izan da. Maila pertsonalean, ikerketa-lana kokatzen lagundu didate, hura ikuspegi kritikotik aztertzeko eta nire hipotesian eta ikerketa-galderetan zeuden gabeziak identifikatzen (P13IK.Mintegia.UPV/EHU. Euskadi).*

Hain zuzen ere, gizarte-mugimenduen borrokekin lurraldean bertan izaten den artikulazioaren elementu adierazgarrienetako bat sortzen duen hezkuntza-egoeraren onarpena da. Beste pedagogia batzuekiko eta taldean eta horizontalean eraturako beste hezkuntza batzuekiko interesa nabarmentzen da. Pedagogia horiek eraldaketa emantzipatzailea errazten, eta, aldi berean, akademiaren ezagutzaren monopolioa hausten laguntzen dute:

*Gizarte-mugimenduen aldarrikapenen ikuspuntutik begiratu, eta haietatik ikasi behar dugu, ez bakarrik hezkuntzarako eskubidearen eta hezkuntzarako sarbiderako eskubidearen aldarrikapenetik, baizik eta baita hezkuntza-prozesuetako berrikuntzetarako aldarrikapenetatik ere; izan ere, ondo dakite beste pedagogia eta hezkuntza batzuk beharrezkoak direla eraldaketa sozial eta emantzipatzaileerako (P29IK. Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Kolonbiako Viracocha fundazioaren ordezkari batek egindako lurralde-irakurketan, indartsu ageri da arazo eta borroka sozialekiko ekintza-konpromisoa, agroekologia unibertsitatearen eta komunitateen arteko jakintzen elkarrizketa horretan sortutako curriculumaren zati gisa aldarrikatzen baitu:



...nola berreskuratzen ditugun ereiteari buruzko jakintza eta praktika horiek, Huila departamenduan gehienak nekazari-komunitateak garelako. Orduan, nekazaritzako bizitzeko modu horiek aldarrikatzen ditugu, ereileen bizimodu horiek, akademiaren curriculumetan agroekologia sartzen dutenak. Baina ez edozein agroekologia, baizik eta agroekologia emantzipatzaileak, elkargunekoak, generoarekiko transbertsalak, psikosozialarekiko sentikorrak... Horregatik hitz egiten dut agroekologia emantzipatzaileez, eta horiek, esan dudan bezala, antihomofobikoak, antitransfobikoak, antiklasistak, antiespezistak dira (P30KS.Mintegia.USCO.Kolonbia).

Badirudi errealitate sozialarekiko hurbilketa eta konpromisoa nabariagoa dela Kolonbiako ikasleentzat Euskadikoentzat baino. Hori bultzatzen duen estrategietako bat "ikerketa-haztegi" deritzenetan sartzeko aukera da. Haztegi horiek curriculumetik kanpoko guneak dira, eta ikasleek eta irakasleek batera garatzen dituzte lurraldeko gizarte-prozesu zabalagoetatik sortutako ikerketariketak:

Kolonbian ikasleak askoz inplikatuago daudela iruditu zitzaidan. Hala, mintegiak egin ziren ikerketa-haztegien esparruan, non ikasleek karrera hasten dutenetik parte hartzen duten –edo parte har dezakete–. Hori dela eta, askoz ere lotura handiagoa dute gizarte-errealitatearekin (P13IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).



Hala, UNICAUCak mintegietan parte hartzeko baldintza gisa ezartzen du ikaslearen gradu-proiektua ikuspegi kritikotik bideratuta egotea, edo bideratu

nahi izatea. Hala, proposamenak aurkeztu ziren herri-hezkuntzaren, etno-hezkuntzaren eta pedagogia komunitarioaren esparrutik. Arlo horietan, honako gai hauei buruzko galderak aztertu nahi dira: hizkuntza indigenen erabilera; patriarkatuaren adierazpenak eta horren alternatibak indigenen komunitateetan; genero-harremanak eta -identitateak; nekazari-identitateak; generoa eta sexualitatea FARCekeko borrokalari ohien artean; emakume indigenen parte-hartze politikoa; irakurketaren eta idazketaren erabilera estrategia gisa afro-ondorengo identitateei buruz gogoeta egiteko haur eskolatuen artean; memoria kolektiboa eta eskola; komunikabideak eta gizarte-protesta, agroekologia, musika indigenak; gazte afro-ondorengo lurraldetasunak; musika-tradizioak. Arazo horiek eta beste batzuk partaide-ikertzaileen eta komunitateen –non ikertzaileek beren proiektuak egiten dituzten– arteko elkarrizketatik sortzen dira, eta emantzipazio-helbururako indargune bihurtzen dira, alde aurreko jakintza, egite eta konpromiso batzuetatik lotzen baitzaizkio prestakuntzari.

Era berean, USCOn esperientzian, hitzen, zentzumenen eta besarkaden bidez, bizitzaren zainketaren aldeko apustua egiten duten ikuspegi *bestelakoak*, ezagut daitezke, gorputz eta borroka desberdinak. Lan-ikuspegi horrek bat egiten du hasieran proposatutako mintegien diseinuarekin, eta horren emaitza da graduurreko eta graduondoko ikasleen eta Huila departamenduko herri- eta komunitate-prozesuetako ekintzaileen arteko elkarrizketa. Era berean, Neivan egindako mintegien bigarren saioak beste elkarrizketa bat ahalbidetu zuen: alde batetik, Unibertsitatearen eta, bestetik, estraktibismoaren aurkako tokiko prozesuen, herri-hezkuntzaren, hirirako eskubidearen aldeko borrokaren eta gazte-mugimenduen artean.

Azkenik, gizarte-eragileekin artikulatzeak harremanak zabaltzeko eta hezkuntza emantzipatzaileko sareak sortzeko aukera dakar. Praktika pedagogikoa esperimenterako gune bat da, non proiektuen eta konponbideen bateratze-lana egiten den. Gizarte-taldeekin izaten den loturari esker, errazagoa da jabetzea sareko lanak duen potentzialaz gizartearekin konprometitutako ikerketa bat egiteko:

*Proiektu honetan parte hartzeak, hain zuzen ere, nire kezka pertsonalak eta profesionalak proposamen zehatz batean kokatzen lagundu zidan, eta akuilatu egin ninduen gizartearekin konprometitutako erakundeei sarean lan egiteko aukeraz galdetzerako. Mugarik Gabe erakundeak ateak zabaldu zizkidan master amaierako lanerako (P17IK.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Neivatik Popayánerako bidaiari bisitatutako lurraldeek eta han komunitateekin bizi izandako esperientziak sentimenduen, jakintzen eta proiektu komunaren sarearen ideia gauzatzeko bidea eman zuten. Irakasleak eta ikasleak herri-borrokekin eta gizarte-prozesuekin ikasgelatik kanpo solasean eta elkarrekintzan aritzeak aukera ematen du prestakuntza eta ikerketa irizpide etikoekin ulertzeko:

*Besteak ikusteko eta elkar ezagutzeko aukera eman zigun, denok zeharkatzen gaituzten printzipio etiko eta politiko batzuk daudela ulertzeko aukera, azkenean, sare bat garela orainean.... Uste dut baliotsuena sentsibilitate komunak aurkitzea izan dela, eta horrek afektu horiek sentitzeko aukera eman digu, nitxo bat eraiki daitekeela sentitzeko aukera ematen digu, espazioaren araua hautsi behar bada ere (P30KS.Mintegia. USCO.Kolonbia).*

Articuladxs elkarrizketa saretu horren adierazpena da. Elkarrizketa hori printzipio politikoetatik abiatzen da, eta subjektuak galdekatzen ditu, eraldaketa sozialarekin eta emantzipazio intelektualarekin konprometitutako ikerketa baterako. Zientzia hegemonikoak tradizioz ukatu dituen ahotsak isiltasunetik sortzen dira, jakintzen sare bat eraikitzeko, non bizitza den gizartea/akademia artikulazioaren oinarria.

#### 4.2.4. Tentsioak, hutsegiteak, hobetzeko proposamenak eta artikulazioaren erronkak

Orain arte ikusi dugun moduan, artikulazioak ikaspen positiboak eta interes handikoak uzten dizkigu, baina zenbait tentsio ere planteatzen ditu. Jarraian deskribatuko ditugu horietako batzuk. Era berean, esperotako helburua lortu ez zuen estrategia bati buruzko kritikak jaso ditugu hemen, eta hobetzeko proposamenekin eta artikulaziorako erronkekin amaitu dugu.



Lankidetzaz-ikerketen prozesu horiek talka egiten dute aurrez aurre akademiaren baliabide eta denborekin. Tentsio hori behin eta berriz agertzen da. Esperientzia

honetan, ezagutza sortzeko baldintza materialei buruzko gogoetak agertu dira, bai eta ikerketa praktika politiko eta eraldatzaile izatea erabakitzen dugunean sortzen diren kontraesanak ere, batez ere horretarako aukera mugatzen duten testuinguruetan:

*Akademiak "benetako" ikerketa-lana mugatu egiten du... ikerketa-lan hori ikuspegi desberdinak alderatzen igarotako urte askotako prozesu bat bada ere. Batzuetan, 6 hilabeteren buruan entregatzeko jokoan erortzen gara, eta ikerketa batek benetan esan nahi duena bizitzeko esperientzia galtzen dugu. "Tesi" hitzak zama psikologikoa du; gure pentsatzeko eta izateko moduak elikatzen dituen ikerketa-lan bat izan beharko luke (P31IK. Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Kolonbiako ikaspenak estrategikoak dira tentsio hori gainditzeko. Aliantzak prozesu baten emaitza izatearen alde egiten dute, non galderak, metodoak eta denborak zehazten diren –subjektu guztiekin batera–, eta ez, ohikoagoa denez, unibertsitatean aurrez zehaztutako ikerketa-proiektuak izatea. Proiektu horiek akademian konbentzioz ezarritako denbora- eta espazio-mugak gainditzen dituzte, eta mingara, kaleko mobilizaziora eta gogoeta politikoko beste leku batzuetara lekualdatzen dira. Gainera, lurraldeetan egindako lankidetzaren hori unibertsitate/gizarte dualismo faltsuaren hausturaren adibide da, hainbat borroka eta erresistentzia ezagutzeko aukera ematen baitigu.

Esperotako emaitza lortu ez zuen estrategietako bat eGelaPI (UPV/EHU) onlineko plataformaren erabilera izan zen, hiru unibertsitateetako parte-hartzaileen arteko trukea eta topaketa sustatzeko pentsatua. Batez ere, ikasleek eztabaida-foroen bidez hitz egin ahal izateko eta materialak eta baliabideak horretarako propio sortutako biltegien bidez trukatu ahal izateko espazioa prestatu nahi zen. Estrategia horri buruz, tresna birtual horren berezko mugak agerian uzten zituzten balorazioak bildu genituen:

*Nire kasuan, denbora faltagatik, ez nituen tresna guztiak erabili. Hor zegoen eGelaPI plataforma, baina, zenbait arrazoiengatik, ez nuen aprobetxatu. Ez nuen mugimendu handirik ikusi plataforman, eta lotsa pixka bat ematen zidan.... Uste dut espazioa ez nuela ondo aprobetxatu, Kolonbiako beste pertsona batzuekin interakzio handiagoa izan zitekeen (P23IK.Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

Esan daiteke, aurrez aurrekoak ez diren hezkuntza-estragiek ere, teknologia tarteko dela, arazo partikularrak dituztela. Horietako batek alderdi teknikoekin du zerikusia, hala nola estaldura, kalitatea eta Interneteko konexioaren kostua. Beste batzuk horrelako tresnak erabiltzeko ohiturarekin eta trebetasunarekin lotuta daude. Hala, UNICAUCAn desertzio-kasuak eta kexak izan ziren, konexioaren kalitateagatik eta parte-hartzaileen artean edo irakasle gonbidatuekin truke zuzenagoak eta pertsonalagoak ezartzeko zailtasunagatik. Halaber, distantzia

fisikoak zaildu egiten zituen ikasleen arteko topaguneak ariketa kolektiboak egiteko edota irakasleekin aholkularitza-saioak edo elkarrizketak egiteko.

Gogoeta kritikoaren ondorioz, artikulazioaren potentziala handitzeko zenbait proposamen planteatu dira: mintegietan elkarrizketa gehiago eta subjektuen arteko interakzio handiagoa sustatuko den formatuetara jotzea; Kolonbiako eta Euskadiko erakundeek beren artean hitz egiteko eta sustatzen dituzten gizarte-prozesuak ezagutzeko topaguneak sortzea eta ahalbidetzea, eta ikasleen inplikazioa sustatzea beste lurraldeko ikasleei laguntzeko orduan (Euskaditik Kolonbiara eta alderantziz):

*Ni ez nintzen ez topaketan, ez Kolonbian egon; horiek izan ziren artikulazio handieneko espazioak; ez nituen bizi izan. Mintegietan, ordea, artikulazio handiagoa egin zitekeen.... Lehenengo saioa dibertsifikatzen saiatzea proposatzen dut, elkarrizketa gehiago sustatuko duten formatuak egitea, kilometrotan distantzia handia izan arren. "Hemengo irakasleengandik hango irakasleengana" modura sentitu nuen, eta gainerakoak ikusle modura geunden. Agian, entzule izateaz gain, beste zeregin bat izan genezakeen. Nik, berriz, unibertsitateko elkarte gisa egon naiz, baina ez dut hango elkarteekin harremanik izan. Lurralde horietako antzeko elkarteekin ispilu-lana egitea proposatzen dut (P24KS.Talde fokala. UPV/EHU.Euskadi).*

*Aukera bat izan zitekeen hemengo ikasle bat hango ikasle batekin lotzea, eta hortik aurrera trukeren bat ezartzea (P17IK.Talde fokala.UPV/EHU. Euskadi).*

Azkenik, erronka hau jaso dugu: ikasleek beraiei dagozkien heziketa-, truke- eta gogoeta-espazioen diseinuan zeregin handiagoa izatea. Prestakuntza eta ikerketa kritikoko esperientziak aurrera eramateko orduan artikulazioa sustatzeak eskatzen du parte hartzen duten subjektuak espazio horiek definitzeko lanean inplikatzera, betiere jakintzen onarpenean eta elkarlanaren eraikuntzan oinarrituta. Haien interesak eta espektatibak entzuteko uneak sortzeak eragin onuragarria du honelako prozesuetan, eta garai hauetako erronka eta larrialdiei erantzuteko gai diren unibertsitate kontrahegemonikoak sortzeko aukerari begiratzen diote.

### 4.3. Ezagutza emantzipatzailea sortzeko ikaspenak

Ezagutza kritiko eta emantzipatzaile baten funtsezko elementuak zein diren pentsatzea funtsezkoa da sistema/mundu menderatzaileari buru egiteko eta errealitatea eta errealitate horretan bizi garenok aldatzeko. Esperientzia pedagogiko honetan, gogoeta egiten genuen biziaren iraunkortasunarekin

konprometitutako eta emantzipazio-interesei erantzuteko gaitasuna duen ezagutza taldean eraikitzeak duen interesari buruz. Euskadin eta Kolonbian egiten diren mintegi eta topaketek ezagutza kritikoa emantzipatzailea eraikitzeak aukera erreala eta ideala aztertzen dute. Hona hemen eztabaida eragin zuten galderetako batzuk: Bada erregimen kognitibo neoliberalaz bestelako biderik? Zer da ezagutza kritikoa: bizitzaren aldeko aukera erradikala edo ikastetxeak instrumentalizatzeko estrategia hutsa? Hona hemen ekimen horretatik sortu ziren proposamenak.

#### 4.3.1. Ikerketaren egokitasun politikoa ezagutza emantzipatzaileerako

Prozesuaren apustu nabarmenetako bat mundua, ezagutzen dugun bezala, aldatu beharra da. Beharrezkoa da ezagutzea, praxiaren bidez eraldatzeko. Praxia, praktika, giza jarduera gisa ulertuta. Ez soilik teoriaren kontraketat jotzen den praktika, baizik eta historiak sortzen duen praktika ere bai. Praktika politikoa. Ikerketa emantzipatzailea da ikuspegi kritikotik egiten bada soilik. Hau da, ikerketa emantzipatzaileak botereak jarduteko dituen era guztiez arduratu behar du beti. Ikuspegi hori kontuan hartuta, botereak ez du bere burua modu bakar batean adierazten, baizik eta matrize anizkoitz batean, non hainbat dimentsio elkartu eta koproduzitzen diren. Horregatik, funtsezkoa da bizi garen errealitatea ikertzea, une jakin batzuetan pertsonen eta kolektiboen bizitzari eragiten dioten arazoak identifikatuz. Munduaren ulermen hori ez da interes akademiko hutsa, kontua ez da “ulertzea” soilik. Arazoak aztertzeak zentzua hartzen du sortzen diren ezagutza berriak errealitatea eraldatzeko ekarpen bihurtzen diren neurrian. Beraz, emantzipazioa helburu duen ikerketa baten galderak haren egokitasun politikoan (zer eraldatu) oinarrituta egin behar dira, ez berritasun akademikoan (ezagutzari egindako ekarpenak).

Esperientzia honek aurrera egin ahala, gero eta indar handiagoa hartzen duen ikerketa, kanpoko errealitateak eraldatzeaz gain eraldaketa-unea ere badela zioen ideiak. Ikuspegi kritikoa onartuz gero, ikertzeak komunitate bat eraikitzea edo sendotzea esan nahi du, beste batzuekin ikastea, taldean eraldatzea. Horrela, etengabeko elkarriketa eta talde-lana funtsezkoak dira subjektuak, egiteko moduak eta ezagutza-ekoizpenaren zentzuari buruzko balorazioak eraldatzeko. Ikerketaren dinamikek, testuinguru instituzionaletan gertatzen direnez, tradizioz akademiaren bokazio politikoari eta ezagutzei buruzko gogoetatik kanpo dauden inguruneak eraldatzeko gaitasuna dute.

Mintegi, topaketa, esperientzia eta lurraldeetako ekimenak ezagutzeko egindako bisita bakoitzean, gorputzetan zeharkatutako galderak hausturak eragiten dituzte, eta irudimen politikoa bideragarri bihurtzen dute, ezagutza kritikoa emantzipatzaile baten parte gisa. Irrikatik parte-hartzaile bakoitzaren egoera historiko, kultural eta sozioekonomikora egiten den trantsizioa da espazio

bakoitzean eraten den dantza dialogiko eta praxeologikoa. Erreflexibitatea, ibiltzeko, pentsatzeko, sentitzeko, taldean egiteko eta pentsatzeko tresna etiko-politiko gisa.



#### 4.3.2. Hegemonia zientifikoa borrokatzea. Ezagutza-aniztasuna aintzat hartzea eta ikuspegi kritikoak eranstea

Ezagutza zientifikoari aurre egiteak, baliozko eredu bakartzat hartzen den aldetik, ezagutza-forma pluralak eta horien ekoizpen-moduak ulertzea eskatzen du. “Pluribertso epistemikoaren” nozioan sakontzeko (Arturo Escobar, 2020), bes-telako testuinguru historiko-kulturaletan sortutako jakintzen arteko elkarriketak ezartzeko gonbita egiten du. Gainera, aukera ematen du izate horren deskolonizazioan aurrera egiteko eta, zibilizazio kolonialaren proiektuak ukatutako beste jakintzak ezagutzuz, jokaleku emantzipatzaileetarantz goazenok ikuspegi etiko-politiko bihurtzen gara. Gizartea eraldatzeko ikerketa-prozesuaren beste erronketako bat da unibertsitatetik, instituzio kolonial homogeneizatzaile eta bidegabekeriaren errepikatzaile den aldetik, pluribertsitatera igarotzea, hau da, herriaren lurralde, nekazari-lurralde, antipatriarkal, kolonialismoaren aurkako eta antikapitalistara, non *beste mundu posible* batzuk aurkitu eta amesten diren.

Esperientzia pedagogiko honi esker, koloka jar daiteke jakintza mota bakar baten eta ezagutza sortzeko modu bakar baten ideia hegemonikoa. Errealitatea interpretatzeko hainbat aukera eztabaidatu eta ezagutu ditzakegu, adibidez, indigenen, nekazarien, afro-kolonbiarren, emakumeen eta sexu eta genero disidenteak dituzten pertsonen ibilbidearen eta historiaren bidez. Kulturarteko Unibertsitate Autonomo Indigenako (UAIIN) kide batek iradoki zuen “ezagutza hazi” behar dela, “ekoitzi” beharrean. Nozio horren oinarrian, neurri batean, unibertsitate horrek sustatzen duen ikerketa mota dago; haren printzipioak hauek dira: lurraldea, elkarrekikotasuna, jatorrizko hitza, kulturak eta bizitzaren zaintza:

*Ezagutzei dagokiena bizi behar da, baina guk ez ditugu ekoitziko, hitz gogorra baita; guk ezagutzak hazi egingo ditugu, ezagutzak erein egingo ditugu (P321R.Mintegia.UNICAUCA.Kolonia).*

Ezagutza sortzeko moduen aniztasuna aintzat hartzea funtsezkoa da bertan behera uzteko ikerketa eredu jakin batera egokitzen den eta edozein testuinguruan berdin funtzionatzen duen prozesua dela dioen ideia, eta, aldi berean, eztabaida batzuk planteatzen dizkigu, berezitasunetatik eta subjektu zehatzetatik sortzen diren printzipioak beste lurralde batzuetan partekatzeko aukerarekin edo aukera faltarekin zerikusia dutenak. Honela iradoki zuen Kolonbiako ikasle batek, Kulturarteko Unibertsitate Autonomo Indigenak egindako ikerketa-proposamenari buruz:

*....antzinako jakinduriak eta ezagutzak hazi eta ereitea aipatu duzuen hori ikerketa-ariketarako proposamen endogeno hutsa al da? Hau da, pentsa al daiteke hazte- eta ereite-prozesu horiek herri indigenetatik kanpo gerta daitezkeela? Edo beren identitatea herri horietatik kanpo ikusten duten pertsonak hurbilduz ekingo genioke? (P331K.Mintegia.UNICAUCA. Kolonia).*

Eztabaida horrek bide beraren bi aldaera erakusten ditu, jakintza moten aniztasuna haien izaera emantzipatzaile eta eraldatzailearen parte dela pentsatzen saiatzen garenean. Lehenengoa aniztasuna onartzeari buruzkoa da, eta ezagutzarako bide bakar bat dagoela zalantzan jartzeari buruzkoa. Horri dagokionez, Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioko zuzendariak ezagutzara hurbiltzeko hainbat modu daudelako ideia jaso zuen:

*Zentzumen guztiekin ezagutzea (P34KS.Mintegia.UNICAUCA.Kolonia).*

Bigarren aldaerak galdetzen du ea ikerketatik historikoki baztertutako herri eta kolektiboen ikuspegiak hartu eta praktikan jartzeko aukerarik dagoen. Feminismo dekolonialek ere egin dute galdera hori, eztabaidara ekarri baitute ea subjektu espezifikoen errealitateak eraikitako planteamenduak mundua ezagutu edo eraldatzeko erabil daitezkeen. Horrela, geure buruari galdetzen diogu beltzak



izan gabe feminismo beltzaren erreferentziak har ditzakegun. Gure ustez, gorago aipatu dugun ikaslearen gogoetak adierazten du garrantzitsua dela, batetik, ezagutza eraikitzeke moduen aniztasuna onartzea, eta, bestetik, ezagutza horiek eskuratzea eta parte hartzen dugun ikerketa-prozesuetara eramatea.

Ezagutzen aniztasunera irekitzeak ez du esan nahi erlatibismo epistemikoaren sustapen akritikoa egin behar denik; aitzitik, jarrera gogoetatsua izan behar da jakintza sortzeko esparruei dagokienez, eremu horiek eztabaidarako eremutat hartzen baititugu, baina, sarritan, horietan baztertu egiten baitira positibismo nagusiaren irizpideek markatutako dinamiketatik kanpoko jakintzak:

*Pluralismo epistemikoak ez du erlatibismoa esan nahi. Ahots ugarien errespetutik abiatzeak ez du esan nahi akritikoki onartzea edozein azterketak berdin balio duela. Eraldaketa nahi bada, balioak ezagutzaren ondorio eraldatzaileekin lotuta egon behar du (P35IR.Mintegia.UPV/EHU. Kolonbia).*

Ezagutza sortzeko moduen aniztasuna aintzat hartuta, akademia, jakintza unibertsalizatzailea eta trahistorikoa sortzen duen makina den aldetik, ezegonkortzen laguntzen duten ikuspegi eta alternatiba kritikoak aurkitzen ditugu. Unibertsitateko kolonialismoaren nagusitasuna borrokatzea proposatzen da, eta, aldi berean, eliteen botereari eusten laguntzen dion eta beste subjektu eta lurralde batzuetatik datozen jakintzak baztertzen dituen ezagutza zientifikoa zalantzan jartzea:

*Pentsamoldeetan eta ezagutzaren erakundeetan kolonialismoaren iraupe-na gainditzea.... Subjektuak eta jakintzak baliozkotzeko printzipio gisa eta hierarkiak berretsiz erabili den ezagutza zientifikoa auzitan jartzea (P35IR. Mintegia.UPV/EHU.Kolonbia).*

Esperientzia honetan, hainbat esparru epistemiko, ikerketa-metodo eta ikuspegi kritiko ageri dira, erraztu egiten dutenak ezagutza zientifikoaren ezaugarri den zibilizazio-proiektuaren kontakizunari aurre egitea. Epistemologia feministek, herri-hezkuntzaren tradizioak, kulturarteko hezkuntzak, etnohezkuntzak, pedagogia kritikoek, Latinoamerikako ikerketa parte-hartzaileak... interes handia pizten dute gaur egungo ezagutza kritiko aztertzeko orduan. Artikuladxs programak aukera ematen du hezkuntza emantzipatzailearen inguruan biltzeko eta askotariko ikuspegi horiek guztiak aztertzeko.

Nondik hitz egiten den zehazteak (Walter Mignoloren enuntziatio-lekua) aukera ematen du ezagutza zientifikoaren objektibotasunari aurre egiteko, munduari buruz dugun jarrera eta horren zehaztapena adierazita utzita ikerketa-ariketetan:

*Era berean, edozein ikerketak duen alde aurreko alderdia azpimarratzen du, hau da, gaia bereizteko prozesua, zer esparrutatik abiatuko ga-*

*ren jabetzea eta zer ondorio politiko eta sozial izan ditzakeen, besteak beste.... Articuladxs programak gaiaren oinarriak finkatzen lagundu dit, eta, batez ere, gaiari heltzean zer testuinguru-esparrutatik abiatzen naizen jabetzen; nor naizen jakiten, nondik idazten dudak jakiteko (P14IK. Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Epistemologia feministek aurre egiten diote zientziaren ustezko objektibotasun eta neutraltasun horri. Historikoki kokatutako ezagutzaren proposamena onartzea (Donna Haraway) Mendebaldeko adostasun epistemikoan hain ohikoa den unibertsaltasun eta estandarizazioari buru egitea da. Era berean, Sandra Hardingen “erreflexibitate indartsu” kontzeptuak planteatzen du errealitatearen irudikapenak partzialak direla beti, eta nozio hori defendatzen dutenek objektibotasun handiagoa lortzen dutela ezagutzaren neutraltasuna ziurtatzen dutenek baino:

*Joera androzentrista horrek ere planteatzen zuen objektibotasuna zalantzan jartzea. Pentsamendu feministak ere egin du gogoeta horren inguruan, eta pentsalari emakume batzuek objektibotasunaren kategoria ezeztatu egiten dute.... Eta beste ikuspegi batzuen arabera, objektibotasuna beti subjektibotasunarekin lotuta dago... Eta kritika horretatik dator “ezagutza kokatuaren” ideia.... Sandra Hardingen lanean oinarrituta, “erreflexibitate handi” modura ulertzen da. Ezagutzen edo badakien subjektu horren harremana nola dagoen pentsatu behar da, zer leku hartzen duen. “Ezagutza kokatua” eta “erreflexibitate sendoa” dira androzentristismoari egindako kritika horretatik datozen bi ideia (P27IR.Topaketa.UPV/EHU. Kolonbia).*

“Nor garen” eta “gure jarrera” aintzat hartzea gorputza bizi garen lurraldea dela oharrekoa da, politikoki eta kulturalki eragindako eta moldatutako lekua, baina hor, ikerketa-eredu nagusi eta sistemaren berresleari aurre eginez, erresistentziak ere sortzen ditugula:

*Ikerketa etxekotzeko ariketa batean irakatsi digute. Etxekotze-prozesu horren aurrean, bada gorputza zeharkatu behar duen prozesu bat, eta, horretarako, zer garen ulertu behar dugu (P28IR.Topaketa.UPV/EHU. Kolonbia).*

Gorputzera hurbildu, bizitzaren defentsarako borrokarako lehen lurraldea den aldetik, eta, aldi berean, horrek lurraldeei ekiteko aukera zabaltzen du, gizarte-aldaketarekin konprometitutako ezagutza eraikitzeko. Ezagutza kritikoa ekinean ari diren komunitateen borroka historikoetan ehundutako biografietatik abiatzen da, baita elkarren berri ematen dioten lurraldeen esperientzietatik ere. Bahareque talde herrikoiko gazte batek honela aztertu zuen lurraldean oinarrituta ezagutza kritiko emantzipatzailea sortzeko aukera:

Nik uste dut ezagutza kritiko emantzipatzailea eraikitzea lurraldean egotea dela; lurraldean gaudenez, geure burua benetan prestatzen ari gara, eta eraikitzen ari gara, sendotzen, aldatzen, gehitzen, pentsatuz zenbateraino den bideragarria eta beharrezkoa egin nahi den ikerketaproposamena. Eta lurraldean egoteak jendearekin, komunitatearekin eta konfiantza ehuntzearekin ere badu zerikusia, eta konfiantza ehuntzeak bere denbora eskatzen du. Akademian denborak zailak dira, aurrekontuak baldintzatutako logika baten arabera neurtzen baitira; denbora mugatua da, ikertzaileak ere baldintza batzuk bete behar baititu, espazioan egotea galarazten diotenak. Horregatik, funtsezkoa da, halaber, akademiak ikerketa nola egiten duen pentsatzea, baina nik uste dut egin daitekeela, egin dezakegula, ez dugu behar akademiak aukera edo baimena ematea, baizik eta uste dut egin daitekeela akademian borroka hori egiten dugun bitartean (P36KS.Topaketa.USCO.Kolonbia).



Bestalde, ikuspegi interseksionala eta feminismoetan oinarritutako jarrera agerian geratu ziren esperientzia pedagogiko hau osatzen duten espazioetako hitzetan eta sentimenduetan. Proiektu feministak erabat zalantzan jartzen du akademia konbentzionalak egiten duen teoriaren eta praxiaren arteko bereizketa. Eztabaida feministak ez ziren posible izango mugimenduaren izaera bikoitzik gabe: alde batetik, ideia-iturri delako (nola pentsatu eta jardun munduan),

eta, bestetik, proiektu mobilizatzailea eta eraldatzailea delako. Mugimendu feministak zubiak egiten ditu beste lurralde batzuekin, beste esparru batzuetako arazoak eta eskaerak biltzen ditu, eta bere gogoeta teorikoaren eta praxiaren parte bihurtzen ditu.

Menderatze-ardatz desberdinak (etnia/arraza, gizarte-klasea, sexua/generoa, adina...) elkarrekin lotzeari buruz gogoeta egitea funtsezkoa da Mendebaldeko paradigma kognitiboa zalantzan jartzeko eta hura eraldatzeko pitzadurak planteatzeko. Antirrazista, antikoloniala eta antipatriarkala: printzipio horiek eztabaidagai dira emantzipaziorako ezagutza kritiko horretan, eta haren helmugan daude. Hona hemen Re-existencias ikerketa-haztegiko gazte baten gogoeta, ikuspegi feministetatik eraikitako elkarrizketei eta horizontaltasunean eta zerbaiti heldu ahal izateko ahalmenean oinarritutako ezagutza sortzeko orduan duten garrantziari buruz:

*Printzipio antipatriarkala, komunitateetan emakumeak oso eragile garrantzitsuak direla ulertzea; beraz, zuzentzen duena, hitza duena gizona dela dioen logika desegitea. Antikapitalismoaren printzipioa ere bada; izan ere, akademia/gizartea lotura sortuko bada, ez da sortuko pertsoneri gizatasuna kenduta eta haiek produktu modura hartuta, baizik eta haien subjektibotasun osoa onartuta. Oso deigarria egiten zitzaidan, halaber, alderdi antikolonial hori guztia; izan ere, beste kultura edo beste herri batzuetara iritsi behar badugu, ez dugu joan behar "ni izango naiz inposatuko dudan autoritatea" jarrerarekin, zeren eta, orduan, logika kolonialei jarraituko diegu; hain zuzen, ustez desegiten saiatzen ari garen logikaren arabera jokatu dugu. Hezkuntza emantzipatzaileak, berriz, hautsi egiten du "nik daukat jakintza, nik daukat boterea" dioen diskurtsoa (P25IK.Topaketa.USCO.Kolonbia).*

*Bihoztea (corazonar; Guerrero, 2010) da ezagutza kritiko emantzipatzailea nola eraikitzen dugun pentsatzean sortzen den beste elementu bat. Postulatu sismiko bat da, ekinean ari diren komunitateetan sortua, arrazionaltasun moderno-mendebaldarraren dualtasun kartesiarra, zeinak afektibitatea, emozioak eta sentipena kolokan jartzen dituen, interpelatzeko. Herrien borrokatik eta haien egunerokotasunetik sortzen den apustu hori Fals Bordaren lanarekin lotzen da, bai eta sentipentsatzea (Escobar, 2016) potentzia epistemologiko gisa onartzearekin ere, ezarritako dualtasuna gaingitzea proposatzen duena eta afektibitatea eta pentsamendua estu lotuta daudela dioena.*

Ikuspegi kritiko horiek guztiek ikertzeko modu *bestelakoetan* pentsatzeko aukera ematen dute, ezagutza zientifikoaren eta gizarte-ezagutzaren arteko artikulaziotik abiatuta. "Zientifikoaren" zentzua aldatzea proposatzen dute, horren zeregina konpromiso etiko eta sozialera bideratuta, horrek ateak irekitzen baitizkie akademia gisa jarduteko eta izateko modu desberdinei.

### 4.3.3. Hierarkiak iraultzea ezagutzaren ekoizpenean

Funtsezkoa da ikertzailearen lekua aintzat hartzea, hierarkiak eta pribilegioak errepikatzeko dauden modu anitzak gainditzeko, eta horrek, aldi berean, eskatzen du ikerketa politizatzea eta ikerketaren zentzuaz galdetzea. Zentzu horren barruan, ezagutza konprometitua sortzea eta komunitate kritikoa eraikitzea dago, eta lan hori borroketako eta gizarte-prozesuetako protagonistekin artikulatuta egin behar da:

*Pribilegioen problematizazioan ere sartzen da guk geure burua ikertzaile gisa eraikitzea. Pribilegioak problematizatzeko beldurra sortu digute.... Zentzuak auzitan jartzeak ikerketaren ariketa politizatzea eskatzen du. Eta politizatzeak, bestalde, gure lekua ikustea eta munduan eta gure eztabaidetan pentsatzea eskatzen du; zer epistemetan oinarrituta ari garen hizketan.... Ikertzen dugunaren "zertarako" horri desafio egingo dio ikerketaren eraikuntzak. Gure egoa puzteko ikertzen dugu? Edo ikerketa kokatu eta konprometitu baten ikuspegi estetiko-politiko batean planteatzen dugu, geure burua, komunalitatea, elkartze epistemikoa, metodologikoa eta kolektiboa eraikitzeko?... Zentzuen eztabaida ez da unibertsitateko abangoardia intelektualean egiten, baizik eta komunitateetan (P28IR.Topaketa. UPV/EHU.Kolonbia).*



Ikertzailearen pribilegioaren aurrean, akademiak isilarazi eta baztertu dituen protagonismoa ematea proposatzen dugu, berdin arteko elkarrizketaren alde eginez, "objektuaren" rola gainditu eta beren errealitatea ezagutzeko eta eraldatzeko "subjektu" aktibo bihurtzeko. Ezinbestekoa da historikoki mendekoak izan diren kolektiboetan oinarrituta eta haiekin batera sustatzea ikerketa-ariketa. Gainera, kolektibo horiek jakintza-ekoizpenaren bazterretara bidali izan dira:

*Historikoki ezagutza sortu, eskuratu eta erabiltzetik baztertu izan direnekin batera. Entzun ez diren ahotsekin lan egin behar da, elkarrizketa horretan irmo sar daitezen (P351R.Mintegia.UPV/EHU.Kolonbia).*

Rikerketan bertikaltasuna hausteak autokritika egitea dakar gure jardunari buruz, zeinak gehienetan antolakuntza- edo komunitate-prozesuak ez dituen aintzat hartzen, eta batzuetan gutxietsi ere egiten dituen. Herri-hezkuntzak premisak sortzen ditu hoberentzat jotzen diren ezagutzen eta beheragokotzat jotzen direnen arteko hierarkiak gainditzeko. Ikertzen duenarengan ikasteko gogoaren etika txertatzen duen proposamena da:

*Ikertketaren zentzuari dagokionez, herri-hezkuntzak zenbait gaitasun eta trebetasun indartzen ditu hezitzailearengan, zeina aldi berean, ikasle den; gaitasun horiek ikerketaren alorrera eramaten dira eta oinarrizkoak dira, hala nola apaltasuna. Hau da, bizitzak eta akademiak emandako esperientzian oinarritutako ezagutza duten ikertzaileek ulertu eta jakin behar dute ezagutza hori, baliagarria izango bada, ezin dela jakintza handiustea izan. Hala, akademia tradizionalak indartzen duen harrokeriatik asko urrundu behar dugu, eta ikasteko leku eta jarrera bat aukeratu (P211R.Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Unibertsitatean kokatzen garenok kanpoko eragile-roletik urrundu behar dugu, eta komunitateko gizarte-prozesuetan aktiboki parte hartu. Akademiako elementu interesgarriak aprobeixatu behar ditugu gogoeta kritikoa egiteko lan egiten dugun komunitateekin batera:

*Prestakuntza akademian jasotzen dugunok ezin ditugu ahaztu borrokan ari diren sektoreak, haiei zuzendua baitago eraldatzeko aukera. Sektore horiekin gogoeta kritikoa egin behar dugu. Ezin dugu komunitateetatik kanpoko eragileen rola bete. Haiekin zentzuz identifikatu behar dugu. Haiekin ekintza eta gogoeta kritikoa egin behar dugu, akademiaren elementuak erabiliz. Aurrekoa kontuan ez hartzea asistentzialismoa errepikatzea eta gure pribilegio akademikoak zalantzan ez jartzea da (P371K.Topaketa.UPV/EHU.Kolonbia).*

Ezagutza eraikitzeke prozesuetan hierarkiak hausten saiatzen garenean agertzen den beste ertz batek zerikusia du ikerketa eraldatzailea egiteak guretzat duen esanahiaren eta ditugun baldintza materialen artean gertatzen diren tentsioekin, dela ikerketaren testuinguru soziopolitikoan, dela akademian. Alde batetik, emakumeak eta haien interesak presente egoteko dagoen zailtasuna nabarmendu behar da, eta, bestetik, akademian hezkuntza emantzipatzaileko proposamenik ez izatea, ikerketa kritikoa onartzen laguntzen duen estrategia gisa:

*Ikerketa eraldatzailea izango litzatekeenaren irizpideetako bat da, gure ikerketa planteatzen dugunean sakon-sakonean daukagun ametsa, nahiz eta ez izan feminismoan oinarrituta egindako ikerketa, alegia, emakumeen ahotsa eta ikerketa planteatzen duen pertsonaren bihotzean dauden gai horiek guztiak jasota geratzea. Baina errealitatea beste bat da, eta lurralde- eta politika-testuinguruarekin du zerikusia, bai eta muga akademikoekin ere, hezkuntza emantzipatzailea kontuan hartu gabe pentsatuta dauden zenbait formatutan sartuta daudenak (P38KS. Mintegia.UNICAUCA.Kolonia).*

Ikerketan genero-harremanak duten lekuari buruzko gai horrek –zenbait testuingurutan zaila izan ohi da tratatzen– testuinguruaren garrantziari buruzko gogoeta egitera eraman gintuen, eta konturatzeraz zenbait desberdintasunek (patriarkatua, kolonialismoa, arrazismoa eta klasismoa) zeharkatutako talde heterogeneoekin lan egiten dugula. Opresio horien jarduteko moduak ezin dira alde batera utzi ikerketa kritikoa sustatzeko interesetik, eta horrek lagundu egiten digu ez idealizatzen, ez gure ezagutza-eraketa, ezta kolektiboak non lan egiten dugun.

#### **4.3.4. Komunitateen errealitate, arazo eta borroka historikoei erantzutea**

Ezagutza emantzipatzailea eratzeko, ezinbestekoa da ikerketa-jarduera dagokion komunitatearekin eta lurraldearekin lotzea. Atal honetan ikusiko dugun moduan, komunitatearekin berdinen arteko elkarrizketa edukita eta lurraldeko beste eragile batzuekin diziplinarteko eta kulturarteko elkarrizketa edukita egiten da hori.

Tradizionalki, ezagutza sortzea ikasgelan egiten den lantzat hartua da, eta gizaritari buruzko azalpen akademikoan mugekin eta aukerekin lotutako galderei erantzuten die. Planteamendu hori arazotsua da, gutxienez bi zentzutan. Alde batetik, akademia eta gizartea bereizi egiten ditu, eta horiek erakunde autonomotzat hartzen dira, edo bakoitza ingurune batekotzat, eta, bestetik, ezagutza, batez ere, ingurune horietako bati –akademikoari– dagokion gai nagusitzat hartzen du. Horrela, ikuspegi instituzionalaren arabera, ezagutzaren ekoizpenak

zentzua hartzen du unibertsitate-erakundearen beraren barne-dinamiken legitimitzaile den aldetik, eta, aldi berean, parte hartzen duen gizarte-inguruetik are gehiago urruntzen da. Bestalde, ikerketa-lanari bide ematen dioten galderak teorioren inguruko barne-etzabaiden dinamiketarik sortzen dira, ikerlariak errealitatearekin duen konpromisotik baino lehenago.

Hezkuntzan eta ikerketan ikuspegi kritikoa barneratzean, uste dugu proiektu baten garrantzia kolektiboek, zeinak antolatu eta arazoak konpontzen saiatzen diren, sentitzen dituzten arazoei erantzuteko duten gaitasunetik datorrela. Lan akademikoaren alderdirik adierazgarriena ez da haren berritasuna edo modako esparru teorikoetara egokitzen den edo ez, baizik eta egokitasunetik eta demokratizatzeko konpromisotik datorkio.

Ezagutza kritikoak pertsona ahulenek eta erresistentzia-egoeran dauden komunitateek bizi duten errealitatearekin lotuta egon behar du. Gizartea eraldatzeko balio duen talde-ezagutza eratzeko, lurraldeetako gizarte- eta historia-prozesuekin hitz egin eta hausnartu beharra azpimarratzen dugu:

*Prozesuak sortu komunitateekin batera, haiek izan daitezela prozesu horien jabe, ikerketa-subjektu izan daitezela, laguntza tekniko eta akademikoak gorabehera. Horrela egitea lortzen badugu, gizartea eraldatzeko balioko duen jakintza kolektiboa sortzeko prozesu lotesleak garatzen ariko gara. Horrela ulertzen dugu guk gizarte-ikerketa, eta horrela nahi dugu ikerketa hori gizarte-taldeentzat tresna erabilgarria izatea gizarte-justiziaren bilaketan (P391R.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Kolonbian baditugu zenbait adibide argi eta garbi erakusten dutenak nola garatzen diren zenbait ikerlan, aztergaia gainditu, eta lurraldeen borroka emantzipatzaileekin eta kalean egiten dituzten mobilizazioekin artikulatzen direnak. Zer gertatzen ari den ulertzen, kontzientzia hartzen eta arazoei irtenbideak elkarrekin bilatzen, hau da, gizarte antolatu baten eta errealitateari adi eta lurraldearekin konprometituta dagoen unibertsitate baten artean, laguntzen duen ikerketa mota bat da:

*Ikerketa honek bat egin zuen 2021eko geldialdiko mobilizazioekin. Mobilizazio-larrialdibatek milaka pertsona mobilizatu zituen. Unibertsitateek ere bat egin zuten geldialdiarekin, eta zer gertatzen ari ote zen pentsatzen hasi ziren. Mobilizazio haiek gure ikerketa-ikuspegia interpelatu zuten. Eskatera feministak beste borroka batzuekin lotu ziren. Gizarteak ezin zuen gehiago jasan gertatzen ari zena.... Etnografia Lantegia ikerketa-haztegi, gizarte-leherketarekin zer gertatu zen eta Unibertsitatearekin zer gertatzen ari zen ulertzen saiatu ginen.... Unibertsitateko gizarte-protestari buruzko eztabaidak egin genituen, protestaren gogoeta akademiara ekartzen asmatzeko. Ikerketa-prozesuaren barruan bertan ere*



egin genuen gogoeta. Ikerketa-prozesua bera gainditu genuen (P271R. Topaketa.UPV/EHU.Kolonbia).

Komunitateekin haien arazoei buruz hitz egiteko, ontologiak eta beste jakintza batzuk berreskuratu behar dira, unibertsitateetako kaiola epistemikoetan harrapatutako Mendebaldeko jakintza kolonialaren monopolioa hausten dutenak. Lurraldearen aldeko ekintzaile eta Los Jaguos taldeko kide batek ezagutza kritiko emantzipatzailea sortzeko apustu horretan kapitalismoa desikasteak eta komunitate-erakuntzako prozesuei ekiteak duen garrantzia azpimarratu zuen:

...Txip hori aldatzen hasteko, desegituratu egin behar ditugu inkontziente horiek, jendeak dituen logika merkantilisten barne-mundu horiek, urak, biziak, zuhaitzek, animaliek... bakoitzak irabazten duenagatik, janzten den moduagatik edo ikusten den moduagatik balio duela diotenak, eta, egiazki, giza balioak eta gizaki sentibera, harritzeko gaitasuna duen gizakia, sentitzen duen gizakia berpiztu daitezela. Berrito sentitu beharra daukagu.... Nik dakidana da elkartu eta elkarrekin trukatu behar dugula, elkarrekin eraiki, eta ezagutza parte-hartzailea, kolektiboa eta interseksionala sortu (P30KS.Mintegia.USCO.Kolonbia).



Beste jakintza horiek ezagutzeak eta akademian betidanik izan diren jakintzekin hitz egiteak berekin dakar, halaber, teoria/praktika erlazioari buruzko gogoeta egitea, bai ikerketa-ariketa definitu eta zehazteko orduan, bai hura gauzatzeko orduan. Teoria/praktika binomioa hausteko ideia hori, eta, aldi berean, “dakitenen” eta “ez dakitenen” arteko hierarkiak hausteko ideia akademia komunitateko gizarte-, politika- eta antolaketa-prozesuetara hurbiltzeko bide posible gisa ikusten da:

*Beste erronka handi batean ari nintzen pentsatzen... Unibertsitatearen eta Gizartearen arteko harremanak aldatzeko beharrezko elementuak... ez dakit nola deitu, ez dakit hala esan, teorikoaren eta praktikoaren artean harmonia hori lortzeko.... Nire esperientzian, gizarte-erakundeetan, bereizketa hau identifikatu dut: akademikoak edo “gehien ikasten dutenak”, nolabait esateko, eta eskulangileak, “inurri-lana” deritzona egiten dutenak. Orduan, batek beti ikusten ditu horrelako tentsioak, gehien ikasten dutenak honelakoak esaten dituztenean: “Zuek ez duzue ikasten; prestakuntza politikoa non geratzen da, lagun?”, eta besteek kontrakoa: “Liburuak irakurri baino ez dute egiten, eta ez daude jendearen ondoan oinarrizko lana egiten” (P37IK.Talde fokala.UNICAUCA. Kolonbia).*

Bestalde, “justizia epistemikoa” egiteak zerikusia du, ez bakarrik baztertu diren jakintzak barneratzearekin, baizik eta baita eztabaida honekin ere: prekarizazio-testuinguruetan ikasketak egitea lortu dugunok nola parte hartzen dugun eta nola laguntzen dugun komunitatearen beharretan:

*Hau da, eztabaida, ikusmolde teoriko, bilduma akademiko sakonak ezagutzeko pribilegioa izan dugunok hori komunitateetara iristen laguntzeko betebeharra dugu. Hori justizia epistemikoaren parte da. Kontua ez da baztertutako jakintzak barneratzea bakarrik, baizik eta hezkuntzaren pribilegioa izan dugunok ere gizarte-justizia handiagoa eraikitzeko prozesuetan eta beharrezkoak garen horietan laguntzeko prest egotea (P40IR.Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Argi dago beharrezkoa dela ikerketa-prozesuak komunitatearekin lotzea, eta horregatik dago berdinaren arteko elkarrizketa sortzeko interesa. Kezka horri beste gogoeta bat gehitu behar zaio, lurraldean parte hartzen duten beste eragile batzuekin elkarrizketa diziplinartekoak eta kulturartekoak ekiteari buruzkoa. UNICAUCAREN prozesuan parte hartu zuen irakasle kolonbiar batek adierazi zuen lurraldeetan badirela gizarte-eremukoak ez diren espektatibak eta jakintzak dituzten beste eragile batzuk, eta haiekin ere harremana eta trukea izan behar dela:

*...batek akademiatik eta unibertsitatetik atera nahi duenean, beste jokaleku batzuetara iristen da, eta hor nahitaez komunitatea izan behar ez duten*

*beste eragile batzuekin topo egiten du; erakundeetako eragileak izan daitezke, lankidetzako eragileak, gremioetako eragileak... beste diziplina batzuetatik datoz, adibidez, natura-zientzietatik, ingurumen-zientzietatik, osasun-zientzietatik... (P41IR.Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Gai horri berari buruz, Caucako Unibertsitateko Garapenari buruzko Diziplinarteko Ikasketen Maisutzak era askotako elkarrizketen garrantzia planteatzen du, ikuspegi politikoa eta emantzipazio komunitarioaren ikuspegia murriztu edo alde batera utzi gabe, baina betiere kontuan izanik zenbait eragilerekin batera (eta, beraz, zenbait ezagutzarekin) hausnartu beharra dagoela analisi-esparruak zabaltzeko eta lurraldeetako ekonomia eta halako kezka konplexuei erantzunak aurkitzeko:

*...nolabait, guk gizarte-erlaketan prozesuetan pentsatzen dugunean beti pentsatzen dugu organizazioen ahalduzko politikoko prozesu gisa, eta organizazioek nola har dezaketen jarrera hobea, adibidez, Estatuaren aurrean... dimentsio horretan, eremu alternatiboan oinarrituta eraiki beharko liritekeen ekonomia-ereduetan pentsatzea da, eta horri gogoeta erantsi behar zaio, prozesua erantsi behar zaio, ekonomia-arloko erreferente horien eztabaida zabaldu behar da... Gu, neurri batean, hasi gara ikusten ahalegin batzuek historikoki kontuan hartu ez ditugun beste sektore batzuekin elkarrizketatzea eskatzen dutela (P40IR.Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Hala, ikerketa emantzipatzaileak ez lituzke baztertu behar historikoki gizartetik urrundu diren diziplinetatik datozelako kontuan hartzen ez ditugun jakintzak eta ezagutzak. Halaber, funtsezkoa da komunitateetan egon arren antolakuntza-egituretan parte hartzen ez duten baina beren esperientziarekin eraldaketarako ezagutza eratzen lagundu dezaketen eragileekin elkarrizketak sustatu eta saiatzea.

#### **4.3.5. Komunitateak ikerketan parte hartzea eta ikertzaile kritikoei laguntzea prozesu sozialetan**

Unibertsitateak ezin du bakartuta jarraitu lanean. Subjektuekiko harremanak eta topaketak ez du soilik ezagutza gizarteratzeko orduan gertatu behar, subjektuek ikerketa-prozesuaren hasieratik egon behar dute, ezagutza eraldatzaile bat eraiki nahi badugu:

*Ikerketa sozialeko prozesu batek modu aktiboan inplikatu behar ditu ikertu nahi dugun horrekin zerikusia duten edo eragiten dien pertsonak (P21IR.Mintegia.UNICAUCA.Kolonbia).*

Geure burua testuinguru akademikokotzat jotzen dugunon parte-hartzea ere funtsezkoa da. Bat-egiteak eta konpromisoak ahalbidetzen dute ikerketa ezagutu eta ulertzea, eta subjektuen behar, eskaera eta espektatibekin lotzea, haiekin elkarreaginean ari baikara eta ikerketarako bidea ematen duten hainbat harreman eraikitzen baititugu.

Subjektu eta komunitate konprometuekin batera ikerketa-ariketa bat egiteak esan nahi du aintzat hartzea haiek gizartean parte hartzeko eta antolatzeko dituzten moduak, jakintzak eta ezagutza sortzeko berezko moduak, eta jakinik ere bai ezagutza horiek ere ez daudela botere-harremanetatik salbu:

*“Kaltebera” edo “baztertu” deitzen ditugun kolektibo horiek parte hartzeko eta beren burua antolatzeko mekanismoak dituzte... beren prozesu politikoak dituzte, askotan ikuspegi asistentzialistatik begirutzen badiogu ere haien parte-hartzeari (P14IK.Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

*Bestalde, ez da ahaztu behar historikoki menderatuak izan direnen artean ere kontraesanak eta botere-harremanak daudela (P35IR. Mintegia.UPV/EHU.Euskadi).*

Parte-hartzearekin lotura estua duen gai bat ikerketaren “itzulketa” da. Funtsezkoa da ikerketaren emaitzak gizarteratzea, subjektu protagonistengan eta lortu nahi ditugun aldaketetan eragin onuragarria izan dezaten. Ikerketa-prozesuan sortutako ekarpenak estraktibismo epistemikoan erori gabe jakinarazi eta kolektibizatzeke, subjektu protagonistekin pentsatu behar da hori nola egin, eta, aldi berean, informazioa kontu handiz zaindu behar da, boterea dutenek erabil ez dezaten:

*Nire kasuan, oso kontuan ditut mintegiak. Orain fase teorikoan nago, baina nire buruan bueltaka ari da ezagutzaren kolektibizazioaren gaia, ezagutzaren itzulketa... Eta hor modu etikoan eta begirunez kokatzen naiz; lehendik ere banuen ikuspegi hori, baina orain ez nau beldurtzen jarrera kritiko, dekolonial eta feministatik hurbiltzeak, ez baitut estraktibismo epistemologikorik egin nahi.... Sortu zitzaidan beste kezka bat izan zen kontu handia izan behar dudala idazten dudanarekin, megameatzaritzari informazioa emateko ere balio dezakeelako... galdetuko dut nola egin ezagutza ez sortzeko eta botereari botere gehiago ez emateko. Estraktibismoko testuinguruetan, enpresek pertsonak kontratatzen dituzte, gizarte-dinamikak ulertzeko eskolak sortzen dituzte.... Kezkatzen nau nire lanak prozesu sozial eta politikoak deuseztatzeke gakoak emateak (P23IK. Talde fokala.UPV/EHU.Euskadi).*

Elite nagusiek, ekonomikoek eta/edo politikoek ikerketa-prozesuen emaitzak aprobeztatuko dituzten arrisku hori Kolonbian arazo larria da komunitateentzat:

*...iherketa akademikoak planteatzen dituen arazoen barruan beste hau ere badago, alegia, unibertsitateek eta gizarte-ikerzailleek komunitatearen arazoak diagnostikatzeko balio dugu, baina lurraldeek zer baliabide dituzten, lider garrantzitsuenak zein diren eta halakoak ere agerian jartzen ditugu... esan dezagun hori arazoa dela komunitateentzat, azkenean oso informazio garrantzitsua eta zentrala ematen dugulako, baita multinazionalei eta lurraldean jendeak nola jokutzen duen jakin nahian ari diren estatuaren erakunde guztiei ere.... Organizazio askok arazo larriak dituzte lurraldeetan, unibertsitateek ikertzen dituztelako, hau da, guk geuk zabaltzen dugulako ezagutzaren informazio hori guztia, eta, azkenean, boterearen talde ekonomikoek bereganatzen dutelako (P42IK.Mintegia. UNICAUCA.Kolonbia).*



Iherketa gizarte aeraldatzeko proiektuaren aldetik, ezagutza emantzipatzailearen ekoizpenean kontuan hartu behar da gurekin lanean ari diren pertsonen, iherketa-taldearen beraren eta emaitzen zaintza. Besteak zaintzea, geure burua zaintzea eta bizitza zaintzea da ezagutza kritikoa hegemonikotik bereizten duen printzipioetako bat; izan ere, ezagutza hegemonikoan dinamikarik ohikoenak asistentzialismoa, instrumentalizazioa eta estraktibismoa dira. Honela adierazi zuen Kultura Politikoa Sustatzeko Saiakuntzen Korporazioko kide batek, jarrera etiko horrek pertsonen bizitza aldatzen laguntzen duela azaltzearekin batera:

*Ardurari dagokionez, pertsonak eta iherketaren emaitzak zaintzea funtsezko jarrera etikoa da, gu geu eta laguntza eta konfiantza eman*

*diguten pertsonak arriskuan ez jartzeko. Ez da soilik ezagutza-nahia, baizik eta pertsonen bizitza eraldatzen duen ezagutza (P34KS.Mintegia. UNICAUCA.Kolonbia).*

Gainera, ezagutzaren gizarte-eskuratze hori egiteko, funtsezkoa da formatu egokiak aurkitzea; izan ere, azken finean, helburua da ikerketa-prozesuaren bidez pentsatzen eta aldaketa-aukerak planteatzen jarraitzea. Hala, oso interes handiko estrategia da subjektuekin eta komunitateekin ikerketa-ariketaren emaitzak zabaltzeko moduei buruz gogoeta egiteko guneak sortzea:

*Argitaratu dugun fanzineko lan grafikoa egiteko talde feminista batekin aritu gara. Fanzinean ageri den txirikorda ez da apaingarri hutsa.... Ikerketa-prozesu hau gogoeta kolektiborako gune gisa pentsatua da. Materialak ikerketatik ateratakoa mugimenduan jartzeko modu bat izatea eta pentsatzen jarraitzeko balio izatea nahi genuen (P271R.Topaketa. UPV/EHU.Kolonbia).*

#### 4.4. Ekintza kolektiboetatik sortzen diren ikaspenak

Artikuladxs proiektuaren hasierako interesetako bat da ekintza kolektibo emantzipatzailearen prozesuen potentziala aztertzea eta unibertsitate-komunitate kritikoen bidez nola indartu daitezkeen aztertzea. Kolonbiako eta Euskadiko esperientzietatik abiatuta, mobilizazio sozialeko prozesuak jakintza-iturri direla aldarrikatzen dugu, eta, beraz, haien balioa aitortzea ezinbestekoa dela akademiaren eta gizartearen artean zubiak ezartzeko. Zubi horiek, aldi berean, ezinbestekoak dira gizartea eraldatzeko ezagutza garrantzitsua sortzeko.

Talde-ekintza emantzipatzaileak norberaren esperientziari lotutako jakintzak sortzen ditu. Interes bereziko praktikak dira, eta sistema hegemonikoaren orno nagusiak agerian uzten laguntzen dute; haren pitzadurak eta “nukleo gogorrak” aurkitzen dituzte, eta sistema hori aldatzeko estrategiak eman.

Gizarte-mugimenduek eta komunitateek sortutako jakintzak funtsezkoak dira akademiarekin elkarriketa kritikoa izateko. Elkarreragin horretan, ezagutza berriak sortzen dira, akademiaren ekarpenetatik –prestakuntza, ikerketa eta hedapenari dagokionez– eta kolektibo eta komunitateen erresistentziaren barruan sortutako hezkuntza-estrategietatik abiatuta.

Unibertsitatea/Gizartea artikulazioan, batetik, zientzia kritikoa sortzeko espazioak bilatzeko mobilizatutako kolektiboak biltzen dira, eta, bestetik, akademia kritikoko eragileak, eraldatzen ari diren gizarte-espazioekin aliantzak egiten dituztenak. Hortik globalizazio kapitalistari aurre egiten dioten praktika, ikaskuntza eta jakintza bihurtzen diren topaketak sortzen dira.

Aldaketarako garrantzitsua den ezagutza nola sortzen den eta beste komunitate batzuetara (sozialak eta akademikoak) nola zabaltzen den jakiteko elkarren arteko ikaskuntza hori interes handikoa da Articuladxs taldearentzat. Horregatik, sistematizazio-prozesuaren bidez, galdera hau erantzuten saiatu gara: Nola eutsi eta iraun akademia/gizartea konexioaren bidez? Nola sortzen da jakintza ahalduntze-lotura horietatik? Nola bihurtzen dira jakintza horiek ekarpen eraldatzaile?

Hurrengo ataletan, bultzatu dugun akademia-gizartea artikulazio prozesuan sortutako emantzipazio-ekintza kolektiboaren hausnarketatik ateratako gogoetak aurkeztuko ditugu. Honekin guztiarekin zerikusia duten ikaspenak dira, besteak beste: elkarrizketa kolektiboa eta artikulazioa; subjektu politikoen parte-hartzea; lurraldearen balioa; proiektu politiko partekatu baterako konpromisoa, eta unibertsitatearen eta aldaketa emantzipatzaileen arteko lotura.

#### 4.4.1. Elkarrizketa kolektiboa eta artikulazioa

Lehenengo ikaspen esanguratsua da agentzia- eta kontzientzia-moduak (identitateak, bizimoduak, praktikak, jakintzak, komunitateak eta kulturak) eztabaidan jartzea, pentsamendua taldean eta taldearentzat sustatuko duten sorkuntza- eta ahalduntze-artikulazioak eratzeko estrategia gisa:

*Modu kolektiboan pentsatzeko eta talde-pentsamenduaren helburuak ateratzen dira elkarrizketan... ez norberaren buru-jardun modura, baizik eta taldean, komunitatean pentsatzea, elkarrizketaren bidez; horregatik dira garrantzitsuak subjektibotasunaren kategoria eta subjektu sozialaren kategoria (P211R.Topaketa.UNICAUCA.Kolonbia).*

Artikulazioa, ikuspegi horretatik begiratuta, ezagutza partekatzeaz eta elkarrekiko kontzientzia erakusteaz harago doan ahalegina da. Tradizioen eta jokalekuen aniztasunetik estrategia eraldatzaileetara jotzen duen horretan sakontzeko aukera ematen du. Hala, artikulazio horrek forma plural konplexuetan eta trinkotasun kolektibo sakonean biltzen gaitu.

Gizarte-eraldaketarako ezagutza ez da soilik praktikatik eta truketik sortzen; hala ere, gure ustez, zenbat eta gehiago hurbildu elkarrizketara eta zenbat eta handiagoa izan eraldaketako subjektuen inplikazioa, orduan eta handiagoa izango da eraldaketarako aukera. Soziala den horren irakurketa kritikoak eta sakonak haren eraldaketa bilatzen duten indar politikoekin artikulatzea lortzen duena da ezagutza eraldatzailea. Ez da, beraz, prozesu teorikoa eta mugatua, baizik eta praktikoa eta eraikitzen ari dena. Ezagutza modu desberdinak eztabaidatzeko eta ezagutza zientifikoaren ustezko neutraltasuna zalantzan jartzeko aukerarekin lotuta dago. Horri dagokionez, prozesuan parte hartu zuen batek kritika hau egingen zion gizarte-konpromisotik bereizitako ezagutza-ekoizpenari:

*...Cauca iparraldean, etengabeko elkarrizketak sortzearen aldeko apustua egin da: nola sortzen den ezagutza, zer erabilera duen ekoizten dugun ezagutzak eta nola hitz egin dezakegun beste leku batzuetatik artikulazio- eta gizarte-eraldaketako prozesuak sortzeko, eta, batez ere, gurekin batera lanean ari diren pertsonekin etikoki arduratsuak diren prozesuak sortzeko (P11K.Mintegia.UNICAUCA. Kolonbia).*

Ikerketa komunitateekiko, prozesuekiko eta borroka sozialekiko elkarrizketara irekitzen denean, ikerketa eta prestakuntza akademikorako galdera garrantzitsuak sortzen dira. Irekitze horrek gai nagusi batera garamatza jakintza zientifikoari dagokionez: neutraltasunaren deuseztapena, eta konpromisoa eta gizarte-onura eraldatzailea duen zientzia baten eskaera. Metodo zientifiko ukaezin batetik sortutako pentsamolde bakarraren ideia ez da bideragarria; bestalde, funtsezkoa da ezagutza eraikitzeke hainbat ikuspegi eta bide ezagutu eta elkarrizketan jartzea:

*CRISSAC<sup>9</sup> taldean hitz egiten hasi gara pentsamolde bakar baten eta metodo zientifikoan soilik oinarritutako ikerketa baten ordez proposamen alternatiboak eratzen ari diren beste gizarte-sektore batzuekin. Baina esaten ari gara metodo zientifiko horrek bide-aukera zabaldu egin behar duela, hala nola aniztasun metodologikoa edo pentsatzeko beste modu batzuk erantsi; adibidez, pentsamolde konplexua edo pentsamolde ehundua. Denok denokin harremanak izatea bezala da, ez bakarrik indigenekin, gure lurraldeetan hori ez baita indigena edo gutxiengoaren populazioen arazoa soilik; hala, denon artean eratu behar ditugu sareak eta ehunak gure ibaiak eta mendiak defendatzeko (P321R.Mintegia. UNICAUCA.Kolonbia).*

---

9 Jakintzen eta Ezagutzen Hazkuntza eta Ereintza (Crianza y Siembra de Sabidurías y Conocimientos - CRISSAC) Caucaoko Eskualde Kontseilu Indigenaren Kulturarteko Unibertsitate Autonomoko Kulturarteko Hezkuntza Elebidunaren Programaren barruan sortutako ekimena.





Azken finean, funtsezko ikaspenetako bat beharrezkoa den artikulazioa da, plurala eta sortzailea, elkarrizketa sortzeko askotariko praktika eta jakintzen bidez, aldaketarako garrantzitsuak diren ezagutzak sortzeko:

*Ikerketa zientifikoaren esparruko ikerketa-proiektuen logikak irtenbideak aurkitzeko bere ekarpena egin dezake, bizitzeko beste modu batzuetan, elkarrekin bizitzeko beste modu batzuetan pentsatzeko aukera emango diguna, eta, orduan, horrela bakarrik izango dugu aukera horri aurre egiteko, ez pentsamolde bakarrean oinarrituta, baizik eta pentsamolde edo ezagutzen arteko elkarrizketan (P43IR.Topaketa.USCO.Kolonbia).*

#### 4.4.2. Komunitatean eraikitako subjektu politikoaren parte-hartzea

Aurrekoarekin estu lotuta, erresistentzian bizi diren komunitateetatik sortutako jakintzak bilduko dituzten eta gizarte-eraldaketa nabarmenak sortzeko balio duten unibertsitateak eratzearen garrantzia ikusten dugu. Ezagutzen arteko elkarrizketa posible da horiek askotarikoak eta osagarriak badira, batek bere logikan irentsi gabe gainerakoak. Ezagutza bat benetan baliozkotzat jotzeko funtsezko irizpideak haren ahalmen eraldatzailea izan beharko luke:

*Lortu nahi dena eraldaketa bada, balioa ezagutzaren ondorio eraldatzaileekin lotuta dago (P35IR.Mintegia.UPV/EHU. Kolonbia).*

Idea horretatik beste ikaspen bat ateratzen da: akademia kritikoa eta matxinadan dauden komunitate-prozesuak lotzeko, ezinbestekoa da zubiak ezartzea unibertsitateko komunitateko eragile kritikoen eta gizarte-borroekin konprometitutako subjektuen artean. Artikulazio horren bidez, ekintza komunitarioan garrantzitsuak diren subjektuen eta korrante akademiko eta zientifiko kritikotik sortzen direnen ekintza batu eta indartu nahi da. Hala, ikaskuntza- eta ikerketa-eremu artikulatuak sortzen dira, non akademia eta gizartea era horizontalean erlazionatzen diren eta ezagutzak trukatzeko dituzten.

Badaude ahalduz lotura horretarako formulak, hala nola ikerketa-haztegiak, kulturarteko ikuspegiak dituzten pentsamendu-zentroak eta ikerketa komunitarioko taldeak. Horiek guztiek hirukoak sortzen dituzte akademia kritikorekin eta bitartekari eta gizarte-talde gisa jarduten duten subjektu politikoekin batera. Artikulazio proiektuaren bidez, akademiaren eta borrokan ari diren komunitateen arteko elkargune batzuk sortu ziren, eta horiek unibertsitate kritikorako ekimen bizigarriak dira:

*...ikerketa egiten ari diren sektoreetara jo behar dugu, bai beren lehen ikerketak egiten ari direnetara, bai prestakuntza- eta titulazio-prozesua inguratzen duten ikerketetan ari direnetara, doktoretza barne. Hastapen hori funtsezkoa da ikerketaren ezaugarriak eta logikak buruzko ezagutza eta erreferentziak ematen hasteko, bai eta ikerketa akademikoki birbideratzeko orduan egon daitezkeen erronei eta zailtasunei buruzkoak ere (P44IR.Topaketa.UNICAUCA.Euskadi).*



Gizartearekiko eta komunitatearekiko konpromisotik abiatuta, ikerkuntzan eta prestakuntzan egindako ikerketak bide alternatibo eta emankorrak eskaintzen ditu ohiko tradizio akademikoaren aurrean; izan ere, tradizio akademiko konbentzionalak izapide burokratiko, meritokratiko eta utilitario gisa ulertzen du ikerketa-jarduera. Ugariak dira arlo akademikoan sistematikoki gutxietsi eta baztertu diren ezagutza herrikoiak, afro-ondorengoak, indigenak eta beste herri batzuetakoak. Errealitate hori kontuan hartuta, zenbait galdera sortzen dira: Nola lotu egoera aldatzea komunitateen ahalduntzea sustatzeko, ezagutza-ekoizle eta unibertsitate-komunitatean ezinbestekoak diren subjektu diren aldetik? Nola aktibatu jakintza ikusezin eta gutxietsiak, akademiaren ikerketa positibistaren logikatik harago beste mota bateko memoria eta ikerketa-metodoak sor daitezten? Nola egin jakintza horiek aintzatespena izan dezaten, interes utilitario eta estraktibistan erori gabe?

Akademia nagusi den paradigma enpirista eta neopositibistak agerian uzten du ez dela gai gizarte-eskaeraren lekuko diren subjektu politikoei lekua eta protagonismoa emateko. Subjektu horiek gizartearen eta unibertsitatearen arteko lotura gisa jarduten dute, eta beste ikerketa- eta zientzia-paradigma bat eskatzen dute, non gizarte-arazoei erantzuteko konpromisoa den helburu nagusia. Hala ere, akademian badira mugimendu batzuk, jakintza sortzeko modu nagusiak ezegonkortu, eta "krisi epistemiko" dei genezakeena eragiten dutenak.

#### 4.4.3. Lurraldea pentsamenduaren eta ekintzaren katalizatzaile gisa

Proiektu honek agerian utzi zuen, halaber, ikaspenak, jakintzak eta estrategiak ezagutza-subjektuen historiak, kulturak eta antolatze moduak markatutako lekuetatik sortzen, finkatzen eta sozializatzen direla. Hau da, interesak eta begiradak espazio-, denbora-, identitate- eta gizarte-baldintza jakin batzuetan sortzen dira. Lurraldeak ahalbidetzen digu elkarrizketa, ekintza eta lankidetzak kolektiborako subjektu gisa azaltzen, hau da, espazio fisikoa eta enuntziario politiko eta kulturalerako lekua da.

Geure burua enuntziatzeak, nongoak garen, nola pentsatzen dugun eta zertarako jarduten dugun jakiteak subjektu gisa bereizten gaitu, eta komunikaziorako eta ahalduntze-aliantzetarako emozioei, etikari, diskurtsoei eta estrategiei nondik ekiten diegun zehazten du. Edozein giza artikulaziotarako eta gizarte-artikulaziotarako baldintza eta ahalmena da.

Beste subjektu batzuei, bereziki arauditik kanpo daudenei, biolentzia eragin eta inposatzen dieten subjektu abstraktu eta orokorrak eraikitze prozesu hegemonikoen aurrean, beharrezkoa da agerian uztea gure identitate errotuen aberastasun bizia. Jakintzen aniztasuna handia da, haiek sortu, baldintzatu, sozializatu eta zabaldu dituzten baldintza eta lurraldeen aniztasuna bezain bestekoa:

*Gure gorputzetan, lehen lurralde horretan, gure borrokaren espazioan eustea, hortik abiatuta eraikitzen baitugu gure ibilbide pertsonala, gure ahotsa, horren bidez kokatzen baikara munduan eta, noski, horren bidez hitz egiten dugu. Halaber, kolektiboki ere euts diezaiokegu, ingurumen-erakunde eta -kolektiboen bidez, genero-berdintasunari, auzoetako taldeei, indigenen lanari lotutako borroken bidez (P45IK.Topaketa.USCO. Kolonbia).*



Jakinaren gainean zein oharkabean, lurraldean ezinbestean errotutako jantzetan eta perspektibetan bildutako gizarte-subjektuak gara, eta, aldi berean, espazio eta lurraldetasun berriak sortzen ditugu:

*Garrantzitsua da lurraldean egotea, egoteak du lehentasuna. Lurraldean egotearen eta ezagutzaren, lurraldean gertatzen denaren arteko loturaren baldintza. Lurraldean izan ditugun esperientzien arabera, ez dugu ezinbestean ikerketa-ekintza parte-hartzailea (IEPH) egiten, Orlando Fals Bordak, Víctor Negrete Barrerak, edo Joanne Rappaportek “El cobarde no hace historia” (Koldarra ez da gogoangarria izaten) testuan esango luketen bezala, baina lan parte-hartzailearen, elkarlanaren, lagun egitearen, lurraldean presentzia izatearen hainbat adierazpen gauzatzen ditugu. Egote hori oso garrantzitsua da, baina gutxien landu dena da (P461R.Topaketa.UNICAUCA.Kolonbia).*

Lan parte-hartzaile eta kolaboratiboak, borrokarako eta ekintza eraldatzaileerako lanak, lurraldean egotera behartzen gaitu, eta lurraldetasun horretatik abiatuta eratzen dugu geure burua, potentzialtasun, erresistentzia, muga eta aukeren bidez. Lurraldetasun saretuak aberastu egin ditu Articuladxs proiektuan elkarriketan aritu, partekatu eta ikasi dugunon begiradak eta aukerak.

#### 4.4.4. Proiektu politiko komuna

Beste ikaspen garrantzitsu bat da ulertzea ezen, dimentsio kolektiboko eta, beraz, politikoko proiektu bat proposatzen denean, desioak eta itxaropena partekatzen direla, eta horri esker, ikaspenak ugaritzeko, saretu eta sendotu egiten dira. Bi dinamika ireki horiek elkarri lotuta egoteak –akademia eta ekintza-komunitateak– aliantzak eta artikulazioak sustatzen ditu. Elkargune horien eta horietan parte hartzen duten eragileen interesen jatorria eta emaitza da Articuladxs proiektua. Antzeko ametsak eta proiektu politiko komunak ditugun eragile gisa bilatzen, aurkitzen eta saretzen gara.

Ikerketaren etikan pentsatzeak gutxienez hiru gai funtsezko aztertzea eskatzen du. Batetik, ikertzailearen eta ikerketaren beraren arteko lotura. Bestetik, ikertzen edo ikerketan parte hartzen duten subjektuen arteko loturak. Azkenik, sortutako ezagutzaren eta gizartearen arteko lotura (sisteman eragin eraldatzailea edo errepikatzailea duen). Gurea bezalako proiektu bat teoriatik praktikara igarotzen denean, etika eta borroka komunak sortzen dira, baina baita kontraesanak ere, eta horiek ulertu egin behar dira, aliantza horizontalak eratzeko eta liskarrak gainditzeko formulak proposatzeko.



Alde horretatik, Unibertsitatearen eta Gizartearen artean sortzen ari diren proiektuek kontuan hartu behar dituzte boterearen etika eta etikaren boterea. Beren logikak, interesak eta helburuak berrikusi behar dituzte etikaren ikuspuntutik, eta beren etikak gizartearen duen eragina kontuan hartu, etika hori guztiz politikoa baita:

*Gogoan izan behar dugu hezkuntza-proiektu oro proiektu politikoa dela, eta hori ez dela beti agerian uzten. Etengabe esaten zaigu hezkuntza ezin dela politikoa izan, eta horrek, nolabait, jarrera politiko jakin bat dakar: ezarritako ordena mantentzea onartzen duen politika. Hezkuntza emantzipatzailearen bokazio politikoak bide ematen digu gure jarrera adierazteko eta gure hezkuntza- eta ikerketa-proiektuetan laguntzen ditugun herritar eta subjektuekin konpromisoa hartzeko (P47KS.Mintegia. UPV/EHU.Euskadi).*

Arrazismoa, klasismoa, sexismoa, kolonialismoa... kapitalismoaren hegemoniaren praktikak dira, eta boterearen eta elite menderatzaileen onurarako baliio-sistema bat osatzen dute. Bestalde, komunitateek eta gizarte-eragile kritikoek etika *bestelako* bat zabaltzen dute, askatzailea eta ahalduz duena. Bestelako etika horrek gidatzen ditu irakaskuntzaren jarduera, ikerketa eta konpromiso akademikoa, eta, aldi berean, aldaketarako aliantza eta prozesu sozialen motorra da.

#### 4.4.5. Unibertsitate saretua, eraldaketa emantzipatzaileak ikusarazteko

Erresistentzia, bai eta sortzeko eta elkarriketarako gaitasuna ere, eraiki eta ikasi egiten dira (ez dira pertsoneri berez dagozkienak). Gainera, beren lurraldeetako errealitateak abiatuta moldaturiko ikaspenak dira, eta errealitate horiek ematen diete zentzua. Hala, beharrezkoa da ikaspen horien giza eta gizarte-aberastasuna agerian uztea, hegemoniak ezkutatu eta gutxietsi duenarekiko konpromisotik abiatuta.

Gizarte-pobretze eta -desberdintasuneko egoerak ikusezin bihurtzen diren bezala, ukatu egiten dira, halaber, intentsitate bateko edo besteko eraldaketak eragiten dituzten prozesuak, borrokak eta erresistentziak, eta ezkutatzeko hori gizarte-eremuetan zein eremu akademikoetan gertatzen da. Beraz, ondorioetako bat da unibertsitateek parte hartu behar dutela isilarazitako dinamika eraldatzaile horiek ikusarazten eta onartzen, funtzio akademikoen bidez (irakaskuntza, ikerketa eta hedapena), baina baita berrikuntza-prozesuen parte modura ere.

Globalizazio kapitalistaren kultura-ereduak jakintza akademikoa helburu merkantilistetara eta gizarte-kontrolera bideratzen du. Kontrol horrek gizabanakoei zein kolektiboari eragiten die, eta modu esplizituan sortzen da, zaintza-mekanismoen bidez, edo modu inplizituan, sedukzioaren kapitalismoaren bidez. Ondorioz, badago akademia bat eta jakintzaren ekoizpen bat errepikapenaren zerbitzura dagoena, eta botere-joko menderatzaileetarako baliagarria den hori erakusten duena. Jakintza-ekoizpen horrek baztertu, ikusezin bihurtu eta isildu egiten ditu sistemak berak sortzen dituen arazo sozialak, ekologikoak eta bestelakoak. Zientzia kritikoaren proposamenetan, ezkutuko errealitate horiek agerian uzteko konpromisoa hartu behar da:

*Batez ere, aldaketa-eragile gisa gutxien ezagutarazten diren sektoreak edo prozesuak sustatu behar dira, bai eta eraldaketak beren testuinguruan ere, edo gizartearen eraldaketaren ikuspegitik nolabait proiektu politiko bat dutenak (P371K.Topaketa.UNICAUCA.Kolonbia).*



Azterketarako ikuspegi berriak eta jokaleku eta borroka berriak ugaritu izanak etengabe eguneratzea eta errealitate sozialak ikusaraztea eskatzen du, nagusi den garapen-ereduak sortzen dituen dramak barne. Alde horretatik, beharrezkoak dira diskurtsoa (berr)eskuratzeko eta parte hartzen ez duten lurraldeetara eta komunitateetara zabaltzeko (adibidez, landa-eremura) hezkuntza-estrategiak:

*Horrek komunikazio-moduak birpentsatzea eskatzen du, hau da, diskurtsoak zaintzea, eta baita diskurtso horiek helarazteko moduak ere: ikusizko narrazioen bidez, argazki-interbentzioen bidez, muralismoaren bidez, fanzine-lantegien bidez, istorioak sortzeko lantegien bidez... (P48KS.Topaketa.UNICAUCA.Kolonbia).*

Hezkuntzan eta ikerketan eraldaketarako aukera bat aurkitzen duten kolektiboen artean esperientziak zuzenean trukatzeko aukerak aberastu egin zituen bai gure ikuspegia, bai gizarte-erakundeen eta erakunde akademikoaren arteko

harremanak. Unibertsitateak hezkuntzari eta ikerketari buruzko truke- eta eztabaida-gune bihurtzeak, Kolonbiako eta Euskadiko mintegi eta topaketekin egin genuen bezala, aukera eman zigun elkarrizketa horiek eremu akademikoan ezartzeko, bai eta komunitateen, gizarte-erakundeen, ibilbide historiko luzeko intelektual organikoen, ikasle-belaunaldi gazteen eta ikuspegi horietan interesa zuten irakasleen ahotza entzuteko baldintzak ezartzeko ere. Alde horretatik, gure zenbait mailatako artikulazioa –tokikoa, eskualdeetako, nazioartekoa– baliatu genuen ezagutzaren zentzu politikoari buruzko elkarrizketa zabal eta demokratikoa bultzatzeko.







## Erreferentzia bibliografikoak



## Erreferentzia bibliografikoak

- Escobar, Arturo (2016). "Sentipensar con la Tierra: Las luchas territoriales y la dimensión ontológica de las epistemologías del Sur". *Revista de Antropología Iberoamericana*, 11(1), 11-32.
- Escobar, Arturo (2020). "Política pluriversal: lo real y lo posible en el pensamiento crítico y las luchas latinoamericanas contemporáneas". *Tabula Rasa*, 36, 323-354.
- Fals Borda, Orlando (2002). *Historia doble de la Costa*. Kolonbiako Unibertsitate Nazionala. Banco de la República. El Áncora.
- Fals Borda, Orlando (2015). *Una sociología sentipensante para América Latina*. Mexiko Hiria, Siglo XXI, Buenos Aires, CLACSO.
- Freire, Paulo (1984). *La importancia de leer y el acto de liberación*, Mexiko, Siglo XXI.
- Guerrero Arias, Patricio (2010). "Corazonar el sentido de las epistemologías dominantes desde las sabidurías insurgentes, para construir sentidos otros de la existencia" (lehen zatia). *Calle 14 Revista de investigación en el campo del arte*. 4. libk., 80-94. Bogotá, Francisco José de Caldas Barruti Unibertsitatea.
- Haraway, Donna J. (1995). *Ciencia, ciborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Madril, Cátedra.
- Harding, Sandra (1996). *Ciencia y feminismo*. Madril, Morata.
- Rappaport, Joanne (2021). *El cobarde no hace historia. Orlando Fals Borda y los inicios de la investigación-acción participativa*. Itzulpena: Santiago Paredes Cisneros. Bogotá, Rosarioko Unibertsitatea.
- Segato, Rita Laura (2016). *La guerra contra las mujeres*. Madril, Traficantes de Sueños.
- Torres Carrilo, Alfonso (2020). *Comunidad en movimiento. Persistencias, renascencias y emergencias comunitarias en América Latina*. Desde abajo.
- Walter D. Mignolo (2003). *Historias locales; diseños globales: colonialidad, conocimientos subalternos y pensamiento fronterizo*. Madril, Akal.
- Walter D. Mignolo (2005). "La razón postcolonial: herencias coloniales y teorías postcoloniales". *AdVersuS Revista de Semiótica*, II. urtea, 4. zk.





Eranskinak



## 1. Eranskina

### 1. Fitxa. Ikerketak-lanaren aurkezpena

Ikaslea	.....
Gradua edo graduondoa	.....
Gaia formulatu eta zedarritu	.....
Aukeratutako gaiaren justifikazioa	.....
Identifikatu zure ikerketagalderak	.....

## 2. Eranskina

### 2. Fitxa. Hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekiko loturak

<b>Kapitalismoa desnaturalizatzea</b>
Zalantzan jartzea kapitalismoa printzipio kultural unibertsala dela. Ikuspegi ekosoziala (interdependentzia eta ekodependentzia). Planeta finituko lurralde-kultura.
<b>Iruditeria kolektiboa deskolonizatzea</b>
Onartzea errealitatea aztertzeko eta ordezeko aukerak proposatzeko dugun modua gure kulturaren mende dagoela.
<b>Kulturartekotasun kritikoa</b>
Kontuan hartzea alderdi kulturalak, desberdinen artean berdintasun-harremanak ezartzea ekidinez. Arrazakeriaren aurka borrokatzea eta eurozentrismoari aurre egitea.

### Feminismo kritikoak

Onartzea errealitateko hurbilketa gizonek eta emakumeek dituzten posizio desberdinen mende dagoela.

Epistemologia feministak. Feminismo postkolonialak. Mugetatiko feminismoak. Ekofeminismoak.

### Ikuspegi interseksionala

Generoan aldi berean aritzen diren askotariko esperientziak eta menderatze-sistemak hautematea (etnia, klasea, dibertsitate funtzionala...).

### Ahalduntze-partaidetza

Komunitateak, hots, ikerketako kolektiboak errealitatea eraldatzeko gaitasuna eta ezagutza lortzen ditu.

### Subjektu protagonistekiko jakintza-eztabaida sustatzen duen ezagutza kritikoa

Sozialki esanguratsuak diren eta injustizia sozialak eta zapalkuntzak gainditzeko ekintzak sustatzen dituzten edukien inguruan lan egiten duen ezagutza.

Harreman horizontala eta ikaskuntzakoa, ikerketa-prozesuetan.

Elkarrizketa sortzea Unibertsitateko jakintza zientifiko eta humanistikoaren eta mendebaldekoak ez diren kulturen jakintza laiko, herritar, tradizional eta landatarren artean.

## 3. Eranskina

### 3. Fitxa. Gizarte-arloarekin konprometitutako ikerketa lanak pentsatzeko jarraibideak

Izenburua	Lanaren edukiari egokitzea eta aztertzen den arazoa eta/edo defendatzen den jarrera aipatzea. Izenburu iradokitzaila aurkitzea.
Aurkibide xehea	Lanaren egitura islatzea.
Sarrera	
Gaia formulatu eta zedarritzea	Gaia behar bezala zehaztea, bai eta esparru kronologiko eta espaziala ere.



<p><b>Aukeratutako gaiaren justifikazioa</b></p>	<p>Azaltzea zergatik aukeratu den gai hori, zergatik den garrantzitsua edo egokia gai hori gaur egun aztertzea (gai hori hautatzea eragin duten arrazoi pertsonalak sar daitezke).</p> <p>Lanaren gaia xede etiko batekin eta gizarteentzat garrantzi soziala duten egoerekiko konpromisoarekin lotzea. Lanak sortutako ezagutzari esker, errazagoa izango da injustizia soziala, iraunkortasun falta eta ekitate faltako egoerak gainditzeko ekintzak gauzatzea.</p> <p>Interesgarria da jakitea gaiaren aukeraketa ez dela neutrala. Jarrera ideologikoa/epistemologikoa agerian jartzea: errealitate soziala modu kritiko eta eraldatzailean aldatzen laguntzea.</p> <p><b>Hausnartzeko galderak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Gaia lan honen ikuspegitik jorratzeak aukera ematen al du gizartea eraldatzeko bideak aztertzeko?</li> <li>☞ Ikerketaren orientazioak ekarpenik egiten al dio errealitatea aldatzeko xedeari? Lan honetan sortzen den ezagutza esanguratsua al da gizarte-aldaketa horretarako?</li> <li>☞ Gaia lantzeak ba al du inpakturik pertsonetan eta naturan? Nolakoak? Gure gizarteetako arazo ekosozialei erantzuten die?</li> <li>☞ Sistema kapitalistari aurre egiteko beharrezkoa den kultura-aldaketari laguntzen al dio nolabait?</li> </ul>
<p><b>Helburuak, galderak eta/edo hipotesiak</b></p>	<p>Lanarekin lortu nahi diren helburuak, zer jorratu nahi den eta nora heldu nahi den. Era berean, ondoren azterketan berretsiko dugun edo ez dugun galdera garrantzitsuren bat, hipotesiren bat edo kasuren bat planteatu dezakegu. Galderak egiteak frogatu nahi duguna zehazten eta egin beharreko bideak markatzen lagunduko digu.</p> <p>Lanaren helburua arazo sozialei erantzuten dieten konponbideak bilatzearekin lotzea. Interesgarria izan daiteke lanak gai hauetakoren bat aztertu eta jorratzea: emakumeen eta gizonen arteko asimetriak (genero-ikuspegi feminista), kulturartekotasun kritikoaren ikuspegia, askotariko menderatze-sistemak (interseksionalitatea)...</p>

<p>Helburuak, galderak eta/edo hipotesiak</p>	<p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>☼ Helburu horiei ekiteak aukera ematen du egoera sozialki garrantzitsuak aztertzeko?</li> <li>☼ Lanaren helburuek fenomenoaren arteko mendekotasuna agerian jartzen duen azterketa zehazten dute?</li> <li>☼ Egindako galderak genero-ikuspegian, interseksionalitatean eta kulturartekotasun kritikoan oinarritzen dira?</li> <li>☼ Lanaren helburuen artean ba al dago ezagutzaren sorrerari buruzko kritika deskolonialik?</li> <li>☼ Lanak laguntzen al du aztarna koloniala nola ahaztu pentsatzen?</li> <li>☼ Lanak sakontzen al du pentsamendu androzentrikoaren beharrezko dekonstrukzioan?</li> </ul>
<p>Metodologia</p>	<p>Metodologia jakin batzuk erabiltzeak aukera emango du mundua aztertu eta deskribatzeko, baina baita eraldatzeko ere. Metodologiak ere izaera politikoa du.</p> <p>Erabilitako metodologiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- ahotsa eman behar die arazoan nahastuta dauden subjektuei;</li> <li>- dibertsitatea errespetatu eta ahotsen aniztasuna onartu behar du;</li> <li>- ikerketaren "subjektu/objektu" etena gainditu behar du (horizontaltasuna, hierarkia beharrean);</li> <li>- malgua izan eta ikerlanean nahastutako subjektu eta mugimenduen identitate eta interesei egokituta egon behar du; - kontuan hartu behar ditu alderdi kulturalak eta berorien ñabardura guztiak jaso behar ditu, eurozentrismoari eta arrazismoari aurre egiteaz gain (kulturarteko metodologiak).</li> </ul> <p>Ikuspegi hori duten metodologia interesgarri batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Partaidetzako ikerketa-ekintza (ezagutza taldean sortzea, bizipenetan, esperientzian eta azterketa kritikoan oinarrituta, gizarte-aldaketara bideratuta...).</li> <li>- Epistemologia feministen esparruaren barruko ikerketa-metodologiak, esaterako, gorputzaren metodologiak (gorputz sexuduna hausnarketaren erdian jartzen dute eta errealitateari buruzko informazioa eta ezagutza lortzeko beste modu batzuk erabiltzen dituzte, zeinak balio epistemikoa ematen dieten emakumeen egunerokotasuna osatzen duten elementuei).</li> </ul>

<p><b>Metodologia</b></p>	<p>- Boaventura De Sousa Santosek ikerketa-ekintzan sakontzeko proposatzen duen <i>jakintzen ekologia</i>. Haren hitzetan, “Jakintzen ekologia ezagutza heterogeneoen aniztasuna ezagutzearan oinarritzen da –horietako bat zientzia modernoa da–, bai eta beren autonomia arriskuan jarri gabe elkarren artean dituzten etengabeko lotura dinamikoetan ere. Jakintzen ekologiaren oinarrian, ezagutza elkarrekiko ezagutza dela dioen ideia dago”. <i>Jakintzen ekologia</i> egile beraren <i>Hegoaldeko epistemologiaren</i> proposamenetik jaio zen; haren arabera, munduaren ulermena eta eraldaketa mendebaldetik soilik datorrena baino askoz ere zabalagoa da, eta munduaren dibertsitatea amaigabea da.</p> <p><b>Hausnartzeko galderak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>💡 Zein interes daude ikerketa-lan honek planteatzen duen metodologiaren atzean?</li> <li>💡 Interesik izan al dezakete lanean metodologia feministek?</li> <li>💡 Nola saiatzen da ikerlana askotariko pentsamenduko eztabaidak ezartzen?</li> <li>💡 Nor dira lan honen subjektu kritikoak, historiaren eraldaketa sozialarekin konprometituta daudenak?</li> <li>💡 Zer ekintza, metodologia, erlazioatzeko modu eta abar garatzen ditu ikerlan honetan sartuta dauden kolektiboen benetako protagonismoa bermatzeko?</li> <li>💡 Zer neurri proposatzen ditu ikerlanean parte hartzen duten pertsonen/kolektiboen arteko botere- eta pribilegio-harremanak saihesteko? Nola garatu daiteke elkarrizketa horizontal hori?</li> <li>💡 Zer rol du dibertsitateak (kulturala, sexuala, generoari dagokiona...) lan honen prozesuan? Nola heldu behar zaio dibertsitateari? Zer aukera eta zailtasun aurreikusten dira?</li> <li>💡 Nola aurreikusi duzu ikerlan honen aurrerapenak komunikatu eta itzultzea?</li> </ul>
<p><b>Lanaren egitura eta garapena</b></p>	
<p><b>Kontzeptu-eta/edo teoria-esparrua</b></p>	<p>Oinarritzko kontzeptuak, teoriak eta korronteen arteko eztabaidak.</p> <p>Paradigma zientifiko nagusiak sortutako ezagutza legitimatzen duten premisa epistemologiko nagusiak argi eta garbi zalantzan jartzen dituen kontzeptu-esparrua erabiltzea. Kapitalismoa eta patriarkatua naturalizatzen duten sinesmenak berrikusteko aukera ematen duen kontzeptu-esparrua erabiltzea; halaber, aukera eman behar du sistema hegemonikoa eta berorren zapalkuntza-egiturak kritikatu eta eraldatuko dituzten aukerak aztertzeko. Ildo horretan, generoaren teoria eta oinarri feministen gainean eraikitako ezagutza funtsezkoak dira.</p>

<p>Kontzeptu-eta/edo teoria-esparrua</p>	<p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>💡 Zer paradigma dago ikerketa-lan honek erabiltzen duen esparru teorikoaren atzean? (positibista, interpretaziokoa, kritikoa...).</li> <li>💡 Esparru teorikoak egiten al dio kritikarik mendebaldeko paradigma antropozentrikoari?</li> <li>💡 Lanaren oinarriko esparru teorikoak zenbait paradigma epistemologikotatik jasotzen ditu ekarpenak?</li> <li>💡 Lan honek garatzen duen esparru teorikoak agerian jartzen al du pentsamendu androzentriko eta eurozentrikoa deseraiki behar dela? Proposamenak barne hartzen al ditu epistemologia feministak?</li> </ul>
<p>Aurrekariak eta testuinguruaren azterketa</p>	<p>Hobeto ulertzeko baldintzak areagotu egiten dira testuinguru sakon eta zorrotz aztertzen bada; horretarako: ikuspegi konplexua izan behar da (feminista, kulturartekoa, interseksionala...), baita globala eta elkarri lotua ere (iparralde-hegoalde logika tradizionala gaindituz, ikuspegi globalizatzailea izan behar da, loturak egiteko, elkarrekintzan ari diren askotariko faktoreetan arreta jarri eta errealitatea osatzen duten elementuen arteko mendekotasunak ikusteko, testuinguru aldakorrean arreta jartzeko...), botere-harremanak eta -dinamikak ulertu behar dira, etab. Testuinguru ikuspegi horietatik aztertzeak aukera ematen du azalpen partzial eta sinplistekin amaitzeko, eta arazoa harreman-esparru konplexuagoan ikusteko.</p> <p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>💡 Ikerketa-lanaren edukiak eta beroriek lantzeko moduak laguntzen al diote kapitalismoa desnaturalizatzeko prozesuari?</li> <li>💡 Lanak agerian jartzen al ditu botere-harremanak eta genero-desberdinkeriak?</li> <li>💡 Lan honek aztertzen al du nola genero-desberdinkeriez gain klaseari, etniari eta abarri buruzkoak dauden?</li> <li>💡 Nola islatzen du lanak dauden askotariko zapalkuntzen azterketa eta ulermena?</li> </ul>
<p>Ondorioak</p>	<p>Lotura izan behar dute sarreran eta helburuetan planteatutakoarekin, galdera eta hipotesiekin eta gauzatutako azterketarekin.</p> <p>Gomendioak/ondorioak diseinatzean, kontuan hartzea generoen arteko botere-desberdinkeriak eta askotariko zapalkuntzen sistema daudela.</p>

<p>Ondorioak</p>	<p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>💡 Lan honetako ikaskuntzek laguntzen al dute errealitatean gertatzen dena aztertzeko eta ulertzeko gaitasuna hobetzen, eta sortzen al ditu eraldaketarako ekintza-proposamenak?</li> <li>💡 Ikerketa honen emaitzek zer neurritan laguntzen dute errealitatea hobeto ulertzen eta eredu kapitalistari aurre egiteko ekintzak identifikatzen?</li> <li>💡 Zer ekarpen egiten dute lan honen ondorioek, ikuspegi ekosozialetik (interdependentzia eta ekodependentzia)?</li> <li>💡 Ikerketaren/lanaren ondorioek proposatzen al dute gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak eraldatzeko prozedurarik?</li> </ul>
<p>Bibliografia-iturriak</p>	<p>Lanerako erabili diren erreferentzia bibliografikoak eta dokumentuak (hala instituzionalak nola gizarte-erakunde eta -taldeenak).</p> <p>Askotariko iturri eta erreferentziak erabiltzea, mundu osoaren ulermenera hurbiltzeko. Askotariko tokietan ekoiztako dokumentuak, txostenak, artikulak eta abar erabiltzea (iparraldeko eta hegoaldeko askotariko kulturetako egileak, talde menderatu edo baztertuek eginak, edo haien ikuspegiak eta interesak kontuan hartu dituztenak, emakumeek eta gizonen ekoizkiak, ikuspegi feministatik...).</p> <p>Arreta jartzea Donna Harawayk 1995ean sortu zuen "ezagutza kokatuaren" ideari, epistemologia feministaren funtsezko ekarpenetako bat baita. Ezagutza kokatuaren arabera, subjektu modura osatzen gaituzten egoera sozialek gure ikuspegia eta sortzen dugun ezagutza baldintzatzen dute. Ikuspegi horren arabera, errealitatearen irudikapenak beti partzialak dira eta hala interpretatu behar dira.</p>
<p>Bibliografia-iturriak</p>	<p>Hausnartzeko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>💡 Nondik datoz lanean erabilitako iturri bibliografikoak? Nor da erreferentzia horien egilea? Emakumezko egileen erreferentziak sartu ditugu? Zer zentzu eta inplikazio ditu?</li> <li>💡 Badakizu lanean erabilitako erreferentzia bibliografikoak jarrera epistemiko jakin baten ondoriozkoak direla?</li> <li>💡 Ikerketa-lanak laguntzen al dio nolabait deskolonizazio epistemikoari?</li> </ul>
<p>Eranskinak</p>	<p>Mapak, estatistika-taulak...</p>

## 4. Eranskinak

### 4. Fitxa. Irakasleen eta gizarte-kolektiboan

Unibertsitatean nola urratu bidea botere-eliteen pentsamolde neoliberalari aurre egiteko? Pentsamolde hori, besteak beste, arlo hauetara ere iristen baita: hezkuntza-arloko diskurtsora, curriculumera, ikerketako eduki eta moduetara, unibertsitate-esparruan jarduten duten subjektuetara, denboretara eta espazioetara.

Zer zentzu ematen diogu ikerketari?

Nola eta zer ikuspegitatik pentsa dezakegu gizarte-arazoei erantzungo dien ikerketa kritiko bati buruz?

## 5. Eranskina

### Sistematizazioan erabilitako erregistroak

- “Konpromiso soziala ikerketa akademikoko lanetan” mintegietako baterako saioaren bideoa.
- UPV/EHU, UNICAUCA eta USCO n egindako mintegietako saioen aktak.
- eGelaPI (UPV/EHU) onlineko plataforman jasotako materialak eta foroak.
- UPV/EHUko mintegietan izena eman zuten ikasleei Bilbon 2022ko maiatzaren 12ko topaketan hizlari modura parte hartzeko eskatu zitzaizkien ariketak.
- UPV/EHUko mintegietan izena eman zuten ikasleei Kolonbiako topaketetan parte hartzeko eskatu zitzaizkien ariketak.
- Mintegietan eta topaketetan (UPV/EHU, UNICAUCA eta USCO) hizlariak egindako aurkezpenak.
- “Ikerketa kritikoaren gakoak, unibertsitatearen eta gizarte-mugimenduen arteko artikulaziotik” izenburupean UPV/EHU n maiatzaren 12an egindako topaketako bideoak eta transkripzioak.
- UPV/EHUko topaketan antolatutako talde-eztabaidetako ondorioak.
- Esperientzia pedagogikoari buruzko bideoa.
- “Ikerketa-ekintza Parte-hartzailearen proposamen etiko-politikoari buruzko gogoeak” mintegiaren akta. Mintegi Parte Hartuz ikerketa-taldeak, Hezkuntza Fakultateak eta Hegoa institutuak antolatu zuten maiatzaren 11n, Sarrikon (UPV/EHU).
- “Ezagutzaren beste praktika batzuk itxaropenaren alde borrokatzeko” izenburuarekin 2022ko irailaren 5ean Surcolombiana Unibertsitatean, Neivan (Kolonbia), egindako topaketaren errelatoretza.
- “Irudimena, politika eta akademia: ikerkuntzarako eta hezkuntza emantzipatzaile-rako erronkak” izenburuarekin 2022ko irailaren 9an Caucaoko Unibertsitatean, Popayá n (Kolonbia), egindako topaketaren errelatoretza.
- UPV/EHU, UNICAUCA eta USCO n eraturako talde fokalen transkripzioak.
- Kolonbiako herri-ekimenetako partaideekin izandako topaketen eta elkarrizketen ondoren, Santander de Quilichaon (Kolonbia) 2022ko irailaren 10ean egindako gogoeta-ariketa.

## 6. Eranskina

### Hezkuntza kritiko eta eraldatzaileko oinarriko bibliografia

Balash, Marcel et al. (2005). "Investigación crítica: Desafíos y posibilidades". In *Atenea digital* 8. zk. (129.-144. or.). Hemen eskuragarri:

[www.researchgate.net/publication/26412663\\_Investigacion\\_Critica\\_Desafios\\_y\\_Posibilidades](http://www.researchgate.net/publication/26412663_Investigacion_Critica_Desafios_y_Posibilidades)

Del Río Martínez, Amaia eta Gema Celorio Díaz (2018). "Conceptualización de la educación emancipadora". *La educación crítica emancipadora. Diagnóstico en la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) (2011-2015)*. Bilbo, Hegoa. 13.-26. or. Hemen eskuragarri:

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/388>

García López, Rafaela; Sales Ciges, Auxiliadora et al. (2009). "La formación ética profesional desde la perspectiva del profesorado universitario". *Teoría de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 21(1). 199.-221. or. Hemen eskuragarri:

<http://revistas.usal.es/index.php/1130-3743/article/view/3166>

Giroux, Henry A. (2019). *La guerra del neoliberalismo contra la educación superior*. Bartzelona: Herder argitaletxea.

Martínez Martín, Irene eta Gema Ramírez Artiaga (2017). "Des-patriarcalizar y Des-colonizar la Educación. Experiencias para una Formación Feminista del Profesorado". *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social (RIEJS)*, 2017, 6(2). 81.-95. or. Hemen eskuragarri:

<https://doi.org/10.15366/riejs2017.6.2.005>

Martínez Martín, Irene (2016). "Construcción de una pedagogía feminista para una ciudadanía transformadora y contra-hegemónica". *Foro de Educación*, 14(20). 129.-151. or. Hemen eskuragarri:

<http://dx.doi.org/10.14516/fde.2016.014.020.008>

Pérez Orozco, Amaia (2012). *De vidas vivibles y producción imposible*. Hemen eskuragarri:

[www.rebellion.org/noticia.php?id=144215](http://www.rebellion.org/noticia.php?id=144215)

Rauber, Isabel (2014). "Deskolonizazioa, askapena eta hezkuntza zibilizazio-aldaketarako. Claves sociales, políticas, económicas y culturales desde Latinoamérica. Pedagogías de esperanza" in *Hezkuntza aldatzen, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde! Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak*. Gasteiz. Bilbo, Hegoa. 217.-226. or. Hemen eskuragarri:

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/330>

Restrepo, Eduardo (2017). "Imaginar el fin del desarrollo sin las garantías de radicales otredades". In Tatiana Gutiérrez Alarcón et al. *Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos "otros"*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios - UNIMINUTO. Centro de Educación para el Desarrollo (CED). 19.-40. or. Hemen eskuragarri:

[www.ram-wan.net/restrepo/documentos/fin-dllo.pdf](http://www.ram-wan.net/restrepo/documentos/fin-dllo.pdf)



Santos Gómez, Marcos (2006). "De la verticalidad a la horizontalidad. Reflexiones para una educación emancipadora". *Revista de Ciencias Sociales y Humanidades*, 107. zk. 39.-64. or. Hemen eskuragarri:

<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4027583.pdf>

Torres Carrillo, Alfonso (2009). "Educación popular y paradigmas emancipadores". *Pedagogía y Saberes*, (30), 19.32. Hemen eskuragarri:

<https://doi.org/10.17227/01212494.30pys19.32>

Walsh, Catherine E. (2017). "Pedagogías decoloniales". In Tatiana Gutiérrez Alarcón et al. *Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos "otros"*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios - UNIMINUTO. Centro de Educación para el Desarrollo (CED). 55.-77. or. Hemen eskuragarri:

<http://catherine-walsh.blogspot.com/2018/01/pedagogias-decoloniales.html>

Walsh, Catherine E. (2014). "Pedagogías decoloniales caminando y preguntando. Notas a Paulo Freire desde Abya Yala". *Revista Entramados*. 1. urtea, 1. zk. 17.-31. or. Hemen eskuragarri:

<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5251817.pdf>

Finantzailea:



Argitaratzaileak:

